



PAC: PAGOS DIRECTOS MANUAL PRACTICO

2015-2020

NPB: ORDAINKETA ZUZENAK GIDALIBURUA



Eguneratze-data:
2015/02/15

BEHIN-BEHINEKOA

NPBaren ERREFORMA – LEHEN ZUTABEA

ORDAINKETA ZUZENAK

0. DEFINIZIOAK

1. ORDAINKETA ZUZENEN EREDUAREN ALDAKETAREN IKUSPEGI OROKORRA

2. NEKAZARI AKTIBOA

- 2.1. Nekazari aktiboa Zer esan nahi du? Zer eragin dauka?
- 2.2. Zer urte fiskal hartuko da kontuan nekazaritza aktiboa aintzat hartzeko?
- 2.3. Nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan, kontuan hartzen al dira nekazaritzako diru-sarrera gisa bigarren zutabeko laguntzak (ICM, nekazaritza eta ingurumenekoak, inbertsioetarako laguntzak eta abar) eta errenta osagarriak, nekazaritzaren diru-sarrera gisa, adibidez landa-turismoa?
- 2.4. Nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan, kontuan hartzen al dira nekazaritzako ordainketa zuzenetan bigarren zutabeko laguntzak (ICM, nekazaritza eta ingurumenekoak, inbertsioetarako laguntzak eta abar)?
- 2.5. Nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan, zer hartzen da kontuan nekazaritzako diru-sarrera gisa? Landa-turismoa edo ehiza sartzen al dira?
- 2.6. Zein da laguntza zuzenak eskuratzeko gutxieneko muga?

3. NEKAZARITZA

- 3.1. Zer eragin dauka? Nola egiaztatu daiteke?
- 3.2. Nola egiaztatu daiteke labore-lurra edo labore iraunkorrak mantentzeko jarduerarik egiten dela?
- 3.3. Nola egiaztatu daiteke larreak mantentzeko jarduerarik egiten dela?
- 3.4. Zer eskatzen zaio larreak bere abeltzaintza-jardueraren zati gisa deklaratzeko dituen nekazariari?
- 3.5. Noiz esaten da azalera bat abandonatuta dagoela?
- 3.6. Zer egoera joko da arriskukotzat kontrol-ondorioetarako?

4. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN ESLEIPENA

- 4.1. Nori esleitzen zaizkio Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak?
- 4.2. Ezinbesteko zer egoera edo zer aparteko zailtasun izango dira aplikagarriak Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen esleipenean?
- 4.3. Ustiapenaren titulartasunaren zer aldaketari dagokio Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak izatea?
- 4.4. Oinarritzko Ordainketarako zenbat Eskubide esleitzen dira?
- 4.5. Ordainketarako eskubideen balioa eta kopurua jakinarazten denean, nola kalkulatu da Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa?
- 4.6. Eskualdeka aplikatzea
- 4.7. Zer da konbergentzia?
- 4.8. Noiz aplikatzen da ustekabeko onuraren klausula?
- 4.9. Noiz esaten da baldintza artifizialak sortu direla? Zer eragin dauka?

5. OINARRIZKO ORDAINKETAREN ERREGIMENA

- 5.1. Nork jaso dezake oinarritzko ordainketaren erregimenari dagokion ordainketa?
- 5.2. Zer azaleraren gainean aktibatzen daitezke Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak?
- 5.3. Laguntza-eskubideak aktibatzea
- 5.4. Erretiratuak ordainketa zuzenen onuradunak izan al daitezke?

6. KLIMAREN ETA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ONURAGARRIAK DIREN NEKAZARITZA JARDUERETARAKO ORDAINKETA

- 6.1. Nork jaso dezake osagai berdea edo greening-a?
- 6.2. Zenbatekoa da osagai berdeagatik edo greeningagatik ordaintzen dena?
- 6.3. Zer jarduera egin behar da osagai berdea edo greeninga kobratzeko?
- 6.4. Nola betetzen da laboreen dibertsifikazioa?
- 6.5. Nola betetzen da jada existitzen diren larre iraunkorren zaintza?
- 6.6. Nola betetzen da interes ekologikoko azalerak edukitzea?

7. LAGUNTZA ELKARTUAK (Euskadin eragina dutenak)

- 7.1. Zer laboreri eta abeltzaintzako zer sektoreri ematen zaizkio laguntza gehigarriak?
- 7.2. Landare proteinadunei lotutako laguntza
- 7.3. Kalitateko lekaleei lotutako laguntza
- 7.4. Azukre-erremolatxari lotutako laguntza
- 7.5. Fruitu oskoldunei eta algarrobo-lekei lotutako laguntza
- 7.6. Behi ume-hazleak dituzten ustiategiei lotutako laguntza
- 7.7. Gizentzeko behien ustiategiei lotutako laguntza
- 7.8. Gizentzeko behien ustiategiei lotutako laguntza
- 7.9. Ardien ustiategiei lotutako laguntza
- 7.10. Ardien ustiategiei lotutako laguntza
- 7.11. 2014an eskubide bereziak izan eta orain oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke beste hektarearik ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.
- 7.12. 2014an eskubide bereziak izan eta orain oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke beste hektarearik ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.
- 7.13. 2014an eskubide bereziak izan eta orain oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke beste hektarearik ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.

8. ORDAINKETA OSAGARRIA NEKAZARITZAN HASTEN DIREN NEKAZARI GAZTEENTZAT

- 8.1. Nork du nekazaritzan hasten diren gazteentzako ordainketa osagarri hau eskuratzeko eskubidea?
- 8.2. Zenbatekoa da nekazaritzan hasten diren gazteentzako osagarria?

9. NEKAZARI TXIKIEN ERREGIMEN LABURTUA

- 9.1. Nor sartu daiteke Nekazari Txikien Erregimenean?
- 9.2. Zenbatekoa da Nekazari Txikien Erregimenean barruan dagoenari dagokion ordainketa?
- 9.3. Zer betekizun eta zer abantaila dute Nekazaritza Txikien Erregimenean barruan sartutako nekazariak?
- 9.4. Posible al da Nekazaritza Txikien Erregimeneko ordainketa-eskubideak lagatzea edo eskualdatzea?

10. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN LAGAPENAK

- 10.1. Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen eskualdaketak
- 10.2. Zer atxikipen aplikatzen zaie eskubideen eskualdaketei?
- 10.3. Noiz egin daitezke eskubideen lagapenak eta noiz jakinarazten zaizkio Administrazioari?

11. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN ERRESERBA NAZIONALA

- 11.1. Nola osatzen da Erreserba Nazionala?
- 11.2. Nor sartu daiteke Erreserba Nazionalean?
- 11.3. Zer baldintza eskatzen da Erreserba Nazionalean sartzeko?
- 11.4. Nola ezartzen dira Erreserba Nazionaleko ordainketa-eskubideak?
- 11.5. Nola esleitzen dira Erreserba Nazionaleko ordainketa-eskubideak?

11.6. Gaizki esleitutako Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak berreskuratzea

12. BALDINTZAPEKOTASUNA

- 12.1. Nori eragiten dio baldintzapekotasunak?
- 12.2. Zer betebeharrak dute onuradunek baldintzapekotasunari dagokionez?
- 12.3. Zer betebeharrak ezartzen dira larre iraunkorrei dagokienez?
- 12.4. Zer zigor aplikatzen da baldintzapekotasunari lotutakoa ez betetzeagatik?

13. KUDEAKETA ETA KONTROL SISTEMA BATERATUA

- 13.1. Zer aplikazio-eremu dauka kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuak?
- 13.2. Zer da eskaera bakarra eta zer eduki dauka?
- 13.3. Non eta zer epetan aurkezten da eskaera bakarra? Noizegin daiteke eskabideen aldaketa?
- 13.4. Bateragarriak al dira oinarrizko ordainketarako laguntzak beste laguntza batzuekin?
- 13.5. Baldintzapekotasuna derrigorrezkoa al da?
- 13.6. Baldintza artifizialen sorrera
- 13.7. Nola deklaratu dira larreak eskaera bakarrean?
- 13.8. Alegazioak SIGPACaren kontra
- 13.9. Zenbatekoak dira baldintzak, konpromisoak eta lagapenean hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenei dagozkien zigorrak?
- 13.10. Ordainketarako eta aurrerakinarentzako zer epe daude ezarrita?

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA. Produktuen kodeak NPBko greeningari buruzko datu-basean
- II. ERANSKINA. Ezinbesteko arrazoiarengatik edo aparteko zailtasunarengatik egindako alegazioaren jakinarazpena.
- III. ERANSKINA. Lursailen salerosketarako edo alokairurako kontratuari atxikitako kontratu-klausula pribatuaren eredia, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1a) eta 1b) ataletan ezarritakoaren arabera.
- IV. ERANSKINA. Ustiategiaren titulartasuna aldatuz gero aurkeztu beharreko agiriak, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1c) atalean ezarritakoaren arabera.
- V. ERANSKINA. Ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerostearengatik edo alokatzearengatik jarritako alegazioaren jakinarazpena, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 10. artikuluko 1d) atalean ezarritakoaren arabera.
- VI. ERANSKINA. Erreserba Nazionalen sartzeko eskaera egin dutenen egiaztapenak
- VII. ERANSKINA. Oinarrizko ordainketarako eskubideak lagatzeko eredia
- VIII. ERANSKINA. Baldintzapekotasun-arauak (1306/2013 Erregelamenduaren II. ERANSKINA)
- IX. ERANSKINA. Ordainketa zuzenak: Aintzat hartu beharreko zenbatekoak
- X. ERANSKINA. Eskaera bakarrean eman beharreko gutxienezko informazioa
- XI. ERANSKINA. Erabilera arrunteko larre iraunkorren deklarazioa SIGPACaz bestelako erreferentziekin

0. DEFINIZIOAK

1. «Nekazaritza»: nekazaritza-produktuak ekoiztea edo haztea eta abereak haztea, honako hauek barne: uzta, jeztea, abereak haztea, abereak nekazaritza-xedeetarako mantentzea, nekazaritza-azalera bat larrerako edo laborantzarako egoera egokian mantentzea, inolako prestaketarik gabe nekazaritzarako erabili ohi diren metodo eta makinez aparte.
2. "Ziklo laburreko baso-zuhaitzak": 2015. urtetik aurrera ordainketa zuzenak aplikatzeari buruzko Errege Dekretuaren I. Eranskinean zerrendatutako NC 0602 90 41 kodeko zuhaitz-espezieekin landatutako azalerak. Landare zurkara iraunkorrak dira, haien sustrai edo motzondoek lurrian segitzen dute uztaren ondoren, eta kimu berriak emetzen dituzte hurrengo sasoiari, uztaldiaren gehieneko zikloa I. eranskin horretan ezarritakoa izanik.
3. «Alokatzea»: lursailen aprobetxamendua edo oinarrizko ordainketarako eskubideak aldi baterako eskualdatzea.
4. "Agintari eskuduna": Autonomia-erkidegoko eskumeneko organoa, arau honetan zehaztutako eskaera bakarra, laguntza-eskaera eta ordainketa-eskaera bidali behar zaizkiona. Ustiatagia edo ustiatagiaren nekazaritza-azalaren zati handiena hartzen duena izango da, eta nekazaritza-azalerarik ez bada, abere kopuru handiena biltzen duena.
5. "Onuraduna": Laguntzak jasotzen dituen nekazaria
6. "Ibilgua": ur-laster jarraitu edo eten baten ibilgu naturala da ohiko uraldi maximoetan urez estalita geratzen den lursaila. Ohiko uraldi handieneko emaria izango da urteko emari handien batez bestekoa, hamar urtez jarraian erregimen naturalean sortutakoa, urte horiek ur-lasterraren portaera hidraulikoaren adierazgarri badira lehendik dauden informazio hidrologiko, hidrauliko eta kartografikoak eta argazkiak aintzat hartuta, baita erreferentzia historiko guztiak ere.
7. «Lagapena»: lursailak edo oinarrizko ordainketarako eskubideak alokatzea edo saltzea, edo beste edozein modutan behin betiko edo aldi baterako eskualdatzea.
8. "Larreen onargarritasun-koefizientea": Kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuari dagokionez eta ordainketak ukatu edo kentzearen gaineko eta ordainketa zuzenei, landa-garapenerako laguntzari eta baldintzapekotasunari aplikatzekoak diren administrazio-zehapenen gaineko baldintzei dagokionez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 Erregelamendua (EE) osatzen duen 2014ko martxoaren 11ko 640/2014 Erregelamendu Delegetuaren (EE) 10. artikuluan oinarrituta, bere, ezaugarriak direla-eta guztiz eta etengabe ustiatu ezin daitezkeen larre iraunkorrei, hau da, elementu ez-emankorrek (landaririk gabeko eremuak, malda pikoak, barneratu ezinezko landare-masak edo agintari eskudunak erabakitzen dituen gainerako ezaugarriak) biltzen dituzten larre iraunkorrei, koefiziente bat esleituko zaie SIGPAC esparruaren mailako onargarritasun-ehunekoa adierazteko eta esparru horren barruko gehieneko azalera onargarria kalkulatzeko, kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuaren xedeetarako, esparruaren azalera koefiziente horretaz biderkatuko da.
9. "Labore iraunkorrak": Txandakatzen ez diren laboreak, labore iraunkorrez bestelakoak, lursailetan bost urte edo denbora gehiago ematen dutenak eta uzta errepikakorrak sortzen dituztenak, mintegiak eta ziklo laburreko baso-zuhaitzak barne.
10. «Ustiatagia»: Estatuaren barruan nekazari batek erabilitako produkzio-unitate guztiak.
11. "Ezinbesteko kasuak". Errege Dekretu honen xedeetarako, ezinbesteko kasuak honako hauek izango dira: onuradunaren heriotza, onuradunaren iraupen luzeko lanerako ezintasuna, ustiatagiari kalte larriak eragin dizkion hondamendi naturala, ustiatagiko abere-lokalen istripuzko suntsipena, onuradunaren abere guztiei edo zati bati kalteak eragindako epizootia edo labore guztiei edo zati bati kalteak eragindako landare-izurritea, hurrenez hurren.
12. «Hektarea onargarriak»: Oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitu eta justifikatzeko, nekazaritzarako erabiltzen diren ustiatagiko nekazaritza-azalera, txandaketa laburreko baso-landareekin landatutako azalera barne. Ustiatagi bateko nekazaritza-azalera bat nekazaritzakoak ez diren beste jarduera batzuetarako ere erabiltzen bada, bereziki nekazaritzarako erabiltzen dela hartuko da aintzat baldin eta nekazaritzakoak ez diren

jardueren intentsitateak, izaerak, iraupenak edo egutegiak nekazaritza-jarduera nabarmen oztopatzen ez badute.

2008. urtean ordainketa bakarreko eskubideak justifikatzeko erabilitako azalera ere hartuko dira hektarea onargarritzat, baldin eta:

1. Dagoeneko «onargarriak» ez badira, basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Zuzentaraua, habitat naturalen eta flora eta fauna basatien kontserbazioari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentaraua, eta uren politiken eremuan jarduteko Erkidegoaren esparrua ezartzen duen 2000ko urriaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua aplikatzearen ondorioz, edo
 2. Nekazari bakoitzari dagokion konpromisoaren indarraldian basotutako azalera bada, Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsaren landa-garapenerako laguntzari buruzko 1999ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1257/1999 Erregelamenduaren (EE) 31. artikuluari jarraiki, Erregelamendu jakin batzuk aldatzen eta indargabetzen dituen; edo Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez landa-garapenari laguntzeari buruzko 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamenduaren (EE) 43. artikuluari jarraiki; edo Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez landa-garapenari laguntzeari buruzko 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Erregelamenduaren (EE) 22. artikuluari jarraiki, Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamendua indargabetzen duena; edo Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamenduaren (EE) 43. artikuluko 1., 2. eta 3. ataletan ezarritakoa betetzen duen erregimen nazionalari jarraiki.
 3. Nekazari bakoitzari dagokion konpromisoaren indarraldian produktiotik erretiratutako azalera bat bada, 1999ko maiatzaren 17ko 1257/1999 Erregelamenduko (EE) 22.-24. artikuluei jarraiki, edo 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamenduko (EE) 39. artikuluari eta 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Erregelamenduaren (EE) 28 artikuluari jarraiki.
 13. "Belarrak eta bestelako belar-bazkak": Larre naturaletan egon ohi diren edo sega-larre edo -belardietarako hazi-nahasketetan biltzen diren bazkarako belar-landare guztiak, abereen bazkarako erabili edo ez.
 14. "Ez-betetzea": Kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuan kontrolatutako laguntzak emateko baldintzei dagozkien onargarritasun-irizpideei, konpromisoari edo bestelako betebeharrak dagozkien, onargarritasun-irizpide, konpromiso edo bestelako betebeharrak ez betetzea.
 15. "Nekazaritzako diru-sarrerak": 2014ko martxoaren 11ko Batzordearen 639/2014 Erregelamenduaren (EE) 11.1 eta 11.2 artikuluetan zehaztutakoak izango dira. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nekazaritzako diru-sarrerak izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean guztizko diru-sarrera gisa jasota daudenak, hain zuzen ere, estimazio objektibo eta zuzenean, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza- jardueren etekinei buruzko atalean jasota daudenak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpena egin behar ez duten pertsona fisikoen kasuan, azken ekitaldi fiskalean jasotako nekazaritzako diru-sarrera guztiak deklaratu beharko ditu eskatzaileak bere eskaera bakarrean. Agintari eskudunak hori erabakitzen badu, eskatzaileak deklaratu beharko ditu, halaber, aurreko bi ekitaldi fiskaletako nekazaritzako diru-sarrera guztiak. Deklaratutako datuaren fidagarritasuna egiaztatze beharrezko agiri guztiak eskatuko ditu agintari eskudunak.
- Eskatzailea pertsona juridikoa bada:
- i. Sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa bada, errentak eratzikitzeko araubidearen eraginpean dauden erakundeen urteko informazio-deklarazioan jasotako diru-sarrerak erabiliko dira, nekazaritzari eta abeltzaintzari dagozkienak.
 - ii. Sozietateen zerga ordaintzen badu, edo, bere nortasun juridikoa dela medio, aurreko kasuetako batean sartzen ez bada, azken ekitaldi fiskalean jasotako nekazaritzako diru-sarrera guztiak deklaratu beharko ditu eskatzaileak bere


eskaera bakarrean. Agintari eskudunak hori erabakitzen badu, eskatzaileak deklaratu beharko ditu, halaber, aurreko bi ekitaldi fiskaletako nekazaritzako diru-sarrera guztiak. Deklaratutako datuaren fidagarritasuna egiaztatzeko beharrezko agiri guztiak eskatuko ditu agintari eskudunak.

16. "Lurra lantzea": Laborantza-lurra iraultzea tresna mekanikoak erabiliz.
17. "Lurra landu eta iraultzea": Goldea erabiliz, landutako luraren kanpoko geruzari buelta ematea, beheko estratuko lur zati bat goragoko estratu batean jarriz. Iraulketa-lanak lurra iraultzeko goldearekin, golde belarridunarekin, eta hondealanetarako disko-goldearekin egiten dira.
18. "Ertzak": ibilguen ondoko lurrak.
19. "Bigantxa": Zortzi hilabetetik gora izaki, oraindik erditu ez duen behia.
20. "Ordainketa zuzenak": Nekazariari zuzenean ordaindutako laguntzak, 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1307/2013 Erregelamenduaren (EE) I. eranskinean zerrendatutako laguntza-erregimen bati jarraiki, 2015erako eta ondorengo urteetarako; edo 2009ko urtarrilaren 19ko Kontseiluaren 73/2009 Erregelamenduaren (EE) I. Eranskinean zerrendatutako laguntza-erregimen bati jarraiki, nekazaritza-politika bateratuaren esparruan nekazarietzako laguntza zuzeneko erregimenei aplikatzekoak diren xedapen bateratuak ezartzen dituen eta 1290/2005 Erregelamendua (EE), 247/2006 Erregelamendua (EE) eta 1290/2005, 247/2006 eta 378/2007 Erregelamenduak (EE) aldatzen eta 1782/2003 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena, 2014koak edo aurreko urteetakoak direnean.
21. "Nekazaritza-lurzatia": Azaleraren gaineko laguntza-erregimen jakin baterako, nekazaritza-lurzatia lur-azalera jarraitua da, nekazari bakar batek deklaratu, eta eskatzen ari den laguntzarako balioduna den labore talde bakar bat lantzeko erabiltzen dena.
22. "Berezitasun topografikoak edo paisaiaren elementuak": luraren ezaugarri jakin batzuk, hala nola hesiak; zuhaitzak (bakarka, ilaran edo taldeka); mugak; putzu, aintzira, urmael eta aska naturalak; irlak eta landare naturalezko edo harrizko enklabeak; eusteko terrazak; eta, autonomia-erkidegoak hori erabakitzen duenean, harri pilak eta eraikin txikiak, hala nola harri lehorrezko hormatxoak, usategi zaharrak edo flora eta fauna aterpetzeko baliagarri izan daitezkeen arkitektura tradizionalaren bestelako elementuak, abere-aziendarentzat edo fauna basatiarentzat osasun-arriskuren bat ekar dezaketen eraikinak izan ezik.
Zentzu horretan, hesiak dira: zuhaixka-lerro trinko eta uniformeak, eremu eta lurrak hesitzeko, mugatzeko edo estaltzeko erabiltzen direnak; muga: lur-zerrenda egonkorra, nekazaritza lurzatiaren muga egiten duena eta fisikoki bereizten duena; eta eusteko terrazak: harri lehor multzoak, belar-, zuhaixka- edo zuhaitz-landarez hornitutako ezpondak; inguruko zanga eta terrazak sestra-kurben arabera laborantzaren kasuan, eta maldarekiko perpendikularrak diren landare-hesi biziak, isurketak kontrolatuz zorua higaduratik babesten dutenak.
23. "Larre iraunkorrak": Belarrak eta bestelako belar-bazka naturalak (espontaneoak) edo landuak (ereinak) lantzeko erabilitako lursailak, larrediak barne, baldin eta bost urtean edo denbora gehiagoan ustiatzeko labore-txandaketan bildu ez badira; bazkarako baliagarri diren beste zuhaixka- eta zuhaitz-espezie batzuk hartu ditzakete barne, betiere belarrak eta bestelako belar-bazkak nagusi badira. Agintari eskudunak baimena ematen badu, bazkarako baliagarri diren lursailak ere hartu ditzakete aintzat, tokian-tokian finkatutako jardunbideen osagarri direnak; horien arabera, belarrak eta bestelako zuhaitz-bazkak normalean ez dira nagusi izan larreetarako azaleretan.
24. "Zigorra": Laguntzak emateko erregelamenduetan ezarritako baldintza, konpromiso eta betebeharrak ez betetzearen ondorioa, 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 Erregelamenduaren (EE) 63. artikuluan ezarritakoaren arabera.
25. "Malda": luraren batez besteko inklinazioa, SIGPAC esparru batean kalkulatu gorruneen eredu digital batetik abiatuta.


26. "SIGPAC esparrua edo esparrua": lurzati baten barruko azalera jarraituetako bakoitza; erreferentzia alfanumeriko bakarra dauka, baita erabilera bakarra ere, SIGPAC nekazaritza-lurzatiaren informazio geografikorako sistemaren barruan zehaztutakoaren artean.
27. "Lurrak fintzea": ureztatu beharreko lur eta zapaldetako zorua egokitzeko eragiketak, uraren erabilerearen efizientzia hobetzeko eta ureztatze lanak errazteko helburua dutenak; grabitatearen eta azalerearen arabeko ureztatzea edota lursaila urez betetzearen oinarritutako sistema erabiltzen duten laborantza-lurzatiaren egiten dira eragiketa horiek.
28. "Erribera": ibilgu publikoetako albo-zerrendak, beheko uretako mailaren gainetik kokatuak.
29. "Kudeaketa eta kontrol sistema bateratua": Informatika-aplikazio eta kudeaketa-sistemen multzoa, laguntza-eskaerak eta ordainketa-eskaerak barne, agintari eskudunak ordainketa zuzenak eta landa-garapenerako ordainketak kudeatu eta kontrolatzeko erabili behar dituenak, 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 Erregelamenduaren (EE) 67.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
30. "Eskaera bakarra": Urteko laguntza-eskaera, onuradunak egiten duena kudeaketa eta kontrol-sistema bateratuaren eremuan ezarritako ordainketa zuzenen eta landa-garapenerako neurrien esparruan.
31. "Nekazaritza-azalera": Labore-lurretarako, larre iraunkorretarako edo labore iraunkorretarako edozein azalera.
32. "Labore-lurrak": Laboreak ekoizteko lurrak edo lugorri-azalerak, produktioetik kanpo utzitakoak barne, Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsaren landa-garapenerako laguntzari buruzko 1999ko maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1257/1999 Erregelamenduaren 22., 23. eta 24. artikuluei jarraiki, Erregelamendu jakin batzuk aldatzen eta indargabetzen dituenak; Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez landa-garapenerari laguntzeari buruzko 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamenduaren (EE) artikuluari jarraiki, eta 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 Erregelamenduaren (EE) 28. artikuluari jarraiki, berotegietan egon zein babes finko edo mugikorren azpian egon.
33. "Ustiapen-titularra": nekazaritza eratorritako enpresa-arriskua bere gain hartuta ustiatzean nekazaritzan diharduen pertsona fisikoa edo juridikoa. Pertsona fisikoak titulartasun bakarreko zein partekatuko erregimenean egon behar du, dagokion erregistroan inskribatuta, eta pertsona juridikoak, berriz, nekazaritza-jardueratik eratorritako enpresa-arriskua bere gain hartuta, ustiatzean dihardu nekazaritzan, II. tituluko II. kapituluaren zehaztutakoaren arabera.
34. «Salmenta»: lursailaren jabetza edo oinarritako ordainketarako eskubideak behin betiko eskualdatzea; definizioaren barruan ez da hartzen lursailen salmenta baldin eta lursail horiek agintari publikoen esku uzteko edo interes publikorako erabiltzen badira, edota lagapena nekazaritzakoak ez diren xedeetarako egiten bada.
35. "Erabilera": Azalerari dagokionez, azalera hori nola erabiltzen den edo nola erabiliko den, hau da, zer labore, larre edo landare-estaldura mota erabiltzen den, edo, hala badagokio, nekazaritza-azalera nola mantentzen den bazkarako edo laborantzarako egoera egokian egon dadin.

1. ORDAINKETA ZUZENEN EREDUAREN ALDAKETAREN IKUSPEGI OROKORRA

2014. urtera arte, urte hori barne, **ordainketa zuzenen** barruan zeuden, batetik, ordainketa bakarrak, eta, bestetik, sektore jakin espezifiko batzuetarako ordainketa gehigarriak. 2015. urtetik aurrera eredu aldatuko da, eta beheko irudian aldaketa hori laburbildu nahi izan dugu:



Laburbildurik, nekazariak **Oinarrizko Ordainketa** bat jasoko dute, nekazari bakoitzak laguntza-erregimen guztietatik jaso dituen zenbatekoen arabera kalkulatzeko dena. Gainera, baldintzapekotasunaz aparte, **ingurumenarentzat onuragarri diren neurri** batzuk betetzen baditu, laguntza osagarri bat (ordainketa berdea edo greeninga) jasotzeko aukera izango dute. Gainera, **nekazaritzan hasitako gaztea** bada, lehen bost urteetan osagarri gehigarri bat jasoko du. Azkenik, **laguntza gehigarri** batzuk ezarri dira arazoak dauzkaten sektore jakin batzuentzat.



Nekazari aktiboa eta nekazaritza

2015etik aurrera, nekazari aktiboek soilik jaso ahal izango dituzte ordainketa zuzenak, baldin eta nekazaritzan badihardute, gutxieneko neurri batean bada ere, deklaraturako azalera onargarrian. Bestetik, ordainketa zuzenen xedeetarako, bi nekazari mota bereizten dira: nekazari txikiak (ordainketa zuzenetan urtean 1.250 € baino gutxiago jasotzen dutenak) eta gainerako guztiak.

Urtean behin, pertsona fisiko edo juridikoei edota pertsona fisiko edo juridikoen taldeei ordainketa zuzenak emango zaizkie, baldin eta:

- Ordainketa zuzenez bestelako nekazaritzako diru-sarrerak, gutxienez, azken zergaldiko nekazaritzako diru-sareren gutxitzkoaren % 20 badira ("80/20 araua"), 2.2 atalean ezarritakoari utzi gabe; eta
- Eskatzailea dagozkion erregistro ofizialetan inskribatu bada (ustiategien erregistroa, abeltzaintza-ustiategien erregistro orokorra eta abar).

Eskatzaileak larre iraunkorren azalera deklaratzeko baditu, eta azalera horien gainean ordainketarako eskubideen esleipena jaso nahi badu, nekazaritza aktiboa dela aintzat hartzeko ustiategi aktibo baten titular nagusi gisa inskribatuta egon behar du Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean. 2014an edo 2015ean Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean jasotako altak eragiketa espekulatibotzat jo daitezke, eta horregatik alta guztiak aztertuko dira, baldintza artifizialekin ez dela sortu egiaztatzeko.

Baztertutako onuradunen (aireportuak, kirol-klubak eta abar) zerrenda bat ere badago, eta horiek guztiak nekazaritza-jarduera bat garatzen dutela egiaztatu beharko dute ordainketa zuzenak jasotzeko.


Gainera, ordainketa zuzenak jaso ahal izateko, azalerek larre eta laboreetarako egoera egokian egon behar dute, eta eskatzaileak bertan gutxieneko jarduera bat garatzen duela egiaztatu behar du nahitaez. Ustiategiko azalaren gaineko nekazaritza-jarduera egiaztatu

daiteke, batetik, nekazaritza-produktuen produkzioa edo hazkuntza frogatuz, eta, bestetik, nekazaritza-azalera bazka edo laborantzarako egoera egokian mantenduz.

Nabarmentzekoa da, halaber, larre-azalretarako laguntzak jaso ahal izateko, nekazariak espezie bateragarri baten titular nagusi gisa ageri behar duela Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean, eta gutxienez 0,2 AzLU/ha-ko abere-karga deklaratu behar duela.

Larre elkartuko hektarea onargarriko 0,2 AzLU-ko proportzioa lortzen ez bada, edota eskatzailea Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatuta egonik larreen erabilerarekin bateragarria den abeltzaintza-ustiategi baten (behiak, ardiak, ahuntzak, zaldiak *-produkzioa eta ugalketa-* eta txerriak *-«estentsiboa edo mistoa» Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean-*), titularra ez bada ere larre-azalretarako laguntzak jaso behar baditu, nekazaritza-jardueraren betebeharrak betetzeko baldintza artifizialak sortzen ari direla hartuko da aintzat, salbu eta nekazariak frogatzen badu mantentze-lanak egiten dituela proportzio horrez gaineko azalera edo azalera osoan, hurrenez hurren. Abandonatuta dauden azalretarako ez da inoiz ordainketarik emango.

Bestetik, kontrol-xedeetarako arrisku- edo iruzur-egoera hauek zehaztu dira: ustiategitik 50 km baino gehiagora dauden larreak deklaritzen badira, hiru urtean edo gehiagoan landu gabeko lurzatiak deklaritzen badira, edo zuhaitz- eta zuhaixkadun larreak egoera egokian mantendu direla deklaritzen bada, larratzeaz bestelako teknika edo praktikak erabili direnean. Kontu handiz ibiliko gara, halaber, nekazari aktiboaren betebeharrak edo ustiategiko azalretan nekazaritzaren eskakizunak ez betetzeko baldintza artifizialak sortu ditzaketen pertsona fisiko edo juridikoekin. Zehazki, kontrol-xedeetarako, arrisku-egoera batean egongo gara eskatzailearen nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenez aparte, % 20 edo gehiago ez badira aurreko hiru zergaldietako batean. Azken horri dagokionez, eskatzaileari kontrolatzen zaionean, bere eskaeran deklaraturako jardueraren enpresa-arriskua bere gain hartzen duela egiaztatuko da.



Nekazari txikien erregimena

2015ean oinarritzko ordainketarako eskubideak jabetzan edo alokairuan dauzkaten nekazariak, ordainketa zuzenetan guztira 1.250 euro baino gutxiago jaso behar badituzte, nekazari txikienezako erregimenean sartuko dira automatikoki, salbu eta esanbidez erabakitzen badute ez dutela hartan parte hartu nahi, 2015eko urriaren 15a baino lehen jakinarazita. Erregimen horretan parte hartzea bateraezina da beste edozein ordainketa zuzenekin (ezinezkoa da laguntza gehigarriak jasotzea). Nekazari Txikien Erregimenean bildutako nekazariak ez dute greeninga bete behar, eta ez dute baldintzapekotasanaren araberrako kontrolik izango. Hala eta guztiz ere, dagozkien erregistroetan inskribatuta jarraitu behar dute, eta 2015ean aktibatutako eskubideen kopuruari dagokion hektarea onargarrien kopurua mantendu behar dute. Eskubide horiek ezin dira saldu, baina laga egin daitezke herentzia bat tartean dagoenean, jardunari behar baino lehen uzten zaionean, titularrak erretiroa hartu eta lagapen-hartzailea lehen mailako senidea denean, edo lanerako ezintasun iraunkorren kasuetan. Ez dute, halaber, konbergentziarik bete behar.

Eskualdeka aplikatzea

Estatuan 49 eskualde sortu dira, baina esan beharra dago eskualde horiek ez direla administrazio-eskualdeak, eskualde bakoitzaren barruan zenbait bailara hartzen direlako produkzio-orientazioaren arabera sailkatuta, Oinarritzko Ordainketarako Eskubidearen batez besteko zenbatekoa homogeneoa izanik. Produkzio-orientazioak honako hauek dira:

- a) (LLL) Lehorreko Laboretarako Lurrak (goldatzeko moduko lehorreko lurrak barne)
- b) (LUL) Labore Ureztatuertako Lurrak (goldatzeko moduko arto- eta erremolatxa-lursail ureztatuak, eta berotegiko eta baratzeako laboreak barne)
- c) (LI) Labore Iraunkorrak (fruta-arbolak, mahastiak eta olibondoak)
- d) (LARREAK) Larreak (belardi eta larrediak, zuhaitz- eta zuhaixkadun larreak)

Eskualde bakoitzean produkzio-orientazio bakoitzaren batez besteko balioa kalkulatzeko, jatorriaren arabera jasotako zenbatekoak beren produkzio-orientazioan oinarrituta deklaraturako eta sailkatutako azaleraren artean banatzen dira.

Aldez aurretik adierazi dugunez, nekazariak Oinarritzko Ordainketa bat jasoko dute, 2014an nekazari bakoitzak laguntza-erregimen desberdinetatik jasotako zenbatekoen arabera. Bestetik, nekazari bakoitzari Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen kopuru bat esleituko zaio, 2015eko laguntza-eskaeran nekazariak deklaratu dituen zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren arabera, edo 2013an deklaratu zituen zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren arabera, azken hori txikiagoa bada. Esleitu beharreko eskubide mota 2015ean deklaraturako azaleraren araberrakoa da (2015eko eskaera bakarrean deklaraturako lurzati bakoitzari dagokion eskualdea). 2015ean nekazari bakoitzari Oinarritzko Ordainketarako Eskubide bakoitzeko esleitu beharreko balio unitarioa honela kalkulatu da:

- a) Nekazariak eskualde bakar bateko azalera deklaratu badu, dagozkion guztizko hasierako balioa eskualde horretan daukan Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen guztizko kopuruaren artean zatituko da, Erreserba Nazionaletik esleituak alde batera utzita.


- b) Nekazariak deklaraturako azalerak eskualde batean baino gehiagoan badaude, 2014an nekazariak jasotako guztizko ordainketa zati bat esleitu da eskualde bakoitzean. Horretarako, irizpide objektibo eta ez-diskriminatzailetan oinarrituta, 2014an jasotako zenbatekoak produktore bakoitzak eskualde bakoitzean deklaraturako azaleraren artean banatuko dira.

Jarrian, eskualde bakoitzaren oinarritzko ordainketa eskubide bakoitzaren hasierako balio unitarioa kalkulatu da, eskualde horretan esleitutako zenbatekoak eskualde horretan esleitutako oinarritzko ordainketa eskubide kopuruaren artean zatituz, erreserba nazionaletik esleituak alde batera utzita.

2015. urterako eskubideen hasierako balioa kalkulatu ondoren, balio hori zuzenduko da konbergentzia-prozesuaren arabera.

Konbergentzia

Nekazari bakoitzak eskualde bakoitzean duen Oinarritzko Ordainketa Eskubidearen (zenbait bailaratan –Bizkaia, Gipuzkoa edo Lautada– deklaratu duen edo eskualde berean zenbait produkzio-orientazio dauzkalako -lehorrekoak, ureztatuak edo larreak-) balio unitarioa, pixkana-pixkana, 2015etik 2019ra bitarte esleitu zaizkion Eskualdeko Oinarritzko Ordainketa Eskubideen batez besteko baliora hurbilduko da.



Produktzio-orientazioaren arabera, euskal bailarak honako eskualde hauei esleitu daude:

	LLL	LUL	LI	LARREAK
KANTURIARRA	20.1	20.1	2.2	5.3
GORBEIALDEA	8.1	20.1	8.2	5.3
ARABAKO HARANAK	8.1	20.1	8.2	2.3
ARABAKO LAUTADA	8.1	20.1	8.2	2.3
MENDIALDEA	8.1	20.1	8.2	2.3
ARABAKO ERRIOXA	8.1	8.1	1.1	8.3
GIPUZKOA	20.1	20.1	2.2	8.3
BIZKAIA	20.1	20.1	2.2	7.3

Oinarrizko ordainketarako eskubideen banako hasierako balio unitarioa 2019ko azken balio unitarioa igarotzeko prozesua 5 etapa berdinetan egingo da, 2015ean hasita. Konbergentzia honako printzipio hauetan oinarrituko da:

- a) 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 90aren azpiko hasierako balio unitarioa duten oinarrizko ordainketarako eskubideak igo egingo dira 2019ko eskaera-urterako, hasierako balio unitarioaren eta 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 90aren arteko aldearen herenean.
- b) Eskualde-balio unitarioaren ehuneko 90aren azpitik dauden oinarrizko ordainketarako igoerak finantzatzeko, hasierako balio unitarioa 2019ko eskualde-balio unitarioa gainditzen duten oinarrizko ordainketarako eskubideei beharrezko murrizketa aplikatuko zaie hasierako balio unitarioaren eta 2019ko eskualde-balio unitarioaren arteko aldearen gainean, finantziazio hori gauzatzeko.
- c) Nolanahi ere, hasierako balio unitarioa 2019ko eskualde-balio unitarioa baino handiagoa duten oinarrizko ordainketarako eskubideen hasierako balio unitarioaren gehieneko murrizketa ehuneko 30 izango da.
- d) Oinarrizko ordainketarako eskubide baten balio unitarioa ezin izango da 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 60 baino txikiagoa izan, salbu eta horrek dakarren gehieneko murrizketak, ehunekotan, aurreko atalean deskribatutako murrizketaren gehieneko atalase-maila gainditzen badu. Kasu horietan, gutxieneko balio unitarioa atalase-maila hori errespetatzeko beharrezko maila izango da.

Oinarrizko ordainketa eskatzeko baliatutako laguntza-eskubide bakoitza, Estatuan - Kanarietan izan ezik- kokatutako hektarea onargarri batekin justifikatu beharko da. Nolanahi ere, Oinarrizko Ordainketarako Erregimena 48 eskualdez osatuta egongo denez, eskubide bat aktibatu ahal izateko, 2015. urtean eskubide hori esleitu den eskualdean bakarrik aktibatu ahal izango da.

Klimaren eta ingurumenaren edo greeningaren ikuspegitik onuragarriak diren jardueretarako ordainketa

Gainera, Oinarrizko Ordainketarako Eskubidea duten nekazariak ordainketa osagarri bat jaso ahal izango dute, dagokien Oinarrizko Ordainketaren guztizko zenbatekoaren % 54 gutxi gorabehera. Horretarako, bere hektarea onargarri guztietan, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza-jarduerak errespetatu beharko ditu. Oro har, nekazaritza-jarduera horiek honako hauek dira (salbuespen eta betebeharrak osagarriak badaude, ustiategien baldintzen arabera):

- a) Laboreen dibertsifikazioa (ustiategiko labore-lursailaren arabera, gutxieneko labore kopuru bat eskatzen zaio, eta labore bakoitzak gehienez ehuneko jakin bat eduki dezake. 10 ha baino gutxiago deklaratzeko badu, libre dago)
- b) Lehendik dauden larre iraunkorrak mantentzea
- c) Ustiategian ekologiaren ikuspegitik onuragarriak diren azalera edukitzea Ustiategiko labore-lurra 15 ha-tik gorakoa bada, labore-lurraren gutxienez % 5 landu gabe utziko du, edo % 7 nitrogenoa finkatzen duten laboreetarako erabiliko du.

Jarduera baliokideetako bat betetzen duten nekazariak aurrekoa aplikatuko zaie; antzeko jarduerak izango dira, eta klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak izango dira,

aldez aurretik aipatutako hiru jardueretako baten edo batzuen maila berean edo hobean. Jarduera baliokide horiek ez dute finantziazio bikoitza izango.

Produktzio ekologikoan diharduten nekazariak, automatikoki, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren jardueretarako ordainketarako eskubidea izango dute, beren ustiategiaren produktzio ekologikorako darabiltzaten unitateetan.

Labore iraunkorretarako azaleretan ez da greeningaren jarduerarik zertan aplikatuko.

Laguntza gehigarriak.

Bestetik, zailtasunak dauzkaten labore jakin batzuen produktoreei laguntza gehigarri bat emateko aukera izango da, egungo produktzio-mailak mantentzeko. Euskadin ezarritako honako labore hauek jasotzeko laguntza gehigarriak: labore proteinadunak (proteaginosak –*ilarrak, babak, babatxoak, lupinu gozoa*-, lekadunak –*txirta, leroak, algarrobo-lekak, titarroak, almortak, ailhorbea, zalkea, aixkola, lehorreko alpapa, astorkia eta zulla*-, eta olio-landareak –*ekilorea, koltza, soja eta kamelina*-); kalitatezko lekaleak (*Gernikako babarruna, Tolosako babarruna, Arabako babarrun pikarta*), fruitu oskoldunak –*arbondola, hurra eta algarroboa*– eta azukre-erremolatxa.

Bestetik, zailtasunak dauzkaten labore jakin batzuen produktoreei laguntza gehigarri bat emateko aukera izango da, egungo produktzio-mailak mantentzeko. Behi ume-hazleak, gizentzeko behiak, esnetarako behiak, ardiak eta ahuntzak dira laguntza gehigarriak lor ditzaketen sektoreak.

Gainera, 2014an eskubide bereziak eduki dituzten abeltzainei laguntza berezia ematen zaie, baldin eta kanpaina bakoitzaren eskaera bakarrean hektarea onargarriak ez badute; eskubide berezien titularrek ere laguntza hori jasotzeko aukera izango dute, baldin eta 2014an eskubide arrunten titular izanik, kanpaina horretan 0,2 hektarea baino gutxiagoko azalera deklaratu bazuten. Nolanahi ere, hori ez ezik, Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean inskribatutako ustiategiaren titular ere izan beharko dute. Urte bakoitzean abeltzain bakoitzak abere hautagarri batzuegatik jasotzeko ahal izango du ordainketa, eta abere horiek hautagarritasun-baldintza batzuk bete beharko dituzte, deskribatutako abeltzaintza-sektoreei lotutako laguntza bakoitzerako ezarritakoak.

Nekazaritzan hasten diren nekazari gazteentzako ordainketa

Nekazari gazteek, hau da, gehienez 40 urte dauzkatenek, ordainketa osagarri bat jasotzeko aukera izango dute baldin eta nekazaritza-ustiategi batean lehen aldiz ezartzen badira ustiategiaren arduradun gisa edo aurreko bost urteetan ezarri badira, baldin eta ordainketarako eskubidea badute oinarritzko ordainketarako erregimenari jarraiki, eta baldin eta dagozkien ordainketarako eskubideak aktibatu badituzte. Ordainketaren zenbatekoa urtean behin kalkulatzeko ordainketarako eskubideen kopurua kopuru finko batez biderkatuta, azken kopuru hori nekazariak jabetzan edo alokairuan dauzkan eskubideen batez besteko balioaren % 25 izanik. Ezarpenaren urtetik aurrera emango da ordainketa, eta gehienez 90 eskubidetarako

EGUNGO ESKUBIDE ETA KUOTEI DAGOKIENEZ KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Noiz desagertuko dira esne-kuotak?

2015eko martxoaren 31n.

Noiz desagertu dira behi ume-hazlearen eskubideak

2014ko abenduaren 31n. Behi ume-hazlearen egungo eskubideen zati bat Oinarritzko Ordainketari eranstean zaizkio (eta hemendik aurrera azalera justifikatuz kobratuko da), eta beste zati bat laguntza gehigarri gisa kobra daiteke.

Zer gertatzen da egungo ordainketa gehigarriekin (68. artikulua)?

Bestetik, zailtasunak dauzkaten labore jakin batzuen produktoreei laguntza gehigarri bat emateko aukera izango da, egungo produkzio-mailak mantentzeko daitezkeen bultzatzeko.

Zer gertatzen da egungo Ordainketa Bakarrerako eskubideekin?

Desagertzen dira eta Oinarritzko Ordainketarako Eskubide bihurtzen dira ADI! Oinarritzko Ordainketarako eskubideen balioa eta Ordainketa Bakarrerako Eskubideen balioa desberdinak dira. Gainera, kontuan hartzekoa da osagarri berriak daudela: greeninga eta jardueran hasten diren gazteentzako ordainketa.

BEHIN

2. NEKAZARI AKTIBOAK

2.1. Nekazari aktiboa: Zer esan nahi du? Zer eragin dauka?

Nekazari aktiboak izango dira 2015etik aurrera NPbaren lehen zutabeko laguntza zuzenak jasotzeko aukera izango duten bakarrak, eta figura hori sortu da nekazaritza-laguntzak nekazaritzan benetan diharduten nekazarien eskura jartzeko.

Urtean behin, pertsona fisiko edo juridikoei edota pertsona fisiko edo juridikoen taldeei ordainketa zuzenak emango zaizkie, baldin eta:

- c) Ordainketa zuzenez bestelako nekazaritzako diru-sarrerak, gutxienez, azken zergaldiko nekazaritzako diru-sarreraren gutzitzaoren % 20 badira ("80/20 araua"), 2.2 atalean ezarritakoari utzi gabe; eta
- d) Eskatzailea dagozkion erregistro ofizialetan inskribatu bada (ustiategien erregistroa, abeltzaintza-ustiategien erregistro orokorra eta abar).

Nekazari aktiboak izango dira Nekazaritza Politika Bateratuaren zuzeneko laguntzak jaso ahal izango dituzten bakarrak.

Nahitaezkoa da Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean titular nagusi gisa inskribatuta egotea larreen gaineko ordainketarako eskubideak aktibatzeke.

Eskatzaileak larre iraunkorren azalera deklaratzeko baditu, eta azalera horien gainean ordainketarako eskubideen esleipena jaso nahi badu, nekazaritza aktiboa dela aintzat hartzeko ustiategi aktibo baten titular nagusi gisa inskribatuta egon behar du Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean. 2014an edo 2015ean Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean jasotako altak eragiketa espekulatibotzat jo daitezke, eta horregatik alta guztiak aztertuko dira, baldintza artifizialik ez dela sortu egiaztatuzko.

Nekazari aktiboaren betekizunen salbuespenak

Nekazari aktiboak nekazaritzako diru-sarrera batzuk egiaztatu behar ditu ordainketa zuzenez aparte, zehazkiago azken zergaldiko nekazaritzako diru-sarreraren gutzitzaoren gutxienez % 20, baina aurreko urtean 1.250 euroko edo gutxiagoko ordainketa zuzenak jaso dituzten nekazariak ez dute baldintza hori bete behar.

Nekazariak ordainketa zuzenen eskaera aurkezten ez badu aurreko paragrafoan aipatutako urtean, ordainketa zuzenen urteko zenbatekoa kalkulatu zaio eskaera-urtean deklaratuak hektarea hautagarrien kopurua eskaera-urtearen aurreko urterako hektareako ordainketa zuzenen Estatuko batez besteko balioaz biderkatuz.

Nekazari batek, aurreko urtean, laguntza zuzenetan urtean 1.250 euro baino gutxiago jasotzen baditu (zenbateko garbiak, kenkariak eta eskusioak egin ondoren), ez ditu nekazaritzako diru-sarreraren gutxienez % 20ko salmentak justifikatu behar, diru-laguntzak barne. 2014an 1.250 € baino gutxiago jaso badu, 2015. urtean ez du 80/20 araua bete behar.

Kanpo utzitako jarduerak:

Gainera, xede sozial nagusia honako jarduera hauetara begira duten pertsona fisiko edo juridikoei edo pertsona fisiko edo juridikoen taldeei ez zaizkie ordainketa zuzenak emango: aireportuak, trenbide-zerbitzuak, ur-hornidurako instalazioak, higiezin zerbitzuak eta kirol-eta jolas-instalazio iraunkorrak, salbu eta honako zirkunstantzia hauetako bat gertatzen dela frogatzen badute:

- a) Ordainketa zuzenen urteko zenbatekoa, gutxienez, proba hori eskuragarri egon den azken zergaldian nekazaritzakoak ez diren jardueretatik abiatuta lortutako guztizko diru-sarreraren % 5 da. Ordainketa zuzenen urteko zenbatekoa nekazariak azken zergaldian jasotako ordainketa zuzenen guztizko kopurua izango da, eta azken zergaldia diogunean esan nahi dugu zergaldi horretan jaso dugula, azken aldiz, nekazaritzakoak ez diren jardueretatik eratorritako diru-sarrerei buruzko informazio sinesgarria.

Nekazariak ordainketa zuzenen eskaera aurkezten ez badu aurreko paragrafoan aipatutako urtean, ordainketa zuzenen urteko zenbatekoa kalkulatu zaio eskaera-urtean deklaratuak hektarea hautagarrien kopurua eskaera-urtearen aurreko urterako hektareako ordainketa zuzenen Estatuko batez besteko balioaz biderkatuz.

- b) Nekazaritza-jarduera ez da hutsala, ordainketa zuzenez bestelako nekazaritzako diru-sarrerak azken zergaldiko guztizko nekazaritzako diru-sarreraren % 20tik beherakoak direla oinarritzat hartuta (ekitaldi horretan betetzen ez badu, aurreko bi zergaldietako nekazaritzako diru-sarrerak ere hartu ahal izango dira kontuan).
- c) Bere estatutuen barruan, nekazaritza-jarduera da bere xede sozial nagusiaren zati bat

Gainera, aipatutako zirkunstantzietako bat biltzen duten pertsona fisiko eta juridikoen "80/20 araua" bete beharko dute, eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egon.

2.2. Zer zergaldi hartuko da kontuan nekazari aktiboa aintzat hartzeko?

Eskaera-urte bakoitzean azken zergaldia hartuko da aintzat, edo, eskatzailearen nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenak aparte, bere nekazaritzako diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago ez badira azken zergaldian, aurreko bi zergaldietako nekazaritzako diru-sarrerak hartu ahal izango dira aintzat. Behin hori egiaztatu ondoren, eskatzailearen nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenak aparte, % 20 edo gehiago ez badira, nekazari aktiboa dela hartu ahal izango da aintzat, baina kontrol-xedeetarako arrisku-egoeran dagoela ulertuko da, eta kontrolatzen zaionean egiaztatuko da onuradunak eskaeran deklaratuak jardueraren enpresa-arriskua bere gain hartzen duela.

Nekazariak 80/20ko araua justifika dezakete azken hiru urte fiskaletan. Arau hori betetzen ez badu egoera arriskugarritzat joko da kontrol-xedeetarako, eta onuradunak frogatu beharko du eskaeran deklaratuak jardueraren enpresa-arriskua bere gain hartzen duela.

Hau da, 2015ean 2014. urte fiskala hartuko litzateke kontuan, baina eskatzailearen nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenak aparte, bere nekazaritzako diru-sarrera guztien % 20 edo gehiago ez badira, 2013ko edo 2012ko nekazaritzako diru-sarrerak kontuan hartzeko aukera izango da.

Nolanahi ere, nekazaritzan hasitakoak badira, betekizun hori egiaztatu beharko dute gehienez ere bigarren zergaldian, eskaera egiten dutenez geroztik. Betekizun hori ondoren egiaztatzeko aukera izango da, labore jakin batzuk produzitzen hasteko aldiaren eraginez ongi justifikatutako zirkunstantzietan.

Nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak, laguntza ekologikoak eta ICM laguntzak ez dira ordainketa zuzenak izango nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan.

Zergaldia bat dator ekitaldi fiskalarekin edo urte fiskalarekin. Urtean zehar ordaindutako laguntzak hartu behar dira kontuan.

Lehen aldia bada, lehen eskaera-urtetik hirugarrenera egiaztatzeko aukera izango du, azken hori barne.

Nekazaritzako diru-sarrerak 639/2014 Erregelamendu Deletatuan (EE) zehaztutakoak izango dira.

- a. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nekazaritzako diru-sarrerak izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean guztizko diru-sarrera gisa jasota daudenak, hain zuzen ere, estimazio objektibo eta zuzenean, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza- jardueren etekinei buruzko atalean jasota daudenak.

Eskatzailea erakunde integratzaile bateko kide izaki, nekazaritzako diru-sarrerak edo horien zati bat halakotzat kontsignatzen ez badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenaren aldez aurretik aipatutako atalean, eskatzaileak deklaratu beharko du, bere eskaera bakarrean, azken zergaldian jasotako diru-sarrera horien zenbatekoa. Agintari eskudunak hori erabakitzen badu, eskatzaileak deklaratu beharko ditu, halaber, aurreko bi zergaldietako nekazaritzako diru-sarrerak, eta agintari eskudunak eskatuko ditu deklaraturako datuen sinesgarritasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak. Kasu horietan, eskatzaileak, hori ez ezik, dagokion erakunde integratzailearen IFZ ere adierazi beharko du.

Diru-sarreraren deklarazioan bikoiztasunak ezinezkoak izango dira, bai erakunde integratzaileak osatzen dituzten pertsonen aldetik bai erakunde integratzaileen aldetik, azken horiek ere eskatzaileak badira.

Nekazaritza-jarduera integrazio-sistemen esparruan garatzen bada, dagozkion integrazio-kontratuei jarraiki erakunde integratzaileak fakturatutako zenbatekoak integratuaren nekazaritzako diru-sarreratzat joko dira, betiere integratuak bere gain hartzen badu abereak hazteagatiko arriskua.

- b. Eskatzailea pertsona juridikoa edo pertsona fisiko edo juridikoen talde bat bada, azken zergaldian jasotako nekazaritzako diru-sarreraren guztizkoa deklaratu beharko du bere eskaera bakarrean. Agintari eskudunak hori erabakitzen badu, eskatzaileak

deklaratu beharko ditu, halaber, aurreko bi zergaldietako nekazaritzako diru-sarrera guztiak. Deklaratutako datuaren fidagarritasuna egiaztatzeko beharrezko agiri guztiak eskatuko ditu agintari eskudunak. Sozietate zibila edo ondasun-erkidegoa bada, errentak eratzikitzeko araubidearen eraginpean dauden erakundeen urteko informazio-deklarazioan jasotako diru-sarrerak erabiliko dira, nekazaritzari eta abeltzaintzari dagozkienak.

Nolanahi ere, eta xede guztietarako, Nekazaritza Aseguru Konbinatuen Sistemaren bitartez jasotako kalte-ordainak nekazaritzako diru-sarreratzat joko dira.

2.3. Nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan, kontuan hartzen al dira nekazaritzako ordainketa zuzenetan bigarren zutabeko laguntzak (ICM, nekazaritza eta ingurumenekoak, inbertsioetarako laguntzak eta abar)?

Ez. Lehen zutabeko ordainketa zuzenak bakarrik hartzen dira aintzat.

2.4. Nekazari aktiboa aintzat hartzerakoan, zer hartzen da kontuan nekazaritzako diru-sarrera gisa?

Eskatzailea pertsona fisikoa bada, nekazaritzako diru-sarrerak izango dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenean guztizko diru-sarrera gisa jasota daudenak, hain zuzen ere, estimazio objektibo eta zuzenean, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza- jardueren etekinei buruzko atalean jasota daudenak.

Nekazaritzako diru-sarrerak nekazariak nekazaritzatik jasotakoak dira, eta nekazaritzaren barruan hartzen dira nekazaritza-produktuen produkzioa eta hazkuntza, abereen hazkuntza, nekazaritza-azalera bat bazkarako edo laborantzarako egoera egokian mantentzea, edo modu naturalean mantendutako nekazaritza-azalaretan gutxieneko jarduera bat egitea. Nekazaritza-produktuen eraldaketatik eratorritako diru-sarrerak ere hartzen dira aintzat, baldin eta eraldatutako produktu horiek nekazariarenak izaten jarraitzen badute, eta eraldaketa horren ondorioz beste nekazaritza-produktu bat sortzen bada, hala nola ardoa, olio eta abar. Landa-turismoa, ehiza, ibaiko arrantza, aseguruaren kalte-ordainak, nekazaritza- eta ingurumen laguntzak eta ICM laguntzak ere nekazaritzako diru-sarreratzat jotzen dira.

2.5. Zein da laguntza zuzenak eskuratzeko gutxieneko muga?

Nekazariari ez zaie ordainketa zuzenik emango baldin eta, ordainketa horien guztizko zenbatekoa, onargarritasun-irizpideak ez betetzeagatik administrazio-zigorak aplikatu aurretik, honako kopuru hauetatik beherakoak badira:

- a) 100 euro 2015erako.
- a) 200 euro 2016rako.
- c) 300 euro 2017tik aurrera.

1. ADIBIDEA: Aramaioko emakumezko nekazari batek, Arabako Aldundiko Ustiatgien Erregistroan inskribatuta dagoenak, Eskaera Bakarra egin du 2015ean. Haren datu fiskalak egiaztatu ditugu (2015eko aitortpena, 2014. urte fiskalari dagokiona):

- Diharduen enpresaren eskutik jasotako diru-sarrerak: 28.000 € (nekazaritzaz aparteko diru-sarrerak)
- Produktuen salmenta (esnea, txahalak eta abar): 20.000 €
- NPBko laguntzak (ordainketa bakarra eta laguntza gehigarriak): 7.500 €

Nekazaritza aktiboaren irizpideak betetzen ditu?

Irizpide hori egiaztatzeko, erregistro ofizialetan inskribatua egon behar du, eta nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenak alde batera utzita, nekazaritzako diru-sarrera guztien % 20tik gora izan behar dute.

- Guztizko diru-sarrerak: $20.000 + 7.500 = 27.500$ €
- Nekazari aktiboak bete beharreko irizpidea: $20.000 / 27.500 = \% 73$

Hortaz, ordainketa zuzenak jaso litzake.

2. ADIBIDEA: Enkarterrietako nekazari batek, Bizkaiko Aldundiko Ustiatgien Erregistroan inskribatuta dagoenak, Eskaera Bakarra egin du 2015ean. Haren datu fiskalak egiaztatu ditugu (2015eko aitortpena, 2014. urte fiskalari dagokiona):

- Produktuen salmenta (txahalak, letxugak eta abar): 2.000 €
- NPBko laguntzak (ordainketa bakarra eta laguntza gehigarriak): 11.500 €

Nekazaritza aktiboaren irizpideak betetzen ditu?

Irizpide hori egiaztatzeko, erregistro ofizialetan inskribatua egon behar du, eta nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenak alde batera utzita, nekazaritzako diru-sarrera guztien % 20tik gora izan behar dute.

- Guztizko diru-sarrerak: $11.500 + 2.000 = 13.500$ €
- Nekazari aktiboak bete beharreko irizpidea: $2.000 / 13.500 = \% 15$

Hortaz, hasiera batean ezin izango du ordainketa zuzenik jaso, baina aurreko bi urteetako aitortpen fiskalak aurkez ditzake (2013 edo 2012). 2013an edo 2012an 80/20 araua betetzen badu, 2015ean ordainketa zuzenak jasoko ditu.

EGOERAK

- 1. Nekazari batek 2015ean Eskaera Bakarra egin du, eta urte horretan 2014ko aitortpen fiskala egin du, baina ez du 80/20 araua betetzen (salmentengatiko diru-sarrerak nekazaritzako diru-sarrera guztien % 20 baino txikiagoak dira). Gauzak horrela, 2015ean ezin izango al du ordainketa zuzenik jaso?**

Kasu horretan 2013ko eta 2012ko aitortpen fiskalak aurkezteko aukera izango luke. 2013an edo 2012an 80/20 araua betez gero, 2015ean ordainketak jasotzeko aukera izango luke.

- 2. Nekazari bat 2015ean lehen aldiz hasi da nekazaritzan lanean, eta horrenbestez 2014an ez du nekazaritzako diru-sarrerarik eduki. Gainera, nekazari horrek, 2015eko Eskaera Bakarreko aldia amaitu baino lehen, nekazari aktibo baten eskubideak erosi ditu. 2015ean oinarritzko ordainketarako eskubideak esleituko zaizkio eta ordainketa zuzenak jasotzeko aukera izango du 2014an nekazaritzako diru-sarrerarik ez badu?**

Bai. Nekazaritzan hasiberria bada, 80/20 betekizuna beranduenez bigarren aldian egiaztatu beharko du, eskaera egiten duenez geroztik. Hau da, beranduenez, 2017an, Eskaera Bakarra egiten duenean, egiaztatu beharko du betekizun hori (2016ko aitortpen fiskalaren oinarriaren gainean).

3. NEKAZARITZA

3.1. Zer eragin dauka? Nola egiaztatu daiteke?

Laguntza zuzenak jaso ahal izateko, azalerek bazkarako edo laborantzarako egoera egokian egon behar dute, eta eskatzaileak bertan gutxieneko jarduera bat garatzen duela egiaztatu behar du nahitaez.

Ustiatetik azalaren gaineko nekazaritza-jarduera egiaztatu daiteke nekazaritza-produktuak produzituz eta haziz eta abereak haziz, uzta, jeztea eta abere-hazkuntza barne, nekazaritza-azalerek bazkarako edo laborantzarako egoera egokian mantenduz, inolako prestaketarik gabe nekazaritzarako erabili ohi diren metodo eta makinez aparte.

Nekazariak gutxieneko jarduera bat egin beharko dute ustiatetik azalaren gainean

Laguntza eskatzeko unean nekazariak lurzati edo esparru bakoitzerako laborantza edo aprobetxamendua deklaratu beharko du, edo, hala badagokio, lurzati horretan mantentze-lanak egiten ari dela ziurtatuko du. Larrerik bada, mantentze-lanak nola gauzatuko dituen adierazi beharko du: abereak larreratuz edo beste teknika batzuk erabiliz.

3.2. Nola egiaztatu daiteke labore-lurrak edo labore iraunkorrak mantentzeko jarduerarik egiten dela?

Labore-lurretan edo labore iraunkorretan honako jarduera hauek egin daitezke, besteak beste:

- Lur-lantzea (lehen iraulaldia egitea, zorupea iraultzea, areatzea, mokorrak jotzea, ildaskatzea, ondoztatzea eta abar)
- Belar txarrak kentzea, bai belar-laboreen gainean, sastrakak kentzeko, bai zuhaitz laboreetan, zuhaitz-oinetako ertzak gaituz.
- Labore zurkaretan: zuloak egitea ondoren landatzeko, landatzea, eraketako inausketa, mantentzeko inausketa, birsortzeko inausketa, bilketa eta abar.

Nekazariak mantentze-lanak egiteko izandako gastuen eta egindako ordaintzen egiaztagiriri guztiak gorde beharko ditu.

3.3. Nola egiaztatu daiteke larreak mantentzeko jarduerarik egiten dela?

Zuhaitz- eta zuhaixkadun larreen gainean honako jarduera hauek onartzen dira:

- Behi, ardi, ahuntz, zaldi eta txerrien urteko larratzea deklaraturako azalaretan, produkzio-sistemaren arabera Abeltzaintza Ustiatetik Erregistro Orokorrean estentsibo edo misto gisa sailkatutako ustiatetik.
- Belar-sastrakak garbitzeko lanak larrea baldintza

**GARRANTZITSUA:
Larratzea beste ustiatetik bateko azalaren eskutik egin daiteke.**

egokitan mantentzeko, honda ez dadin eta sastrakak inbadi ez dezan lortzeko.

Larreetan, goldatzeko moduko lurretan (belarrak eta bestelako bazka lehortuak sortzeko lurak) eta larredietan honako lan hauek onartzen dira:

- a) Behi, ardi, ahuntz, zaldi eta txerrien urteko larratzea deklaraturako azaleretan
- b) Aziendarentzako bazka sortzeko lurzatietako belarra moztea.

Eskaera Bakarrean, laboreak eta aprobetxamenduak deklaratu dituzten nekazariak, baita egindako mantentze-jarduerak ere

Ingurumen-arrazoak direla medio ongi justifikaturako kasuetan, autonomia-erkidetako erabaki ahal izango dute mantentze-jarduerak bi urtean behin egitea.

Eskatzaileak esanbidez eta egiazkotasunez deklaratu du bere eskaeran labore eta aprobetxamenduak eta deklaraturako mantentze-jarduerak bere nekazaritza-jardueraren benetako isla direla. Administrazio-kontrol batean edo lekuan bertan egiaztatzen bada laboreak, aprobetxamenduak edo mantentze-jarduerak gauzatu gabe daudela eta deklaraturakoa gezurra, okerra edo zaborra dela, eta gainera, horrek betekizunak betetzea baldintzatu duela azalaren gaineko nekazaritza-jarduerari dagokionez, agintari eskudunak ebatzi ahal izango du baldintza artifizialak sortu direla laguntzen onura lortzeko, eta 13.9 atalean ezarritako zigor-erregimena aplikatu du.

3.4. Zer eskatzen zaio larreak bere abeltzaintza-jardueraren zati gisa deklaratu dituen nekazariari?

Nekazari horrek abeltzaintza-ustategi baten edo batzuen titular nagusia bada, Abeltzaintza Ustategien Erregistro Orokorrean dagozkien kodea edo kodeak deklaratu beharko ditu, eta larreen erabilerekin zerikusia duten abere espezieak haziko ditu bertan, hala nola behiak, ardiak, ahuntzak, zaldiak —produktzioa eta ugalketa— eta txerriak —estentsioa edo mistoa—.

Abeltzaina titular nagusi gisa ageriko da Abeltzaintza Ustategien Erregistro Orokorrean, eta gutxienez hektareako 0,2 AzLU-ko abere-karga deklaratu du, edo justifikatu/egiaztatuko du mantentze-lanak egiten dituela proportzio hori gainditzen duen azalera. Hala ez bada, baldintza artifizialak sortzen ari direla hartzen da aintzat.

Gainera, abeltzaintza-ustategien dimentsioak bat etorri beharko du deklaraturako larreen azalarekin. Eta bat etorriko da baldin eta, gutxienez, 0,2 AzLU badu larre elkartuko hektarea onargarri bakoitzeko. Kalkulu hori egingo da ustategiko abereen batezbestekoa kontuan hartuta.

Xede horretarako, ustategi bateko AzLUen guztizkoa kalkulatzeko, espezie bakoitzaren AzLUak batuko dira, honako bihurtze-etaula honen arabera:

2 urtetik gorako zezenak, behiak eta behi-espezieko bestelako abereak, eta 6 hilabetetik gorako zaldiak	1,0 AzLU
Behi espezieko abereak, sei hilabete eta 2 urte bitartekoak	0,6 AzLU
Behi espezieko abereak, sei hilabetetik beherakoak	0,4 AzLU

Ardiak eta ahuntzak	0,15 AzLU
Umetarako txerrama > 50 kg.	0,5 AzLU
Bestelako txerriak	0,3 AzLU

Larre elkartuko hektarea onargarriko 0,2 AzLU-ko proportzioa lortzen ez bada, edota eskatzailea Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean inskribatuta egonik larreen erabilerarekin bateragarria den abeltzaintza-ustiategi baten (behiak, ardiak, ahuntzak, zaldiak *-produkzioa eta ugalketa-* eta txerriak *-«estentsiboa edo mistoa» Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean-*), titularrak ez bada ere larre-azaleretarako laguntzak jaso behar baditu, nekazaritza-jardueraren betebeharrak betetzeko baldintza artifizialak sortzen ari direla hartuko da aintzat, salbu eta nekazariak frogatzen badu mantentze-lanak egiten dituela proportzio horrez gaineko azaleran edo azalera osoan, hurrenez hurren.

Abandonatuta dauden azaleretarako ez da inoiz ordainketarik emango.

3.5. Noiz esaten da azalera bat abandonatuta dagoela ?

Azalera bat abandonatuta dagoenean ez da ordainketarik emango. Honako kasu hauetan esaten da abandonatuta dagoela:

a) Abandonu-irizpide orokorrak goldatzeko moduko lurretan:

Goldatzeko moduko lursail bat abandonatuta dagoela hartuko da aintzat azaleraren zati handi batean urte anitzeko zuhaixka-landareak daudenean, eta azalera nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza egokitan uzteko (abandonatutako laboreen itzulgarritasuna) aparteko lanak egin behar direnean, makina astunak erabiliz, belar-sastrakak garbituz eta abar.

Urte anitzeko landareak ugariak izango dira (ez bakanak edo urriak), ondo hazita egongo dira, lurra lantzeko teknikak (tratamenduak, goldaketa eta abar) erabili ote diren nekez igartzeko moduan, eta uzta ere bildu gabe egongo da.

Lugorriak: Azalera bat lugorri abandonatua dela hartuko da aintzat, azaleraren zati handi batean urte anitzeko zuhaixka-landareak daudenean eta egindako lanen arrastorik ez dagoenean. Uztondoko eta/edo landaredi espontaneoko estaldura baimenduko da, baldin eta belarkara baldin bada. Zuhaixka motako estaldurarik ez da baimenduko, hala nola estrepa, isatsa edo heriotzorria.

b) Abandonu-irizpide orokorrak labore iraunkorretan:

Labore iraunkor bat abandonatutzat joko da zuhaitz edo zeparen egoera begetatiboaren arabera lehortua dagoela ikusten dugunean eta/edo zuhaitza edo zepetan laborantza-jarduerarik (inausketa, tratamenduak, bildu gabeko fruituak eta abar) aplikatu ote den garbi ikusten ez dugunean, adar zupatzaile lignifikatuak, hildako adarrak, mahasti makatzak ageri daitezkeelarik eta abar.

Baita ere zuhaitzean edo zepan abandonu-aztarnak atzematen direnean eta azaleraren zati handi batean urte anitzeko zuhaixka-landareak daudenean (ugariak, ez bakanak edo urriak) landare horiek ondo hazita daudenean, lurra landu ote den (goldatu eta abar) garbi ikusten ez dugunean, eta aparteko lanak egin behar direnean, hala nola makina astunak erabiltzea, belar-sastrakak garbitzea eta abar,

azalera berriz ere baldintza egokitan jartzeko nekazaritzaren eta ingurumenaren ikuspegitik (abandonatutako laboreen itzulgarritasuna).

c) Abandonu-irizpide orokorrak larreetan:

Larre bat abandonatutzat joko da baldin eta bertako landarearen dentsitatea dela-eta, abereak bertan sartzea eta bertatik ibiltzea ezinezkoa bada ohiz kanpoko lanak egin gabe, eta mantentze-lanik egiten dela justifikatzen eta egiaztatzen ez bada.

EGOERAK

Larre-azaleraren gainean abere-jarduera bete dadin, ustiategiek hektareako 0,2 AzLu eduki behar dute gutxienez. Proporzio horretara iristen ez bada, larreen soberako azalera justifika daiteke mantentze-lan jakin batzuk egiten direla frogatuz. Larratzea da mantentze-lan horietako bat. Nahitaezkoa da eskatzailearen ustiategiko azienta larratzea, edo hirugarren baten azientarekin ere justifikatzeko aukera badago?

Ustiategiko azientarekin zein hirugarren baten azientarekin justifikatu daiteke.

Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatutako azienta eta larreak dauzkan ustiategi batek larre-azalera bat deklaratu du. Alabaina, hektareako 2 AzLu-ra ez da iristen. Oinarrizko Ordainketarako Eskubiderik esleitu ote dakiokete larre-azalera osoari?

Hasiera batean, ustiategi horri eskubideak esleituko litzaizkioke nekazari aktiboa izateko baldintza betetzeagatik deklaraturako larre-azalera osoaren gainean.

3.6. Zer egoera joko da arriskukotzat kontrol-ondorioetarako?

1. Eskatzailearen titulartasunpeko ustiategitik edo ustiategietatik 50 km-ra edo gehiagora (orientagarria) dauden larreak deklaratzeko.
2. Hiru urtean edo gehiagoan lurzatiak lugorri utziak direla edo landu gabe daudela deklaratzeko.
3. Zuhaitz- eta zuhaixkadun larretako lurzatiak egoera egokian mantentzen direla deklaratzeko, larratzeaz bestelako teknika edo praktikak erabiltzen direla frogatuta.
4. Kontu handiz ibiliko gara, halaber, nekazari aktiboaren betebeharrak edo ustiategiko azalaretan nekazaritzaren eskakizunak ez betetzeko baldintza artifizialak sortu ditzaketen pertsona fisiko edo juridikoekin. Zehazki, kontrol-xedeetarako, arrisku-egoera batean egongo gara eskatzailearen nekazaritzako diru-sarrerak, ordainketa zuzenez aparte, % 20 edo gehiago ez badira aurreko hiru zergaldietako batean. Azken horri dagokionez, eskatzaileari kontrolatzen zaionean, bere eskaeran deklaraturako jardueraren enpresa-arriskua bere gain hartzen duela egiaztatuko da.

4. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN ESLEIPENA

4.1. Nori esleitzen zaizkio Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak?

**SARTZEKO
GILTZA**

2015ean, ordainketa zuzenak jasotzeko eskubidea duten nekazari aktiboek emango zaizkie Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak, baldin eta:

- Oinarrizko ordainketarako erregimena betez, ordainketarako eskubideen esleipena eskatzen badute 2015eko eskaerak aurkezteko azken eguna baino lehen, ezinbesteko edo aparteko zirkunstantzietan izan ezik, eta
 - 2013an ordainketa zuzenak jasotzeko aukera izan badute murrizketa edo esklusioak aplikatu aurretik, edo
- c) Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak jasotzeko eskubidea badute alegazio bati erantzunez ebazpen positiboa jaso dutelako ezinbesteko arrazoi batengatik edo aparteko zailtasunengatik, edo ustiategiaren titulartasun-aldaketekin zerikusia duten komunikazioen ondorioz.

0,2 hektarea onargarri baino gutxiago dauzkaten ustiategiei ez zaizkie Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak esleitzen.

2015eko nekazari aktiboek Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak izango dituzte, baldin eta ordainketarako eskubideak lortzen badituzte honako hauen bitartez:

- Eskubideen hasierako esleipena, edo**
- Beste nekazari batzuen eskubideak eskualdatzea, edo**
- Erreserba Nazionala**

Gainera, ezinbesteko arrazoi edo aparteko zirkunstantziengatik jaso ditzakete oinarrizko ordainketarako eskubideak, baita titulartasun-aldaketengatik ere.

Gainera, Oinarrizko Ordainketarako Eskubide eta lurren salerosketa edo alokairu guztiek, baita errentatzaileari eskubideak saldaz edo emanez amaitzen diren lur-alokairu guztiek ere (14/02/17tik 14/05/15era bitarte jakinarazten direnak), ordainketa bakarreko eskubideekin eta hektareekin batera, aurreko b) puntuan jasotako betekizuna betetzen dela ematen dute aditzera, ofizioz.

Aurreko paragrafoan jasotakoa beteko da, halaber, lur elkarturik gabeko Ordainketa Bakarreko eskubideak lagatzen badira abeltzaintza-ustiategi baten behin betiko eskualdatze oso baterako, betiere hektarea elkartuak lagapenean bildu ez badira lagatzailearenak ez direlako.

Halaber, 2014ko Ordainketa Bakarreko Eskubideen lagapenak ofizioz asimilatuko dira baldin eta 2013an, eskubideen lagatzailearen abeltzaintza-ustiategiak, 2014an amaitu beharreko herri-larreen emakida bat bazuen. Lagapen-hartzaileak, berriz, herri-larreen beste emakida bat eduki behar zuen 2014an abeltzaintza-ustiapenerako, gutxienez, lagatzailearen herri-lurrak kudeatzen dituen erakundearen eskutik jada jasotzen ez dituen

Nahitaezkoa da Oinarrizko Ordainketarako Erregimenean onartua izateko eskatzea Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen esleipena jaso ahal izateko. 2015eko eskaera bakarraren bidez egingo da onartua izateko eskaera

hektareen kopuru berberarekin. Kasu horretan, ordainketa bakarreko eskubideak lurrekin lagatzeko ekimen batekin asimilatuko da lagapena.

Gainera, ustiategi baten titulartasun-aldaketek ere, 2014ko kanpainan ordainketa bakarreko eskubideen lagapen gisa izapidetu direnek hainbat arrazoi direla medio (herentziak; erretiroak, baldin eta ustiategiaren lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea bada; nekazaritza-jarduera aldeztetik uzteko onartutako programak; 2013ko kanpainako eskubide eta lurren alokairua; lanerako ezintasun iraunkorra; bat-egiteak, bereizteak; eta ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzeak ofizioz adierazten dute, Ordainketa Bakarreko Eskubideekin batera, aurreko b) puntuan adierazitako betekizuna betetzen dela.

OINARRIZKO ORDAINKETA JASO AHAL IZATEKO AINTZAT HARTZEN DIREN EGOERAK

Oinarrizko Ordainketaren erregimenean sartu ahal izateko honako egoera hauek hartzen dira aintzat:

- 2013ko kanpaina: 2013ko kanpainako Ordainketa Bakarreko eskubideen esleipenaren titularra izatea.
- 2014ko kanpaina: onuradun batek giltza eskuratzeko aukera izango du baldin eta, 2014ko kanpainan, Ordainketa Bakarreko eskubideak jasotzen baditu honako arrazoi hauengatik:
 - 2013ko kanpainan errentan egonik, kanpaina hori amaitzean automatikoki amaitzen ziren Ordainketa Bakarreko eskubideen jabe izatea.
 - 2013ko kanpainan errentan egonik, kanpaina hori amaitzean automatikoki amaitzen ziren Ordainketa Bakarreko eskubideen jabe izatea.
 - 2014ko kanpainan Ordainketa Bakarreko eskubideen hartzaile izatea, eskubide eta lurren behin betiko edozein lagapenen bitartez (V3, V5, V6, V7, AR, HE, CD, FU, ES, HA, CC).

Fitxategian bildutako onuradunak esleituko zaizkio 2013ko kanpainako eskubideen onuradun titularren eskaera bakarreko autonomia-erkidegoari, lurrekiko lagapenaren eskakera aurkezteko edo 2014ko kanpainan alokairua amaitzeko autonomia-erkidegoari, edo bi autonomia-erkidegoei, baldin eta onuradunak dagozkion baldintzak betetzen baditu.

BEI

Código	Descripción
V1	Compraventa sin tierras (explotaciones ganaderas)
V2	Compraventa sin tierras a un agricultor profesional de la agricultura o agricultor con explotación prioritaria (explotaciones ganaderas)
V3	Compraventa con tierra, compra parcial explotación
V5	Compraventa por devolución arrendamiento
V6	Compraventa con tierra, compra total explotación
V7	Compraventa con tierras a un agricultor que inicia su actividad agraria
V8	Compraventa sin tierras a un agricultor que inicia su actividad agraria (explotaciones ganaderas)
AR	Arrendamiento con tierras
HE	Herencias
CD	Cambio de personalidad jurídica
FU	Fusiones o Agrupaciones en personas jurídicas o entes sin personalidad jurídica
ES	Escisiones de personas jurídicas o de agrupaciones de personas físicas
AA	Finalización anticipada de arrendamiento con tierras
HA	Jubilaciones de la actividad agraria y programas aprobados de cese anticipado o incapacidad laboral permanente
AF	Finalización automática de arrendamiento
CC	Cambio de CIF

EGOERAK

- 2013an emakumezko abeltzain batek behi ume-hazleen laguntza espezifikoa jaso du (68. artikulua), eta ordainketa bakarreko eskubiderik ez zuen. 2015ean oinarrizko ordainketaren hasierako esleipenerako eskubidea dauka?**

Bai, baldin eta 4.1 puntuko gainerako irizpideak betetzen baditu. Laguntza hori beste ordainketa zuzen bat da.

- Nekazari batek behi- ume-hazleen eskubideak dauzka, eta 2014an aldi baterako laga ditu. 2015ean, zertarako erabiliko dira eskubide horiei dagozkien zenbatekoak? Erabilera hori aldatzeko aukerarik ba al da, alderdien arteko kontratuen bitartez?**

Lehenik eta behin kontuan hartzekoa da behi ume-hazleen prima eta behi ume-hazleen prima osagarria jasotzeko eskubideak 2014ko abenduaren 31n iraungi direla, ordainketa bakarreko eskubideekin batera. Behi ume-hazleen prima eta behi ume-hazleen prima osagarria jasotzeko eskubideei dagokienez, produktore bakoitzak 2014an aktibatzen dituen zenbatekoen % 51,32 (zenbateko hori ordaintzen den autonomia-erkidegoetan) 2015ean erabiliko da oinarrizko ordainketarako erregimenari dagozkien zenbatekoak kalkulatzeko. 2014an behi-eskubideak zeuzkan nekazariari esleituko zaizkio zenbatekoak, eta eskubide horien araberako kopuruak jasoko ditu.

Galderaren kasuan, eta hedaduraz, behi ume-hazleen eskubideen aldi baterako lagapen orotan, betiere 2014an eskubide horien eskuragarritasuna lagapen-hartzailearen eskutan uzten badu, lagapen-hartzaile horrek laguntzak jasotzen baditu, onuraduna izango da 2015ean Oinarrizko Ordainketarako Erregimeneko zenbatekoak kalkulatzeko.

- Azalera deklaratzan duten zaldi-ustategien kasuan (arrazak —pottokak, adibidez— kontserbatzeagatik laguntzak jasotzen dituzte). Oinarrizko Ordainketarako Erregimenean sartzeko eta Oinarrizko Ordainketarako Eskubidea esleitzeko aukera izan dezake deklaraturako azalera onargarriengatik?**

Ez. Eta erantzun honek balio du laquntzarik jas otzen ez zuten sektore quzientzat.

- 4.2. Ezinbesteko zer arrazoi edo aparteko zer zailtasun izango dira aplikagarriak Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen esleipenean?**

- a) Onuradunaren heriotza edo desagertzea.
- b) Onuradunaren lanerako ezintasuna, iraupen luzekoa.
- c) Hondamendi natural larria edo aurkako fenomeno klimatologikoa, hondamendi naturalaren baliokidea, ustiategiko nekazaritza-lurrei kalte larriak eragin dizkiena. Eskumeneko Administrazioak hondamen-eremu izendatu behar du aldez aurretik.
- d) Ustiategiko abere-lokalak istripuz suntsitzea.
- e) Epizootia, agintari eskudunak egiaztatua, onuradunaren ustiategiko azienda osoarentzat edo zati batentzat kaltegarri gertatu dena.
- f) Mikroorganismo patogenikoek edo ingurumen-faktoreek eragindako landare-izurritea edo landare-gaixotasuna, eskumeneko agintariak egiaztatua, eta onuradunaren ustiategiko labore guztientzat edo zati batentzat kaltegarri gertatu dena.
- g) Oskoldun fruituen sektorean jarduera espezifikoak sustatzeko programa nazionalaren diseinuarekin zerikusia duten aparteko zirkunstantziak.
- h) Ustiategi osoa edo haren zati garrantzitsu bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori aurreikusita ez bazegoen eskaera aurkeztu zen egunean.
- i) Arazoak 2013ko kanpainaren laguntza-eskaera izapidetzean, nekazariaren ardura ez direnak eta eskaera hori ez aurkeztea ekarri dutenak. Erakunde laguntzaileei esleitzeko moduko arazoak izango lirateke.

Eskubideen balio unitarioa kalkulatzeko, 2014ko ordainketen zenbatekoa zehaztearren, ezinbesteko arrazoiengatik edo aparteko zailtasunengatik alegazioak izango dira, eskatzaileak zenbatekoa ez jasotzea edo behar dena baino gutxiago jasotzea, 2014an Oinarrizko Ordainketari erantsitako ordainketa zuzen batetik edo batzuetatik (ordainketa bakarra, behi ume-hazleentzako prima, tabakoaren kalitatea sustatzea eta abar). Kasu horietan, hasierako balioa kalkulatu da ezinbesteko arazoiek eraginpean hartu ez duten lehen urtean jasotako zenbatekoen arabera, betiere 2014. urteari dagozkion ordainketa zuzenak eraginpean hartutako urteen aurreko urteari dagozkion zenbatekoen % 85 baino gutxiago badira.

Alegazio horiek jakinaraziko dira NPBko Oinarrizko Ordainketarako Erregimeneko Eskubideak esleitzeari buruzko Errege Dekretua indarrean hasten denez geroztik 2015eko maiatzaren 15era bitarte, eta gutxienez II. eranskinean adierazitako informazioa jasoko du (Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan daude interesdunen eskura).

4.3. Ustiapenaren titulartasunaren zer aldaketari dagokie Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak jasotzea?

- a) Ustiategi osoen edo ustiategi zatien salerosketak, lurak barne, 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte gauzatutakoak, eta kontratuan klausula berezi bat sinatuta daukatenak; horren arabera, ustiategiarekin edo zatiarekin batera, esleitu beharreko ordainketa-eskubideak lagatzen dira. Lagatzaileak eta errentariak nekazari aktibo izan behar dute. (III. Eranskinean komunikazio-eredu bat jaso da horrelako salerosketei dagokienez).
- b) 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarteko lurrekiko alokairuen amaierak, baldin eta errentariak, lurak itzultzeaz gain, eta dagokion kontratu-

klausula sinatu ondoren, errentatzaileari itzultzen ari zaion azalera esleitu beharreko Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balioa eskualdatzen badu. Lagatzaileak eta errentariak nekazari aktibo izan behar dute. Errentariak egiten du esleipen-eskaera, baina Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak errentatzaileari esleitu zaizkio, eta hark errentariari lagako dizkio automatikoki alokairu-erregimenean (III. Eranskinean komunikazio-eredu bat jaso da horrelako alokairuei lotuta)

- c) Ustiategiaren edo ustiategi zatien alokairuak, lurak barne, 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte gauzatu direnak, sinatutako kontratu-klausula aplikatuz. Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak errentatzaileari esleitu zaizkio, eta hark errentariari lagako dizkio automatikoki alokairu-erregimenean; errentaria ordainketaren onuradun izango da alokairuak dirauen kanpainetan. Lagatzaileak eta errentariak nekazari aktibo izan behar dute. (III. Eranskinean komunikazio-eredu bat jaso da horrelako salerosketei dagokienez).
- d) Ustiategiaren titulartasun-aldaketak 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte gertatutako honako arrazoiengatik: herentziak; erretiroak, ustiategiaren lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea bada; nekazaritza-jarduera aldeztu aurretik uzteko onartutako programak; bat-egiteak; bereizketak; eta ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzea. Lagatzaileak eta errentariak nekazari aktibo izan behar dute, herentzietan izan ezik. Gainera, herentzien kasuan, jaraunslea nekazari aktiboa ez bada, ustiategia nekazari aktibo baten esku uzteko aukera izango du, eta azken horri esleitu zaizkio Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak. (III. Eranskinean komunikazio-eredu bat jaso da horrelako salerosketei dagokienez).
- e) Ustiategiaren edo ustiategi zatien salerosketa edo alokairuak, lurak barne, 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte gauzatutakoak dagokion kontratu-klausula sinatu ondoren, baldin eta lagatzaileak 2013an ordainketa zuzenak jasotzeko eskubidea bazuen, edozein murrizketa edo eskusio ezari aurretik, baina 2013an eta 2014an ez bazitzaion ordainketa bakarrek eskubiderik esleitu (egoera horretan, lagatzaileak ordainketa gehigarriak baino ez zituen jaso), eta lagapen-hartzaileak 2014ko Eskaera Bakarrean salerosketaren xede den ustiategia deklaratu bazuen, eta kanpaina horretan laguntza zuzenak jaso bazituen, ordainketa bakarrez aparte, deklarazio horretan oinarrituta, laguntza-zenbateko hori horrelako lagapenetan eskualdatutako balioa izanik. (III. Eranskinean komunikazio-eredu bat jaso da horrelako salerosketei dagokienez).

Alegazio horiek jakinaraziko dira NPBko Oinarrizko Ordainketarako Erregimeneko Eskubideak esleitzeari buruzko Errege Dekretua indarrean hasten denez geroztik 2015eko maiatzaren 15era bitarte, eta gutxienez II. eranskinean adierazitako informazioa jasoko du (Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan daude interesdunen eskura).

Kanpaina jakin batean Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen titular batek 80/20 araua betetzen ez badu, NPBaren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak errentan emateko edo saltzeko aukera izan lezake?

Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen titular batek 80/20 araua betetzen ez badu (azken urte fiskala eta aurreko biak kontuan hartuta), nekazari aktiboa ez denez, ezin izango du Oinarrizko Ordainketarako Eskubiderik laga edo errentan eman. Eskubideak saldu eta errentan emateko, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak nekazari aktibo izan behar dute.

Zer gertatzen da 2015ean edo ondorengo urte batean eskubide eta lurren alokairua amaitzen denean?

Kasu horretan, errentaria da orain arte NPBaren laguntzak eskatu dituen, eta beraz errentaria da 4.1 atalean jasotako betekizunak betetzeko moduan egongo dena, eta, horregatik, 2015ean, oinarritzko ordainketarako eskubideen esleipena jasoko duena.

Behin alokairua amaiturik, alderdiek alokairu-kontratuan adostutakoa gertatuko da. Alderdiek adostu badute kontratua amaitzean, errentariak sortutako oinarritzko ordainketarako eskubideak errentatzaileari itzuli behar dizkiola, errentatzaileak, betiere nekazari aktiboa bada, lurak ez ezik sortutako eskubideak ere berreskuratzeko aukera izango du, eta jarraian eskubide horiek aktibatzeke edo zuzenean beste errentari bati lagatzeko aukera izango du, aurrekoak bezala nekazari aktiboa izan beharko duena. (1)

Gogorarazten dizuegu Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak egungo nekazariari ematen zaizkiola, errentariari. Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak 2014ko abenduan amaitu dira.

Argigarri gisa (eta lehenengo erantzunean sakonduz (1)). Behin alokairua amaiturik, alderdiek alokairu-kontratuan adostutakoa gertatuko da. Alderdiek adostu badute kontratua amaitzean, errentariak sortutako oinarritzko ordainketarako eskubideak errentatzaileari itzuli behar dizkiola, errentatzaileak, betiere nekazari aktiboa bada, lurak ez ezik sortutako eskubideak ere berreskuratzeko aukera izango du, eta jarraian eskubide horiek aktibatzeke edo zuzenean beste errentari bati lagatzeko aukera izango du, aurrekoak bezala nekazari aktiboa izan beharko duena. Hortaz, nekazari aktiboa ez den errentatzaileak eskubide horiek beste errentari bati lagatzeko aukera al dauka?

Bai. Kasu horietan, errentatzailea nekazari aktiboa ez bada ere, Oinarritzko Ordainketarako eskubideak beste errentari bati eskualdatu diezazkioke. Berez, errentatzaileak ez ditu Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak jasotzen; aitzitik, errentatzaileak geroko errentariari lagatzen dizkio eskubideak, oraingo errentariaren bitartez.

Autonomia Erkidegoak alokairuaren amaiera jakinarazten ez badu errentatzaileak eta errentariak kontratu horri eutsi nahi diotelako beharrezkotzat jotzen duten denboran, hau da, 8, 10 edo 12 urtean. Posible al da hori?

alokairu-kontratuarekin aurrera jarraitu nahi bada (segidako kontratuak), dirudienez hasiera batean onartuko da errentariak Oinarritzko Ordainketarako Eskubideei eustea, Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen jabe den nekazaria nekazari aktiboa izan edo ez. Hau da, errentariak jasoko ditu beti Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak.

Gaur egun, Ordainketa Bakarreko Eskubide eta lurren alokairu-kontratuetan jasotako klausula baten arabera, kontratua amaitzen denean lurak eta Ordainketa Bakarreko Eskubideak jabeari itzultzen zaizkio. Eskubideen esleipenari buruzko Errege Dekretuaren proiektuaren 19. artikuluan aipatutako kontratu-klausularen baliokidea izan al daiteke klausula hori, edo berriz ere beste klausula bat sinatu behar dute, errentaria ados badago?

Bai, 2014/05/15era arte hori egin daiteke.

Gaur egun zenbaitetan gertatzen da lurren jabeak NPB kobratzen duela (Ordainketa Bakarreko Eskubideak), hirugarren bati errentan eman badizkio ere (hirugarrenak ez du NPB kobratzen lur horiengatik). alokairuaren zenbatekoa bat dator NPB horretatik jasotako ordainketa zuzenekin. 2015etik aurrera egoera hori mantendu al liteke?

Normalean Landa alokairuen legearen arabera alokairu-kontratu batek ez ditu horiek estaltzen; aldiz, ahozko akordioak izan ohi dira, edota, kasurik onenean, kontratu pribatuak.

2015ean eskubideak jaso ahal izateko, nekazariak aktiboa izan behar du NBBko lehen zutabeko ordainketa zuzenak soilik kobratzen baditu, nekazaritzatik beste diru-sarrerarik jaso gabe, ezin izango da aktiboa izan.

Aukeran dauka kanpaina honetan ustategiaren jardueran berriz hastea eta horrela diru-sarrerak sortzea, hortik aurrera nekazari aktiboa izateko. Kasu horretan, jarduera, berriz hasiko da ondorio guztietarako, eta eskaeran deklaraturako eta ustategiko nekazaritza- edo abeltzaintza-jardueratik eratorritako enpresa-arriskuaren zuzeneko erantzukizuna hartuko du.

Bere ustategiko nekazaritza- edo abeltzaintza-jardueratik eratorritako enpresa-arriskua bere gain hartu nahi ez badu, 2014an lurrak eta eskubideak errentan eman ditzake. Kasu horretan, oinarriko ordainketarako eskubideak 2015ean esleituko zaizkio errentariari, eta, behin alokairua amaiturik, alderdiek alokairu-kontratuan adostutakoa gertatuko da, aurreko galderan adierazitakoari jarraiki.

Código Cesión	Cesiones que SI permiten traspaso de Referencia de Pagos 2013 a un productor que no tenga Referencia 2013
V3	Compraventa con tierra, compra parcial de la explotación
V5	Compraventa por devolución de arrendamiento
V6	Compraventa con tierra, compra total de la explotación
V8	Compraventa CON TIERRA a un agricultor que inicia su actividad agraria
HE	Herencia
CD	Cambio del régimen o estatuto jurídico del titular
FU	Fusiones o agrupac. en personas jurídicas o entes sin person. jurídica
ES	Escisiones de personas jurídicas o de agrupaciones de personas físicas
AR	Arrendamiento con tierras
AA	Finalización anticipada de un arrendamiento de derechos con tierras
HA	Jubilaciones de la actividad agraria y programas aprobados de cese anticipado o incapacidad laboral permanente

4.4. Oinarriko Ordainketarako zenbat Eskubide esleitzen dira?

Bestetik, nekazari bakoitzari Oinarriko Ordainketarako Eskubideen kopuru bat esleituko zaio, 2015eko laguntza-eskaeran nekazariak deklaratu dituen zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren arabera, edo 2013an deklaratu zituen zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren arabera, azken hori txikiagoa bada.

**KUPOA
(Hektareak)**

2015ean deklaraturako azalerei banako muga bat aplikatu behar bazaie, murrizketa-ehuneko bat aplikaturako da 2015ean deklaratu den zehazturako azalera onargarri osoaren gainean. Ehuneko hori kalkulatzeko, 2013ko laguntza-eskaeran deklaratu zituen zehazturako hektarea onargarrien kopurua 2015eko laguntza-eskaeran deklaratu dituen zehazturako hektarea onargarrien kopuruaren artean zatituko da.

2015eko eskaera bakarrean larre iraunkorren azalera deklaratu badituzte ere, 2015eko eskaera bakarra aurkezteko epea amaitzean Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden nekazariak ez zaizkie oinarrizko ordainketarako eskubideak esleituko larre-azalera horietan.

Gainera, 14/02/17tik 14/05/15era bitarte jakinarazitako Ordainketa Bakarreko Eskubide eta lurren salerosketa edo alokairu guztietan, lagatzaileak lagapen-hartzaileari ofizioz laga behar dizkio eskualdatzean bilduta egonik 2013an deklaratu zituen hektarea onargarri guztiak.

2015eko eskaera bakarrean larre iraunkorren azalera deklaratu badituzte ere, 2015eko eskaera bakarra aurkezteko epea amaitzean Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden nekazariak ez zaizkie oinarrizko ordainketarako eskubideak esleituko larre-azalera horietan.

Ustiatgiaren behin betiko eskualdatzea edo ustiatgiaren alokairu osoa edo partziala agintari eskudunari jakinarazten bazaio Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ustiapenarekin batera, ustiapenari 2015ean esleitu beharreko oinarrizko ordainketarako eskubideen balioa eskualdatzen bada, lagatzaileak lagapen-hartzaileari 2013ko eskaera bakarrean deklaratu zituen zehazturako hektarea onargarrien kopurua lagako dio, eskualdatutako ustiatgiko zatia dagokionez. Zehazki, honako komunikazio mota hauek hartuko dira aintzat:

- a. Agintari eskudunari ustiatgi osoen edo zatien eta lurren salerosketak egin izana jakinaraztea, baldin eta 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarteko aldiaren gauzatu badira, 1307/2013 Erregelamenduko (EE) 24.8 artikuluan jasotako kontratu-klausula eta 639/2014 Egintza Delegatuaren 20. artikuluan jasotakoa aplikatuz, kasuan kasu. Erosleak eta saltzaileak nekazari aktibo izan behar dute. Kasu horietan ordainketa-eskubideak esleitzeko eskaera erosleak egingo du eta salerosketa-kontratuaren kopia bat bilduko du, salerosketaren xede den azalera esleitu behar zaizkion oinarrizko ordainketarako eskubideen balioa eskualdatzen duen kontratu-klausula barne, non saltzaileak erosleari esanbidezko baimena emango dion esleitzeko eskaera hori aurkeztu ahal izateko.
- b. 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarteko lurreko alokairuen amaierak, baldin eta errentariak, lurak itzultzeaz gain, eta dagokion kontratu-klausula sinatu ondoren, errentatzaileari itzultzen ari zaion azalera esleitu beharreko Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balioa eskualdatzen bada.
- c. Agintari eskudunari ustiatgi osoen edo zatien eta lurren salerosketak egin izana jakinaraztea, baldin eta 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarteko aldiaren gauzatu badira, 1307/2013 Erregelamenduko (EE) 24.8 artikuluan jasotako kontratu-klausula eta 639/2014 Egintza Delegatuaren 21. artikuluan jasotakoa aplikatuz, kasuan kasu. Errentatzaileak eta errentariak nekazari aktibo

izan behar dute. Kasu horietan ordainketa-eskubideak esleitzeko eskaera erosleak egingo du eta salerosketa-kontratuaren kopia bat bilduko du, salerosketaren xede den azalerari esleitu behar zaizkion oinarrizko ordainketarako eskubideen balioa eskualdatzen duen kontratu-klausula barne, non saltzaileak erosleari esanbidezko baimena emango dion esleitzeko eskaera hori aurkeztu ahal izateko. Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak errentatzaileari esleituko zaizkio, eta hark errentariari lagako dizkio automatikoki alokairu-erregimenean; errentaria ordainketaren onuradun izango da alokairuak dirauen kanpainetan.

- d. Ustiategiaren titulartasun-aldaketak 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte gertatutako honako arrazoiengatik: herentziak; erretiroak, ustiategiaren lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea bada; nekazaritza-jarduera aldeztu aurretik uzteko onartutako programak; bat-egiteak; bereizketak; eta ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzea. Titulartasun-aldaketa horietan guztietan, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak nekazari aktibo izan behar dute, mortis causa oinordetza-kasuetan izan ezik, non, oinordea ez bada, ustiategia nekazari aktibo bati eskualdatzeko aukera izango duen, hari oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitzeko.
- e. Agintari eskudunari ustiategi osoen edo zatien eta lurren salerosketa edo alokairuak jakinaraztea, baldin eta 2013ko martxoaren 16tik 2014ko maiatzaren 15era bitarteko aldirian gauzatu badira, eta baldin eta ustiategiko eskualdatzaile titularrak esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 10.1 b) artikuluan ezarritako baldintza betetzen badu, baina 2013an eta 2014an ordainketa bakarerrako eskubideak esleituta eduki gabe, eta baldin eta titular berriak eskualdatzearen xede den ustiategia deklaratu badu 2014ko eskaera bakarrean.
- f. Kasu horietan, hala badagokio, 1307/2013 (EE) Erregelamenduaren 24.8 artikuluan jasotako kontratu-klausula egongo da indarrean. Titular berriak egingo du ordainketarako eskubideak esleitzeko eskaera, eta salerosketa- edo alokairu-kontratuaren kopia bilduko du, hala badagokio, dagokion kontratu-klausula barne, non titular berriari baimena emango dion esleipen-eskaera hori aurkeztu ahal izateko.
- g. Agintari eskudunari ustiategiaren titulartasun-aldaketak jakinaraztea 2013ko maiatzaren 16tik 2014ko maiatzaren 15era gertatutako honako arrazoi hauengatik: mortis causa oinordetza; erretiroak, ustiategia lehen mailako senide bati eskualdatzen bazaio; nekazaritza-jarduera aldeztu aurretik uzteko onartutako programak, bat-egiteak, bereizketak eta ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzea, baldin eta ustiategia eskualdatzen duen titularrak esleitzeko Errege Dekretuaren 10.1 b) artikuluan ezarritako baldintza betetzen badu, baina 2013an eta 2014an ordainketa bakarreko eskubide elkaturik eduki gabe, eta baldin eta titular berriak titulartasuna aldatu zaion ustiategia deklaratu badu 2014ko Eskaera Bakarrean.

Ustiategiaren behin betiko eskualdatzea edo ustiategiaren alokairu osoa edo partziala agintari eskudunari jakinarazten bazaio Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ustiapenarekin batera, ustiapenari 2015ean esleitu beharreko oinarrizko ordainketarako eskubideen balioa eskualdatzen bada, lagatzaileak lagapen-hartzaileari 2013ko eskaera bakarrean deklaratu zituen zehaztutako hektarea onargarrien kopurua lagako dio, eskualdatutako ustiategiko zatia dagokionez.

EGOERAK

2013an nekazari batek Oinarrizko Ordainketarako 25 eskubide zeuzkan, eta 40 ha larre eta 10 ha baso deklaratu zituen. 2015ean, Oinarrizko Ordainketarako zenbat Eskubide esleituko zaizkio honako egoera hauetan?

1. **2015. urtean 40 ha larre eta 10 ha baso deklaratu ditu:** Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen eskualdaketak
2. **2015. urtean 50 ha larre eta 10 ha baso deklaratu ditu:** Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen eskualdaketak
3. **2015. urtean 25 ha larre eta 10 ha baso deklaratu ditu:** Oinarrizko Ordainketarako 25 Eskubide
4. **2015. urtean 35 ha larre eta 10 ha baso deklaratu ditu:** Oinarrizko Ordainketarako 35 Eskubide.

Beti hartzen da aintzat 2013an edo 2015ean deklaraturako azalera onargarri txikiena. Onuradunak zeuzkan Ordainketa Bakarreko Eskubideak ez dira kontuan hartzen Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako esleipenean.

2013. urtean nekazari batek 100 ha labore deklaratu ditu bailara jakin batean. Azalera horretatik 80 ha zerealak eta lugorriak dira, eta 20 ha erremolatxa-laboreak. Erremolatxa hori deklaratu da SIGPACaren arabera ureztatua dagoen azalera baten gainean.

Zenbat eskubide eta zer motatakoak (Lehorreko Laboreetarako Lurrak –LLL- edo Labore Ureztatugetarako Lurrak –LUL-) esleituko litzaizkieke honako egoera hauetan?

1. **2015ean 100 ha labore deklaratu ditu (100 ha zereal eta lugorri). Deklarazioaren barruan hartu da 2013an erremolatxa zuen eta SIGPACean ureztatu gisa jasota zegoen 20 ha-ko azalera. (Egoera: azalera osoa mantentzen du baina ez du erremolatxa hazten):**

LLL: 80 eta LUL: 20

2. **2015ean 100 ha labore deklaratu ditu (80 ha zereal eta lugorri). Deklarazioaren barruan hartu da 2013an erremolatxa zuen eta SIGPACean ureztatu gisa jasota zegoen 15 ha-ko azalera. (Egoera: 2013ko azalera ureztatuaren zati bat deklaratu du, baina laboreen eta erremolatxa-laboreen azalera osoa mantendu du)**

LLL: 85 eta LUL: 15

3. **2015ean 100 ha labore deklaratu ditu (75 ha zereal eta lugorri, 25 ha erremolatxa). Deklarazioaren barnean hartu du 2013an erremolatxa zuen eta SIGPACean ureztatu gisa jasota zegoen 15 ha-ko azalera, baita beste 10 ha gehiago ere, 2013an beste nekazari batek erremolatxarekin deklaratu zituenak eta SIGPACean ureztatu gisa ere jasota zeudenak. (Egoera: 2013an ureztatu gisa deklaratu zuen azalaren zati bat deklaratu du, eta gainera ustiatu beste azalera ureztatu bat erantsi dio, 2013an beste nekazari batek deklaratu zuena)**

4.5. Ordainketarako eskubideen balioa eta kopurua jakinarazten denean, nola kalkultzen da Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa?

2015ean nekazariari emango zaie haien eskubideek 2015etik 2019ra bitarte urtero edukiko duten balioaren berri.

Nekazariarentzako informazioa behin-behineko datuetan oinarritzen bada, behin beharrezko kontrol guztiak egin ondoren, eta, edozein kasutan, 2016ko apirilaren 1a baino lehen, oinarrizko ordainketarako eskubideen behin betiko balioa eta kopurua ezarriko dira, eta nekazariari jakinaraziko zaie.

Erreferentziatzeko zenbatekoa 2014an laguntza zuzenetatik jasotako zenbatekoen arabera ezarri da, zehapenak eta zigorrak ezarri aurretik, eta hasierako balio unitarioa kalkulatzeko erabiliko da, sektore bakoitzaren laguntzak oinarritzko ordainketarako erregimenean sartzearen ondorioz.

2015etik 2019ra bitarteko urte bakoitzerako oinarritzko ordainketarako erregimenaren eskualde bakoitzeko ezartzen diren behin betiko laguntza-eskubideen kopurua eta balioa.

Nekazari bakoitzarentzat Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa kalkulatzeko, 2014ko kanpainan, murrizketak eta eskusioak ezarri ondoren, honako laguntza-erregimen hauetatik jasotako ordainketa zuzenen ehuneko finko bat aplikatu behar da:

- a) Ordainketa Bakarreko Erregimenari dagozkion zenbatekoak.
- b) Behi ume-hazleen primari dagozkion zenbatekoen % 51,32.
- c) Behi ume-hazleen prima osagarriari dagozkion zenbatekoen % 51,32 (Euskadin aplikatzekoak ez diren laguntzen erregimena).
- d) Lehorreko lurak lantzeko txandaketak sustatzeko programa nazionalari dagozkion zenbatekoak (Euskadin erregimen hori ez da aplikatzen).
- e) Tabakoaren kalitatea sustatzeko programa nazionalari dagozkion zenbatekoak.
- f) Lehorreko lurak lantzeko txandaketak sustatzeko programa nazionalari dagozkion zenbatekoak (Euskadin erregimen hori ez da aplikatzen).

Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen balioa kalkulatzeko urtero aplikatu beharreko ehuneko finkoa % 56 izan liteke, gutxi gorabehera

2015ean nekazari bakoitzari Oinarritzko Ordainketarako Eskubide bakoitzeko esleitu beharreko balio unitarioa honela kalkulatzen da:

- a) Nekazariak eskualde bakar bateko azalera deklaratzeko badu, dagozkion guztizko hasierako balioa eskualde horretan dauzkan Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen guztizko kopuruaren artean zatituko da, Erreserba Nazionalatik esleituak alde batera utzita.
- b) Nekazariak deklaraturako azalerak eskualde batean baino gehiagoan badaude, 2014an nekazariak jasotako guztizko ordainketen zati bat esleituko da eskualde bakoitzean. Horretarako, irizpide objektibo eta ez-diskriminatzailetan oinarrituta, 2014an jasotako zenbatekoak banatuko dira produktore bakoitzak eskualde bakoitzean deklaraturako azalaren artean. Jarraian, eskualde bakoitzaren oinarritzko ordainketarako eskubide bakoitzaren hasierako balio unitarioa kalkulatu da, eskualde horretan esleitutako zenbatekoak eskualde horretan esleitutako oinarritzko ordainketarako eskubide kopuruaren artean zatituz, erreserba nazionalatik esleituak alde batera utzita.

Banaketa-prozesu horretan, lurralde osoan aplikazio uniformea bermatzeko, aipaturako zenbatekoen banaketatik eta konbergentzia-prozesutik etekinak lortzeko baldintza artifizialak nahita sortu direla atzematen bada, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak muga objektibo eta ez diskriminatzaile batzuk ezarriko ditu 2015eko eskaera bakarrean deklaraturako azalaren arabera.

2015. urterako eskubideen hasierako balioa kalkulatu ondoren, balio hori zuzenduko da konbergentzia-prozesuaren arabera.

Lehen fase batean ordainketa-eskubideak hirugarren dezimaleraino kalkulatu dira, eta bigarren fase batean, berriz, bigarren dezimal gertuenera biribilduko dira, handiagora edo txikiagora. Kalkuluaren arabera emaitzaren hirugarren dezimala 5 baldin bada, kopurua handiagora biribilduko da, bigarren dezimalera.

Gipuzkoako esnetarako behien abeltzain batek 30,5 ha larre eta 5 ha intsinis pinu deklaratu zituen 2013an eta 2015ean; hortaz, zein da nekazari horren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa? 2014an nekazari horrek Ordainketa Bakarreko 5 Eskubide Berezi zeuzkan, eta horiengatik 20.692,44 € jasotzen zituen murrizketak eta eskusioak ezarri aurretik.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen kopurua bat dator 2013tik 2015era bitarte deklaratuak azalera onargarri txikiarekin. Kasu horretan azalera berbera da, 30,5 ha guztira (baso-azalera ez da onargarria).
- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa ezartzeko, nekazariak jasotako laguntza-erregimenen ehuneko bat aplikatzen da. 2015ean azalera onargarria deklaratu duenez arau orokorra aplikatzen zaio, nahiz eta 2014an eskubide bereziak zeuzkan. Nekazari horrek Ordainketa Bakarra jaso zuen soilik. 2015eko ehunekoa % 56,37275217 dela kalkulatu da. Beraz: $20.694,22 \times 0,5637275217 = 11.665,90 \text{ €}$
- Nekazari horrek daukan Oinarrizko Ordainketarako Eskubide bakoitzaren hasierako balioa lortzeko, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa banatu behar da eskubide kopuruaren artean. Beraz: $11.665,90 / 30,5 = 383,49 \text{ €}$

2015. urterako eskubideen hasierako balioa kalkulatu ondoren, balio hori urtean behin zuzenduko da konbergentzia-prozesuaren arabera. Gainera, hektarea onargarri guztietan, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onargarriak diren nekazaritza-jarduerak errespetatzen baditu, osagarri bat (greeninga) kobratzeko aukera izango du, baita esnetarako behien laguntza gehigarria ere (baita, hala badagokio, gizentzeko behien laguntza ere)

Gipuzkoako esnetarako behien abeltzain batek 65 ha larre eta 5 ha intsinis pinu deklaratu zituen 2013an eta 2015ean; hortaz, zein da nekazari horren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa? 2014an nekazari horrek Ordainketa Bakarreko 71 Eskubide zeuzkan, eta horiengatik 20.692,44 € jasotzen zituen murrizketak eta eskusioak ezarri aurretik.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen kopurua bat dator 2013tik 2015era bitarte deklaratuak azalera onargarri txikiarekin. Kasu horretan azalera berbera da, 77,75 ha guztira (baso-azalera ez da onargarria).
- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa ezartzeko, nekazariak jasotako laguntza-erregimenen ehuneko bat aplikatzen da. Nekazari horrek Ordainketa Bakarra jaso zuen soilik. 2015eko ehunekoa % 56,37275217 dela kalkulatu da. Beraz: $20.694,22 \times 0,5637275217 = 11.665,90 \text{ €}$
- Nekazari horrek daukan Oinarrizko Ordainketarako Eskubide bakoitzaren hasierako balioa lortzeko, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa banatu behar da eskubide kopuruaren artean. Beraz: $11.665,90 / 77,75 = 150,04 \text{ €}$

2015. urterako eskubideen hasierako balioa kalkulatu ondoren, balio hori urtean behin zuzenduko da konbergentzia-prozesuaren arabera. Gainera, bere hektarea onargarri guztietan, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onargarriak diren nekazaritza-jarduerak errespetatzen baitu, osagarri bat (greeninga) kobratzeko aukera izango du.

Gipuzkoako gizentzeko behien abeltzain batek 2015ean ez du azalera onargarririk deklaratu; hortaz, zein da nekazari horren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa? 2014an nekazari horrek Ordainketa Bakarreko 4 Eskubide Berezi zeuzkan, eta horiengatik 18.692,44 € jasotzen zituen murrizketak eta eskusioak ezarri aurretik.

- Nekazari hori ez zaio oinarrizko ordainketarako eskubiderik esleitzen, 2014. urtean eskubide bereziak zeuzkalako eta 2015ean azalera onargarririk deklaratu ez duelako.
- Kasu horretan laguntza gehigarri espezifiko bat esleituko zaio eskubide bereziengatik, gizentzeko behien laguntza gehigarriaz gain. Laguntza gehigarrien bloke espezifikoan deskribatuko da adibide hori.

Nola kalkulatzen da nire eskubideen balioa baldin eta abeltzain batek Ordainketa Bakarreko eskubide bereziak baditu 2014. urtean?

Kasuistika aldatzen da, 2015ean Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak aktibatzeke nekazariak hektarea onargarriak deklaratu dituen edo ez:

- 2015ean abeltzainak **azalera onargarria** deklaratu du. Kasu horretan kalkulua egingo da eskubide arruntak baleuzka bezala. «Eskualdeka aplikatzeko poltsara» eskubideen balioen % 56 eramango du, gutxi gorabehera. Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen kopurua deklaraturako azalera hautagarriaren arabera kalkulatuko da.
- 2015ean abeltzainak **EZ** du azalera hautagarri deklaratu, eta 2014an Eskubide Bereziak mantendu ditu. 2014an eskubide arrunten titular izaki kanpaina horretan 0,2 hektareako azalera edo azalera handiagoa deklaratu zuten eskubide berezien titularrek ezin izango dute laguntza hori jaso, eta kasu horietan laguntza gehigarri espezifiko bat ezarriko litzateke.

Gipuzkoako esnetarako behien abeltzain batek 77,75 ha larre eta 5 ha intsinis pinu deklaratu zituen 2013an eta 2015ean; hortaz, zein da nekazari horren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa? 2014an nekazari horrek Ordainketa Bakarreko 71 Eskubide zeuzkan, eta horiengatik 20.692,44 € jasotzen zituen murrizketak eta eskusioak ezarri aurretik; gainera, 6.800 € jaso zituen, zeukan behi ume-hazlearen 35 eskubideengatik.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen kopurua bat dator 2013tik 2015era bitarte deklaraturako azalera onargarri txikienarekin. Kasu horretan azalera berbera da, 77,75 ha guztira (baso-azalera ez da onargarria).
- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa ezartzeko, nekazariak jasotako laguntza-erregimenen ehuneko bat aplikatzen da. Nekazari horrek Ordainketa Bakarrarengatik eta behi ume-hazlearengatik jaso du. Ehuneko hori Ordainketa Bakarraren % 100aren eta behi ume-hazlearen % 51,32aren gainean aplikatzen da. 2015eko ehunekoa % 56,37275217 dela kalkulatu da. Beraz

Ordainketa bakarra: $20.694,22 \times 0,5637275217 = 11.665,90 \text{ €}$

Behi ume-hazlea: $(6.800 \times 0,5132) \times 0,5637275217 = 1.967,28 \text{ €}$

Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa = 13.633,18

- Nekazari horrek daukan Oinarrizko Ordainketarako Eskubide bakoitzaren hasierako balioa lortzeko, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen guztizko hasierako balioa banatu behar da eskubide kopuruaren artean. Beraz: $13.633,18 / 77,75 = 175,34 \text{ €}$

2015. urterako eskubideen hasierako balioa kalkulatu ondoren, balio hori urtean behin zuzenduko da konbergentzia-prozesuaren arabera. Gainera, hektarea onargarri guztietan, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza-jarduerak errespetatzen baditu, osagarri bat (greeninga) kobratzeko aukera izango du, baita esnetarako behien laguntza gehigarria ere (baita, hala badagokio, gizentzeko behien laguntza ere)

4.6. Eskualdeka aplikatzea

Oinarrizko ordainketarako erregimena eskualdeka aplikatzeko eredu nazionalari jarraituko zaio, administrazio-, agronomia- eta sozioekonomia-irizpideetan eta nekazaritza-ahalmenean oinarrituta ezarritako eskualdeen arabera. Eskualdekako aplikazioa ezartzeko oinarrizko unitatea nekazaritza-bailarak izango dira. Nekazaritza-bailara horiek eskualde desberdinetan bilduko dira bailara bakoitzeko nekazaritza-azalera mota desberdinen produkzio-orientazioaren arabera, 2013. urtean haien ezaugarri izan zen produkzio-potentzialaren arabera eta produkzio jakin batzuek nekazaritza-bailaretan duten inpaktu sozioekonomikoaren arabera.

Euskadin, eskualdeka aplikatzeko planaren harira, nekazaritza-bailara batzuk erabiliko dira oinarrizko ordainketarako erregimenaren eskualdeak ezartzeko. Honako hauek dira, bakoitza osatzen duten udalerriekin batera:

ARABA / ÁLAVA:

KANTAURIARRA: Amurrio, Artziniega, Ayala/Aiara, Laudio, Okondo.

GORBEIALDEA: Aramaio, Zigoitia, Urkubustaiz, Legutio, Zuia.

ARABAKO HARANAK: Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantarón, Erreiberagoitia, Ribera Baja/Erribera Beitia, Añana, Gaubea, Zanbrana.

ARABAKO LAUTADA: Alegria-Dulantzi, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Iruña Oka/Iruña de Oca, Iruraiz-Gauna, Salvatierra/Agurain, San Millán/Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz, Zaldondo, Entziako Partzoneria.

ARABAKO MENDIAK: Bernedo, Campezo/Kanpezuz, Lagrán, Arraia-Maeztu, Peñacerrada-Urizaharra, Harana/Valle de Arana, Lañoiko Komunitatea, Pipaón eta Urizaharra.

ARABAKO ERRIOXA: Baños de Ebro/Mañueta, Kripan, Eltziego, Elvillar/Bilar, Bastida, Guardia, Lanciego/Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego, Villabuena de Álava/Eskuernaga, Yécora/Iekora.

GIPUZKOA:

GIPUZKOA: Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Antzuola, Arama, Aretxabaleta, Asteasu, Ataun, Aia, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Beizama, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Zegama, Zerain, Zestoa, Zizurkil, Deba, Eibar, Eduain, Elgoibar, Elgeta, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Hondarribia, Gaintza, Gabiria, Getaria, Hernani, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irun, Irura, Itsasondo, Larraul, Lazkao, Leaburu, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Arrasate/Mondragón, Mutriku, Mutiloa, Olaberria, Oñati, Oresa, Orio, Ormaiztegi, Oizartzun, Pasaia, Soraluze/Placencia de Las Armas, Errezil, Erreterria, Leintz-Gatzaga, Donostia-San Sebastián, Segura, Tolosa, Urnieta, Usurbil, Bergara, Villabona, Ordizia, Urretxu, Zaldibia, Zarautz, Zumarraga, Zumaia, Mendaro, Lasarte-Oria, Astigarraga, Baliarrain, Orendain, Altxaga, Gaztelu, Alzania, Aralarreko Mendilerroa.

BIZKAIA.

BIZKAIA: Abadiño, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Arakaldo, Arantzazu, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Artzentales, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Bakio, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bermeo, Berriatua, Berriz, Bilbo, Busturia, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Artea, Zeanuri, Zeberio, Dima, Durango, Ea, Etxebarri Anteglesia de San Estéban-Etxebarri Doneztebeko Elizatea, Etxebarria, Elantxobe, Elorrio, Ereño, Ermua, Fruiz, Galdakao, Galdames, Gamiz-Fika, Garay, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gordexola, Gortiz, Getxo, Gueñes, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ispaster, Izurtza, Lanestosa, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoa, Lemoiz, Lekeitio, Mallabia, Mañaria, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mendata, Mendexa, Meñaka, Ugao-Miraballes, Morga, Muxika, Mundaka, Mungia, Aulesti, Muskiz, Otxandio, Ondarroa, Urduña-Orduña, Orozko, Sukarrieta, Plentzia, Portugalete, Errigoiti, Valle de Trápaga-Trapagan, Lezama, Santurtzi, Ortuella, Sestao, Sopela, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Ubide, Urduliz, Balmaseda, Atxondo, Bedia, Areatza, Igorre, Zaldibar, Zalla, Zaratamo, Derio, Erandio, Loiu, Sondika, Zamudio, Forua, Kortezubi, Murueta, Nabarniz, Iurreta, Ajangiz, Alonsotegi, Zierbena, Arratzu, Ziortza-Bolibar.

Eskualdeen lurralde-oinarria eskualde horien produkzio-potentzian eta 2013ko kanpainan deklaraturako azalerei dagokienez kanpaina horretan ezarritako produkzio-orientazioan, edo 2013ko kanpainan deklaratu ez ziren azaleretarako kanpaina horretan nekazaritza-lursailen identifikazio geografikoaren sisteman (SIGPAC) azaltzen den erabileran oinarrituta ezartzen da. Lurralde-oinarri hori, 2015eko martxoaren 1a baino lehen, SIGPAC sistemari buruzko erreferentzia-geruza batean finkatuko da; geruza hori behin betikotzat hartuko da 2015. urtean oinarritzko ordainketarako eskubideak esleitzeko prozesua amaitzen denean.

Estatuan 48 eskualde sortu dira, baina administrazio-eskualdeak aintzat hartu beharrez, eskualde bakoitzean zenbait bailara bildu dira haien produkzio-orientazioan oinarrituta, Oinarritzko Ordainketarako Eskubidearen batez besteko zenbatekoa homoginoa izanik. Produkzio-orientazioak honako hauek dira:

- a) (LLL) Lehorreko Laboretarako Lurrak (goldatzeko moduko lehorreko lurrak barne)
- b) (LUL) Labore Ureztatueterako Lurrak (Euskadin goldatzeko moduko arto- eta erremolatxa-lursail ureztatuak, eta berotegiko eta baratzeako laboreak barne; SIGPAC sisteman ureztatu gisa jaso dira, eta 2013an deklaratu ziren).
- c) (LI) Labore Iraunkorak (fruta-arbolak, mahastiak eta olibondoak)
- d) (LARREAK) Larreak (belardi eta larrediak, zuhaitz- eta zuhaixkadun larreak)

Bailara bakoitzean produkzio-orientazio bakoitzaren batez besteko balioa kalkulatzeko, jasotako zenbatekoak banatzen dira, haien jatorriaren arabera, deklaraturako eta haren produkzio-orientazioaren arabera sailkatutako azaleraren artean.

CLASIFICACIÓN DE LAS SUPERFICIES DE CADA COMARCA AGRARIA. CORRESPONDENCIA CON USOS SIGPAC

REGIONES PAGO BASE	USOS SIGPAC
Tierras de cultivo SECANO*	TA
Tierras de cultivo REGADIO*	TA, TH, IV
Cultivos permanentes	CF, CS, CV, FF, OC, CI, FY, FS, FL, FV, OV, OF, VI, VF, VO
Pastos	PS, PR, PA
Superficie no Agrícola	AG, ED, IM, CA, ZU, FO
Otros	ZV, ZC

DESCRIPCIÓN USO SIGPAC	USO SIGPAC	DESCRIPCIÓN USO SIGPAC	USO SIGPAC
Asociación Cítricos-Frutales	CF	Invernaderos y cultivos bajo	IV
Asociación Cítricos-Frutales de Cáscara	CS	Olivar	OV
Asociación Cítricos-Viñedo	CV	Olivar - Frutal	OF
Asociación Frutales-Frutales De Cáscara	FF	Pastizal	PS
Asociación Olivar-Cítricos	OC	Pasto Arbustivo	PR
Cítricos	CI	Pasto con Arbolado	PA
Corrientes y Superficies de Agua	AG	Tierras Arables	TA
Edificaciones	ED	Viales	CA
Forestal	FO	Viñedo	VI
Frutales	FY	Viñedo - Frutal	VF
Frutos Secos	FS	Viñedo - Olivar	VO
Frutos Secos y Olivar	FL	Zona Censurada	ZV
Frutos Secos y Viñedo	FV	Zona Concentrada no incluida	ZC
Huerta	TH	Zona Urbana	ZU
Improductivos	IM		

* La TA irá a secano o a regadío en función de su coeficiente de regadío (CR)

ESKUALDEKA APLIKATZEAREN INGURUAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- 2015ean Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak esleitzen dira.
- Ordainketarako Eskubide bakoitza eskualde bati esleitzen zaio, Estatuan ezarritako 48 eskualdeetatik
- Eskubide bakoitza eskualde jakin bati esleitu zaio 2015ean, eta eskualde horretan bakarrik aktiba daiteke.
- Eskubide bat aktibatzeko, hektarea bat egiaztatu behar da dagokion eskualdean.

ARGITU BEHARREKOA

- Labore Ureztatuen lurzati baten gaineko deklarazioak (SIGPAC sisteman Ureztatuen Koefizientearekin ageri da) eskubide bat ematen dio eskualde jakin bati hasierako esleipenean.
- Labore ureztatu batzuek sortutako eskubide bat edukitzeak EZ DU JUSTIFIKATZEN kaguntza JASOTZEKO ESKUBIDEA x urtean labore ureztatuen lursail bat deklaratzegatik.

ESKUALDE JAKIN BATEAN ESKUBIDEA DUEN NEKAZARI BATEK ESKUALDE HORREN ESPARRU EDO LURSAIL BAT DEKLARATU BEHAR DU, ETA LEHORREKO LABORE BAT, LABORE UREZTATU BAT, LABORE IRAUNKOR BAT EDO LARRE BAT DEKLARATU DEZAKE.

Oinarrizko ordainketa eskatzeko baliatutako laguntza-eskubide bakoitza, Estatuan - Kanarietan izan ezik- kokatutako hektarea onargarri batekin justifikatu beharko da. Nolanahi ere, Oinarrizko Ordainketarako Erregimena 48 eskualdez osatuta egongo denez, eskubide bat aktibatu ahal izateko, 2015. urtean eskubide hori esleitu zaion eskualdean bakarrik aktibatu ahal izango da.

Jarraian, euskal bailarek dagozkien eskualdeak azalduko ditugu, baita gertuko bailarak ere.

Oharra:

- Labore Iraunkorren Lurra: LI;
- Larreak: LARREAK
- Lehorreko Laboreen Lurra LLL;
- Labore Ureztatuen Lurra: LUL

Produktzio-orientazioaren arabera, euskal bailarak honako eskualde hauei esleituta daude:

	LLL	LUL	LI	LARREAK
KANTAUURIARRA	20.1	20.1	2.2	5.3
GORBEIALDEA	8.1	20.1	8.2	5.3
ARABAKO HARANAK	8.1	20.1	8.2	2.3
ARABAKO LAUTADA	8.1	20.1	8.2	2.3
ARABAKO MENDIALDEA	8.1	20.1	8.2	2.3
ARABAKO ERRIOXA	8.1	8.1	1.1	8.3
GIPUZKOA	20.1	20.1	2.2	8.3
BIZKAIA	20.1	20.1	2.2	7.3

Euskadi ondoko bailareei lotutako eskualdeak honako hauek dira:

	LLL	LUL	LI	LARREAK
KOSTALDEA (KANTABRIA)	19.1	19.1	19.1	11.3
KOSTA ONDOKOA (KANTABRIA)	17.1	17.1	17.2	6.3
ASON (KANTABRIA)	14.1	14.1	14.2	5.3
MERINDADEAK (BURGOS)	7.1	7.1	7.1	2.3
BUREBA-EBRO (EBRO)	8.1	12.1	8.2	2.3
IPAR MENDEBALDEA (NA)	15.1	15.1	14.2	5.3
ESTELLERRIA (NAFARROA)	7.1	15.1	7.2	5.3
ERRIOXA GARAIA (ERRIOXA)	8.1	11.1	1.1	1.2
ERRIOXA ERDIALDEA (ERRIOXA)	4.1	9.1	1.1	3.3

2015eko abenduan onuradunentzako oinarrizko ordainketarako eskubideen esleipenaren behin-behineko jakinarazpena egingo da, alegazioen izapidetzea barne (ezinbesteko arrazoi edo aparteko zailtasunengatik edo titulartasun-aldaketengatik). Behin betiko eskubideak 2016ko apirilaren 2a baino lehen esleituko dira

LLLen eta LULen ZENBATEKOAK BANATZEKO ADIBIDEAK

Arabako Lautadako emakumezko nekazari batek 80 ha labore deklaratu ditu 2015ean bailara jakin batean. Nekazari horrek 5 ha erantsi dizkio bere azalerari 2013aren aldean. Azalera berri hori Labore Ureztatuen Lurretara esleitutako lurzati bati dagokio, nekazari horrek alde zurretik deklaratu ez zuena. Gainera, 2015ean nekazari horrek zerealak eta lugorriak deklaratu ditu. Argitu beharra dago ez duela inoiz artorik edo erremolatxarrik erein.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak 80 dira guztira (85 2015ean eta 80 2013an)
- LLLen eskubideak: 75 eta LULen eskubideak: 5. 2015. urteak markatzen du LLLen eta LULen arteko banaketa

LLLen eta LULen ZENBATEKOAK BANATZEKO ADIBIDEAK

2013. urtean nekazari batek 100 ha labore deklaratu ditu bailara jakin batean. Azalera horretatik 65 ha zerealak eta lugorriak dira, eta 15 ha erremolatxa-laboreak. Erremolatxa hori deklaratu da SIGPACaren arabera ureztatua dagoen azalera baten gainean.

1. Zenbat eskubide, zer motatakoak (Lehorreko Laboretarako Lurrak –LLL– edo Labore Ureztatueterako Lurrak –LUL–) eta zenbatekoak esleituko zaizkio nekazari horri, baldin eta 2015ean 85 ha labore deklaratzeko baditu (85 ha zereal, erremolatxa eta lugorri)? Deklarazioaren barruan hartu da 2013an erremolatxa zuen eta SIGPACean ureztatu gisa jasota zegoen 15 ha-ko azalera.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen kopurua bat dator 2013tik 2015era bitarte deklaraturako azalera onargarri txikienarekin. Kasu horretan azalera berbera da, 80 ha guztira (baso-azalera ez da onargarria).
- Labore ureztatuen azalera mantentzen duenez, LLLen 15 eskubide eta LULen 65 eskubide dagozkio.

2. Zenbat eskubide, zer motatakoak (Lehorreko Laboretarako Lurrak –LLL– edo Labore Ureztatueterako Lurrak –LUL–) eta zenbatekoak esleituko zaizkio nekazari horri, baldin eta 2015ean 75 ha labore deklaratzeko baditu (75 ha zereal, erremolatxa eta lugorri)? Deklarazioaren barruan hartu da 2013an erremolatxa zuen eta SIGPACean ureztatu gisa jasota zegoen 10 ha-ko azalera.

- Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak 75 dira guztira.
- LLLen eskubideak: 65, eta LULen eskubideak: 10. 2015. urteak markatzen du LLLen eta LULen arteko banaketa

ONARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEAK ESLEITZEKO ADIBIDEAK

Zer gertatzen da 2015ean 2013an baino azalera handiagoa deklaratzeko bada? Hasiere batean, 2015eko eskaeren eta 2013ko eskaeren artean deklaraturako azalera txikienari esleituko zaizkio eskubideak, hau da, bi urte horien artean deklaraturako hektarea kopuru txikienari. Nolanahi ere, 12.2 artikulua ezartzen duenez, 2015ean deklaraturako azalerei banako murrizketa bat aplikatu behar bazaie, 2015ean deklaraturako hektarea bakoitzari murrizketa-ehuneko bat aplikatuko zaio. Eta murrizketa-ehuneko hori lortuko dugu 2015eko hektarea kopurua 2013ko hektarea kopuruaren artean zatituz. Deklaratzaileak 2013an 150 ha deklaratu bazituen eta 2015ean guztira 170 ha.

- 150 eskubide esleituko zaizkio.
- Nekazariak eskubide guztiak (150) eskualde bakarrean deklaratzeko baditu, eskualde horri esleituko zaizkio. Nekazariak zenbait eskualdetan deklaratzeko badu, orduan 150/170 erlazioa hartuko da kontuan eskualde bakoitzari esleitu beharreko hektarea kopurua zehazteko. Hortaz, azkenean 150 eskubide esleituko zaizkio guztira, eta beraz 20 hektareari ez zaio eskubiderik esleituko.

Zer gertatzen da 2015ean 2013an baino azalera txikiagoa deklaratzeko bada?

- Eskubide kopuru bat esleitzen zaio, 2015ean deklaraturako hektarea kopuruarengatik. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da 2015etik 2014ra bitarteko azalera-murrizketak gehienez % 25 izan behar duela, eta gehienez 3.000 €/ha metatu behar direla (baldintza artifizialak sortu litezke).

Nekazari batek larreak deklaratu ditu Ordainketa Bakarreko Eskubideak justifikatzeko, baina azkenik ez du. 2015eko kanpainan, Lehorreko Laboretako Lurretako, Labore Ureztatueterako Lurretako edo Labore Iraunkorretako azalera hautagarrian ba al du bere eskubideak aktibatzeko aukerarik?

- Bai, 2014an jasotako zenbatekoak berriz ere esleitzen zaizkie 2015ean deklaraturako larreez bestelako azalera horiei.

FUNTSAK ESKUALDEEN ARTEAN BANATZEA

Nekazari batek eskualde bateko baino gehiagoko azalera deklaritzen badu (1076/2014 Errege Dekretuaren 4. 2.b artikulua), nekazariak 2014an jasotako guztizko ordainketen zati bat esleitu behar zaio eskualde bakoitzari.

Ministerioaren eta Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsaren arabera, hartzaileen % 40k eskualde batean baino gehiagoan deklaratu du azalera. Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak eredu matematiko bat garatu du, nekazari batek 2014an guztira jasotako ordainketetatik eskualde bakoitzari zenbat esleitu behar zaion zehazteko. Eredu hori ez zaie eskualde bakar batean entregatzen duten hartzaileei aplikatzen. Haien 2015erako eskubideen hasierako balioa kalkulatzeko, guztizko hasierako balioa zatituko da eskualde horretan esleitu zaizkion oinarritzko ordainketarako eskubideen guztizko kopuruaren artean, erreserba nazionaletik esleitutakoak alde batera utzita.

Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak garatutako eredu, lau produkzio-orientazioetan deklaraturako azalaren Azken Nekazaritza Produkzioari egindako ekarpenetan oinarritzen da. Larre iraunkorren kasurako, behi, ardi eta ahuntzen sektoreak jasotako laguntzen % 50aren zenbatekoak batu dira.

Azalera bakoitzari zuzenketa-faktore bat aplikatzen zaio, haren produkzio-orientazioaren arabera.

- Lehorrekoak: 0,54
- Ureztatutako lurak: 1,67
- Labore iraunkorrak: 1
- Larre iraunkorrak: 0,35

FUNTSEN BANAKETARI BURUZKO ADIBIDEA

2014an emakumezko nekazari batek 10.000 € jaso zituen guztira, murrizketak eta eskusioak ezarri baino lehen. Eskatzaile horrek 100 ha deklaratu zituen, 80 ha lehorrekoak (60 ha 8.1 eskualdean eta 20 ha 6.1 eskualdean) eta 20 ha ureztatuak (20.2 eskualdea). Nola banatzen dira zenbatekoak?


1. Hektarea haztatuen kopurua kalkulatu da.
 - Lehorrekoak: $80 \text{ ha} \times 0,54 = 43,2 \text{ ha}$
 - Ureztatuak: $20 \text{ ha} \times 1,67 = 33,4 \text{ ha}$
 - GUZTIRA = $43,2 + 33,4 = 76,6 \text{ ha}$Hektarea haztatu horietatik % 56,4 lehorrekoak dira eta % 43,6 ureztatuak.
2. Funtsak esleitzen dira, azalera haztatuaren eta lurren erabilerean arabera.
 - Lehorrekoak: $10.000 \text{ €} \times 0,564 = 5.640 \text{ €}$
 - Ureztatuak: $10.000 \text{ €} \times 0,436 = 4.360 \text{ €}$
3. Batez besteko zenbatekoen kalkulua, lurren erabilerean arabera.
 - Lehorrekoak: $5.640 \text{ €} / 80 = 70,5 \text{ €/ha}$
 - Ureztatuak: $4.360 \text{ €} / 20 = 218 \text{ €/ha}$
4. Eskubideak eskualdeen artean banatzen dira, eta konbergentziari abiapuntuko zenbatekoa esleitzen zaio.
 - 8.1 eskualdea: $60 \text{ eskubide} \times 70,5 \text{ €/eskubide}$
 - 6.1 eskualdea: $20 \text{ eskubide} \times 70,5 \text{ €/eskubide}$
 - 20.2 eskualdea: $20 \text{ eskubide} \times 218 \text{ €/eskubide}$

4.7. Zer da konbergentzia?

2015etik 2018ra bitarte nekazari bakoitzaren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balioa, Erreserba Nazionaletik esleitutakoak alde batera utzita, eskubide horiek esleitu zaizkion Eskualdearen Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen batez besteko baliora poliki-poliki hurbiltzea da konbergentzia, funtsean.

2015. urtetik abiatuta nekazari bakoitzaren oinarrizko ordainketarako eskubideen balioari konbergentzia aplikatuko zaio 2019ko eskualdeko balio unitarioa hurbiltzeko, honako printzipio hauetan oinarrituta: Oinarrizko ordainketarako eskubideen hasierako balio unitarioa 2019ko azken balio unitarioa igarotzeko prozesua 5 etapa berdinetan egingo da, 2015ean hasita.

- 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 90aren azpiko hasierako balio unitarioa duten oinarrizko ordainketarako eskubideak igo egingo dira 2019ko eskaera-urterako, hasierako balio unitarioaren eta 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 90aren arteko aldearen herenean.
- Eskualdearen batez besteko balioaren % 90etik beherako hasierako balioa duten oinarrizko ordainketarako eskubideen balioaren igoeretatik eratorritako guztizko kopurua finantzatuko da eskualdearen batez besteko baliotik gorako hasierako balio unitarioa dutenak behar bezala murriztuz.
- Nolanahi ere, hasierako balio unitarioa 2019ko eskualdeko batez besteko balioa baino handiagoa duten oinarrizko ordainketarako eskubideen hasierako balio unitarioaren gehieneko murrizketa % 30 izango da.
- Oinarrizko ordainketarako eskubide baten balio unitarioa ezin izango da 2019ko eskualde-balio unitarioaren ehuneko 60 baino txikiagoa izan, salbu eta horrek dakarren gehieneko murrizketak, ehunekotan, aurreko atalean deskribatutako murrizketaren gehieneko atalase-maila gainditzen badu. Kasu horietan, gutxieneko balio unitarioa atalase-maila hori errespetatzeko beharrezko maila izango da.



KONBERGENTZIA NEGATIBOAREN ADIBIDEA

Nola aplikatuko litzateke Gipuzkoako abeltzain baten konbergentzia baldin eta 2015ean larreak baino ez baditu deklaratu, eta haren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balio unitarioa 250,80 € bada? Nekazari horrek Gipuzkoan bakarrik deklaratu zuen larre-azlerra, 8. Eskualdearen barruan.

Onuradunaren Oinarrizko Ordainketarako Eskubidearen hasierako balioa= 250,8 €

8. Eskualdearen batez besteko zenbatekoa = 150,8 €

Abeltzain horren balioak Eskualdearen batezbestekoa gainditzen du, eta horregatik haren eskubideak murriztu egingo dira eskubideen balioa igo behar dutenei onura emateko. Demagun eskualdearen batez besteko balioaren gainean murriztu beharreko ehunekoa % 25 dela.

Hortaz, bost urteetan $(250,8 - 150,8) \times 0,25 = 25,0$ € zuzendu behar du, edo 5,0 € urte bakoitzean. 2019an, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balioa honako hau izango da: $250,8 - 225,8$ €

Hortaz, urte bakoitzean, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balio unitarioa honako hau izango da:

$$2015 = 250,8 - 5,0 = 245,8$$

$$2016 = 245,8 - 5,0 = 240,8$$

$$2017 = 240,8 - 5,0 = 235,8$$

$$2018 = 235,8 - 5,0 = 230,8$$

$$2019 = 230,8 - 5,0 = 225,8$$

KONBERGENTZIA POSITIBOAREN ADIBIDEA

Nola aplikatuko litzateke Arabako Kantauriar eskualdeko abeltzain baten konbergentzia baldin eta 2015ean larreak baino ez baditu deklaratu, eta haren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen hasierako balio unitarioa 62,0 € bada? Nekazari horrek Arabako Kantauriar eskualdean bakarrik deklaratu du larre-azalera, 4. Eskualdearen barruan.

Onuradunaren Oinarrizko Ordainketarako Eskubidearen hasierako balioa= 62,0 €

4. Eskualdearen batez besteko zenbatekoa = 90,2 €

Abeltzain horren balioa Eskualdearen batez besteko balioaren % 60tik % 90era bitarte dabil, eta beraz, bost urteetan, Eskualdearen balioaren % 90aren eta bere balioaren arteko aldearen herena zuzendu behar du.

Eskualdearen batez besteko balioaren % 90 honako hau da: $90,2 \times 0,9 = 81,18$ €

Hortaz, bost urteetan $(81,18 \text{ €} - 62 \text{ €}) / 3 = 6,393$ € zuzendu behar du, edo 1,2787 € urte bakoitzean. 2019an, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balioa honako hau izango da: $62,0 / 6,393 = \% 15$

Hortaz, urte bakoitzean, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen balio unitarioa honako hau izango da:

$$2015 = 62,00 + 1,2786 = 63,29$$

$$2016 = 63,29 + 1,2786 = 64,55$$

$$2017 = 64,55 + 1,2786 = 65,84$$

$$2018 = 65,84 + 1,2786 = 67,11$$

$$2019 = 67,11 + 1,2786 = 68,39$$

4.8. Noiz aplikatzen da ustekabeko onuraren klausula? Zer eragin dauka?

Ustekabeko onuraren klausula behean adierazitako kasuetan aplikatzen da. 2014ko maiatzaren 16tik aurrera ustiatagia, osorik edo zatika, eskualdatzen denean aplikatzen da, baldin eta dagokion onuradunari esleitu beharreko eskubideen balioa badakar, lagapen horren ondorioz 2015ean deklaraturako ustiategiaren azalera onargarria aldatu delako 2014an deklaraturakoaren aldean:

- a) Lurrak salerosten direnean saltzailea eroslearekin kontratu-klausuraren sinadura adostu gabe, eta saldutako hektareak antzeko hektarea kopuru batekin ordeztu gabe 2015eko eskaera bakarrari dagokion deklarazioan, eta, horren ondorioz, 2015ean deklaraturako ustiategiaren azalera onargarria, 2014an deklaraturakoaren aldean, ehuneko 25etik gora murriztu bada, baldin eta aldakuntza hori 2 hektareatik gorakoa bada.

2014ko maiatzaren 16tik aurrera lurrak salerosten direnean, alokairuak amaitzen direnean edota alokairuak adosten direnean, dagozkien ordainketarako eskubideak lagatzeko kontratu-klausula gauzatzen ez bada, eta horren ondorioz, 2015ean deklaraturako azalera onargarriaren murrizketa, 2014an deklaraturakoaren aldean, % 25 baino handiagoa bada, ustekabeko onuraren klausula aplikatzen da. Eskubideen baliorako kalkulaturako igoera Erreserba Nazionalean sartuko da.

- b) Lurrak salerosten direnean saltzailea eroslearekin kontratu-klausuraren sinadura adostu gabe, eta saldutako hektareak antzeko hektarea kopuru batekin ordeztu gabe 2015eko eskaera bakarrari dagokion deklarazioan, eta, horren ondorioz, 2015ean deklaraturako ustiategiaren azalera onargarria, 2014an deklaraturakoaren aldean, ehuneko 25etik gora murriztu bada, baldin eta aldakuntza hori 2 hektareatik gorakoa bada.
- c) Lurrak salerosten direnean saltzailea eroslearekin kontratu-klausuraren sinadura adostu gabe, eta saldutako hektareak antzeko hektarea kopuru batekin ordeztu gabe 2015eko eskaera bakarrari dagokion deklarazioan, eta, horren ondorioz, 2015ean deklaraturako ustiategiaren azalera onargarria, 2014an deklaraturakoaren aldean, ehuneko 25etik gora murriztu bada, baldin eta aldakuntza hori 2 hektareatik gorakoa bada.

Nolanahi ere, ustekabeko onura ez da aplikatuko larreak (herri-lurrak esaterako) lagatzeko eta errentan emateko prozeduretatik eratorritako azalaren deklarazioan gertaturako aldaketetan, edo larreen onargarritasun-koefizientea aldatzean.

Salerosketaren, alokairu-amaieraren edo lur-alokairuaren ondorengo eskubideen balioaren eta salerosketa, alokairu-amaiera edo lur-alokairua gauzatu ez balitz edukiko zuketzen balio teorikoaren arteko aldearen arabera zehaztuko da ordainketarako eskubideen balioaren igoera. Kalkulaturako igoera erreserba nazionalean sartuko da.

4.9. Noiz esaten da baldintza artifizialak sortu direla? Zer eragin dauka?

Frogatzen bada onuradun batek oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitzeko baldintza artifizialak sortu dituela, oinarrizko ordainketarako eskubiderik ez zaio esleitu edo esleipen hori mugatu egingo zaio.

Jarraian, espekulatzekoak izan daitezkeen eragiketak zerrendatuko ditugu, kasuan kasu aztertuko direnak oinarrizko ordainketarako eskubideen esleipena erregelamenduaren aurka jaso ahal izateko baldintza artifizialak sortu ote diren argitzeko:

- a) Inolako enpresa-xederik egiaztatu gabe, 2013ko eskaera bakarrean deklaraturako ustiategiaren azalera artifizialki handitzeko helburu bakarrarekin, 2011ko urriaren 18az geroztik egindako azalera onargarrien erosketa edo alokairua. Baldintza artifizialak sortzen dira baldin eta azalaren igoera, 2011ren aldean, % 25etik eta 40 ha-tik gorakoa bada. Kasu horietan, eskubideak esleitzeko azalera onargarria 2011. urtean deklaraturakora mugatuko da.
- b) 2014ko lagapen-kanpainan lurrik gabeko ordainketa bakarreko eskubideak erostea, oinarrizko ordainketarako geroko eskubideen balioa igotzeko helburu bakarrarekin, esleitu beharreko oinarrizko ordainketarako eskubideen zenbateko unitarioak hektareako 3.000 eurotik gorako hasierako balioa gaintzen badu, eta, horrez gain, desoreka handia sortzen bada eroslearen alde aurreko ordainketa bakarreko eskubideen aldean eta eskubide berriak esleitu zaizkion eskualdearen balio unitarioaren aldean. Kasu horietan, esleitutako oinarrizko ordainketarako eskubideen balio unitarioa gehienez 3.000 euro izango da.
- c) 2015ean deklaraturako hektareen murrizketa artifizialaren ondorioz eskubideen balio unitarioa neurrigabe igo izanaren eraginez zenbatekoak metatzea, esleitu beharreko oinarrizko ordainketarako eskubideen balio unitarioa hektareako 3000 euroko hasierako baliotik gorakoa izanik, eta, horrez gain, desoreka handia sortzen bada eroslearen alde aurreko ordainketa bakarreko eskubideen aldean, betiere Ustekabeko Onuraren klausula aplikatzekoa ez bada. Kasu horietan, esleitutako oinarrizko ordainketarako eskubideen balio unitarioa gehienez 3.000 euro izango da.
- d) Goranzko konbergentzia artifiziala bilatzea 2014an lurrik gabeko ordainketa bakarreko eskubideak salduz, eta horren ondorioz, esleitu beharreko oinarrizko ordainketarako eskubideen hasierako balio unitarioa eskualdearen batezbestekoaren ehuneko 60 baino txikiagoa bada, eta, oinarrizko ordainketarako eskubideen konbergentzia-prozesuaren bitartez, eskubideen salmentarekin lortutako onura handitzen bada. Kasu horietan konbergentzia hori ez da aplikatuko.
- e) 2013an horrelakorik ez edukitzeagatik, 2014an edo 2015ean Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean erregistratzea lortzea abere-jarduerarik justifikatu gabe, nekazari aktiboaren betekizunak betetzeko asmo bakarrarekin. Kasu horietan, eskaera bakarrean deklaraturako larre-azalaren gainean ez da eskubiderik esleitu.
- f) Araudia betetzeko baldintza artifizialak betetzea nekazari aktiboaren eta nekazaritza-jardueraren definiziotik eratorritako betekizunei dagokienez. Kasu horietan, betekizun horiek ez betetzearekin zerikusirik ez duten azalaren gainean ez da eskubiderik esleitu.
- g) Nekazari gazteak, artifizialki, nortasun juridikoa duten nekazaritza-enpresetako bazkide egitea, enpresa horiek kualifikatzeko helburu bakarrarekin, eta, horri esker,

erreserba nazionalaren eskubideak eta nekazari gazteentzako ordainketa jasotzeko lehentasuna izateko. Kasu horretan ez da eskubiderik esleituko.

- h) Esleitutako oinarritzko ordainketarako eskubideak artifizialki lortzeko edo igotzeko helburua duen beste edozein jarduera, baita nekazari batek neurrigabeko onurak lortu ditzakeenean ere, batetik, datu historikoetan oinarrituta, zenbatekoak deklaraturako azalerei dagozkien eskualdeen artean banatzeagatik, eta, bestetik, konbergentzia-prozesuaren ondorioz gehiegizko mozkinak edukitzeagatik.

GALDERAK

Nola har dezake parte Oinarritzko Ordainketarako Erregimenean lanean hasten den gazte batek?

- Erreserba nazionalaren bidez.
- Beste nekazari batzuen eskubideak eskualdatuz (salerosketak, alokairuak, herentziak eta abar).

BEHIN-BEHINER

4. OINARRIZKO ORDAINKETAREN ERREGIMENA

5.1. Nork jaso dezake oinarrizko ordainketaren erregimenari dagokion ordainketa?

Oinarrizko ordainketa jasotzeko eskubidea izateko, nekazariak

- a) Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak eduki behar dituzte, jabetza-, gozamen- edo alokairu-erregimenean.
- b) Eskaera bakarria aurkeztu behar dute, ordainketa jasotzeko baliatu nahi diren Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak barne.

Laguntza-eskubideak esleitu diren eskualdean aktibatu ahal izango dira soilik, eskaera bakarria aurkezteko mugaegunean eskuragarri dauzkan nekazariaren eskutik, edo lagapen bidez edo eskubide berriak esleituta egun horrez geroztik jasotzen dituen nekazariaren eskutik. Salbuespenez, 2015. urteari dagokion eskaera bakarria aurkezteko aldia, esleitutako oinarrizko ordainketarako eskubideen berri ez duen nekazariak eskaeran adieraziko du kanpaina horretan esleitutako eskubide guztiengatik ordainketa eskatzen duela.

- c) Hektarea onargarri batekin justifikatu behar dute eskatutako ordainketarekin zerikusia duen laguntza-eskubide bakoitzeko.

Eskubide bakoitza eskualde jakin bati esleitu zaio 2015ean, eta eskualde horretan bakarrik aktibatu daiteke.

**Oinarrizko
Ordainketa jaso
ahal izateko
gutxieneko muga
0,2 ha da.**

5.2. Zer azaleraren gainean aktibatu daitezke Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak?

Oinarrizko ordainketarako eskubideen aktibazio-xedeetarako, hektarea onargarriak izango dira ustiatetik nekazaritza-azalerak, txandaketa laburreko baso-landareekin landatutako azalerak barne, nekazaritzarako erabiltzen direnak zein, nekazaritza bestelako jardueretarako ere erabiltzen badira ere, nagusiki nekazaritzarako erabiltzen direnak. Ustiategi bateko nekazaritza-azalera bat nekazaritzakoak ez diren beste jarduera batzuetarako ere erabiltzen bada, bereziki nekazaritzarako erabiltzen dela hartuko da aintzat baldin eta nekazaritzakoak ez diren jardueren intentsitateak, izaerak, iraupenak edo egutegiak nekazaritza-jarduera nabarmen oztopatzen ez badute.

Laguntza-eskubideak justifikatzeko erabilitako hektarea onargarrien nekazaritza-lurzatiak nekazariaren eskura egongo dira, jabetza-, gozamen- edo alokairu-erregimenean, edo herri-ondasun bat kudeatzen duen herri-agintari batek esleituta, laguntza eskatzen den urteko maiatzaren 31n.

Onargarritzat jotzen dira, halaber, 2008an Ordainketa Bakarreko Eskubideak justifikatzeko erabilitako azalera eta paisaiaren elementu jakin batzuk, dagoeneko onargarri ez direnak Uraren Esparru Zuzentaraua, basa-hegaztiak kontserbatzeko Zuzentaraua edo habitat naturalak eta basa-fauna eta -loreak kontserbatzeko Zuzentaraua aplikatu ondoren; Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsaren eskura basotutako azalera jakin batzuk, eta nekazaritza- eta ingurumen-neurriak direla medio produktioetik kanpo utzitako azalerak.

Larren onargarritasun-koefizientea kontuan hartzekoa da; beraz, larre iraunkorren esparru baten gehieneko azalera onargarria esparruaren guztizko azalera izango da, koefiziente horrez biderkatuta.

5.3. Laguntza-eskubideak aktibatzea

Laguntza-eskubide aktibatuak izango dira 2015ean esleitu zitzaizkion eskualdean justifikatuta daudenak eskaera bakarrean.

Laguntza-eskubideak aktibatu ahal izateko, lehenik eta behin zenbateko handieneko laguntza-eskubideak baliatu direla hartuko da aintzat. Balio berdina duten laguntza-eskubideen artean, erabilera erabakiko da zenbaki-ordenaren arabera.

Nekazariak aktibatu daitezkeen laguntza-eskubide oso guztiak aktibatu ostean, hektarea zati bat adierazten duen nekazaritza-lurzatiari lotutako laguntza-eskubidea erabili behar duenean, azkeneko laguntza-eskubide horrek nekazaritza-lurzatiaren tamainarekiko proportzionalki kalkulaturako laguntza jasotzeko legitimatuko du, eta oso-osorik erabilia dagoela ulertuko da.

Bi urtez segidan Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak erabiltzen ez badira, Erreserba Nazionalari eskualdatuko zaizkio.

Oinarrizko ordainketarako eskubideengatik laguntza-eskatzaile batek bi urtez segidan eskubiderik aktibatzen ez badu, eskubide horiek Erreserba Nazionalari eskualdatuko zaizkio.

5.4. Erretiratuak ordainketa zuzenen onuradun izan al daitezke?

Erretiratuak nekazaritzan jardun dezakete eta NPB jaso Gizarte Segurantzaren araudiak ezarritako muga barruan.

5. KLIMAREN ETA INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ONURAGARRIAK DIREN NEKAZARITZA JARDUERETARAKO ORDAINKETA (OSAGAI BERDEA EDO GREENINGa)

6.1. Nork jaso dezake osagai berdea edo greeninga?

Nekazariak, beren hektarea onargarri guztietan, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren jarduerak errespetatzen badituzte beren ustiategiaren ezaugarrien arabera, oinarritzko ordainketarako eskubide batekin lotutako hektarea onargarri bakoitzeko urteko ordainketa bat jasotzeko eskubidea izango dute.

Greeninga ez da hautazkoa. Nahitaezkoa da ustiategiko hektarea onargarri guztien gainean

Produkzio ekologikoan diharduten nekazariak ordainketa berderako edo greeningerako eskubidea izango dute ustiategi barruan ekologikoan produzitzen duten unitate guztietan.

Nekazari batek zati bat ekologikoan badu, ekologikoan duen zatiaren greeninga ez betetzeko onura ez hartzeko hautatu dezake.

Ustiategi oso edo zati bat Uraren Esparru Zuzentaruak, basa-hegaztiak kontserbatzeko Zuzentaruak edo habitat naturalak eta basa-fauna eta -loreak kontserbatzeko Zuzentaruak estalitako eremuetan duten nekazariak jarduera horiek errespetatu beharko dituzte Zuzentarau horien helburuekin bateragarri diren neurrian.

6.2. Zenbatekoa da osagai berdeagatik edo greeningagatik ordaintzen dena?

Nekazari bakoitzari dagokion ordainketaren zenbatekoa kalkulatzeko, nekazari bakoitzak urte bakoitzean aktibatutako oinarritzko ordainketarako eskubideen guztizko balioaren ehuneko bat kalkulatu da (gutxi gorabehera, Oinarritzko Ordainketaren guztizko balioaren % 52 da).

Arabako Lautadako Oinarritzko Ordainketarako Eskubideen titular batek zuhaixkadun larreen azalera deklaratu du. Titular hori ez dago Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean jasota, eta beraz ez du oinarritzko ordainketa jasotzen azalera horrengatik. Klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza-jarduerak bete behar ditu larre horietan?

Bai, greeningak hektarea onargarri guztiei eragiten die, ordainketak jaso edo ez

6.3. Zer jarduera egin behar da osagai berdea edo greeninga kobratzeko?

Ordainketa hori jasotzeko, nekazariak klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarri diren honako nekazaritza-jarduera hauek errespetatu beharko dituzte, ustiategiaren ezaugarrien arabera:

- a) Larreen dibertsifikazioa;
- b) Lehendik dauden larre iraunkorrak mantentzea; eta

ADI! Hiru jarduerak bete behar dira, ustiategiaren ezaugarrien arabera.

- c) Ustiategian interes ekologikoa duten azalerak edukitzea.

Labore iraunkorretarako azaleretan ez da aipatutako jarduerarik aplikatu beharrik izango.

Nekazari batek zati bat ekologikoan badu, ekologikoan duen zatiaren greeninga ez betetzeko onura ez hartzeko hautatu dezake.

Kasu horretan, ustiategi osoaren greeninga bete beharko du

Greeninga aplikatzen ez bada, laguntzaren murrizketa aplikatzen da. Zigorra handia bada, Oinarrizko Ordainketari ere aplikatu dakioke, muga batzuen barruan.

6.4. Nola betetzen da laboreen dibertsifikazioa?

Laboreen dibertsifikazioa betetzeko, nekazariak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Ustiategiko labore-lurrak 10-30 hektarea estaltzen baditu, gutxienez bi labore mota landu behar ditu labore-lur horretan, eta labore nagusiak ezin dezake labore-lur horren % 75etik gora hartu; edo
- Ustiategiko labore-lurrak 30 hektarea baino gehiago estaltzen baditu, gutxienez hiru labore mota landu behar ditu labore-lur horretan, eta labore nagusiak ezin dezake labore-lur horren % 75etik gora hartu, eta bi nagusiek batera %95etik gora ere ez.

Nolanahi ere, aurreko bi puntu horiek ez dira aplikatu beharko

- Labore-lurrak urpeko laboreetarako soilik erabiltzen bada urteko edo laborantza-zikloko tarte esanguratsu batean.
- Labore-lurren % 75 baino gehiago belarra edo bestelako bazkak sortzeko erabiltzen bada, edo lugorria bada, edo aldi berean bi erabilera horiek baditu, betiere erabilera horien eraginpean ez dagoen gainerako labore-lurrak gehienez 30 ha-ko azalera badu.
- Nekazaritza-azalera onargarriaren % 75etik gora larre iraunkorretarako edo belarra edo bestelako belar-bazkak edo urpeko laboreak sortzeko erabiltzen bada urteko tarte esanguratsu batean, edo bi erabilera horiek konbinatzen baditu, erabilera horien eraginpeko gainerako labore-lurrak, gehienez, 30 ha-ko azalera badu.
- Aurreko urtean nekazariak labore-lurraren % 50etik gora deklaratu ez badu, eta, bi urteetako laguntza-eskaerei dagozkien irudi geoespazialeetan oinarrituta, labore lurrak beste labore batzuetarako erabiltzen badira, aurreko urtekoekin alderatuta.

Ez dira aplikatuko, halaber, labore-lurren % 75etik gora belarrez, bestelako bazkaz edo lugorritz estalita badago. Kasu horretan, gainerako labore-lurraren labore nagusiak gehienez gainerako labore-lur horren % 75 estaliko du, salbu eta belarrez, bestelako belar-bazkaz edo lugorritz estalita badago.

Laboreak dira:

Lurzatiak urtean behin kontabilizatzen dira bakarrik, eta labore nagusia baino ez da kontuan hartzen (neguko laboreetarako abendutik martxora bitarte, eta udaberriko laboreetarako maiatzetik irailera bitarte, hurrenez hurren).

- a) Saillkapen botanikoan zehaztutako edozein generotako laboreak. (Garia, garagarra eta oloa, zerealak izaki, genero desberdinetakoak dira).
- b) Brassicaceae (azalorea, aza eta brokolia), Solanaceae (patata eta tomatea) eta Cucurbitaceae (meloia eta angurria) familietako edozein espezieetako laboreak.
- c) Lugorriak
- d) Belarra edo bestelako belar-bazkak

Belarra eta bestelako belar-bazkak goldatzeko moduko lur gisa jasota daude SIGPAC sisteman. Honako labore hauekin dute zerikusia: 5 urtetik beherako larreak, festuca, lollobelarra, agrostis, arrhenatherum, alka-belarra, pleotza, poa, hirusta eta belardiko espezieetako labore mistoak

(Ikusi I. eranskina: Produktuen kodifikazioa)

Gainera:

- e) Neguko eta udaberriko laboreak labore desberdintzat hartuko dira genero berekoak izan arren, baita aurrekoen desberdina izaki, labore desberdina den beste edozein genero edo espezie mota ere, etorkizunean zuzenean aplikatzekoa izango den erkidegoko araudiak esanbidez hori ezarri badu.
- f) Ilarako labore mistoak dauzkaten azaleretan, labore bakoitza labore desberdintzat hartuko da baldin eta, gutxienez, azalera horren % 25 bada. Kasu horretan, labore bakoitzak estalitako azalera kalkulatzeko, labore mistoetarako guztizko azalera zatitu egingo da azalera horren gutxienez % 25 estaltzen duten laboreen kopuruaren artean, labore bakoitzaren benetako proportzioa edozein izanik ere.
- g) Labore nagusiak eta bigarren mailako laboreak tartekatuta dauden azaleretan, azalera hori labore nagusiak soilik estaltzen duela hartuko da aintzat.
- h) Hazi-nahasketa eriteko erabiltzen diren azalera "labore mistoa" izeneko labore bakar batez estalita daudela hartuko da aintzat, nahasketa osatzeko erabili diren labore espezifikoak edozein izanik ere.

Betetze horrek ez du zerikusirik labore-txandakatze soilarekin, ustiategiaren tamainaren arabera labore desberdinak haztearekin baizik

Gainera, esparruak urtean behin bakarrik kontabilizatu daitezke urte eta eskaera bakoitzeko, labore desberdinen ehunekoak kalkulatzeko. Lurzatiak urtean behin kontabilizatzen dira bakarrik, eta labore nagusia baino ez da kontuan hartzen (neguko laboreetarako abendutik martxora bitarte, eta udaberriko laboreetarako maiatzetik

irailera bitarte, hurrenez hurren).

Udaberriko laboreetarako bakar-bakarrik eskatuko da laboreak bi hilabete segidan esparruan egotea, aldeztu aurretik adierazitako hilabeteak aintzat hartuta. Nolanahi ere, autonomia-erkidegoek aldi horiek doitzeko aukera izango dute, baldin eta laboreen ziklo begetatiboa dela-eta baldintza hori betetzea ezinezkoa bada, eskualdeko ezaugarri agronomikoak edo agroklimatikoak direla medio. Nolanahi ere, deklaraturako SIGPAC esparru bakoitza behin bakarrik kontabilizatuko da eskaera-urte bakoitzeko, labore desberdinen ehunekoak kalkulatzeko.

6.5. Nola betetzen da jada existitzen diren larre iraunkorren zaintza?

Ingurumenaren ikuspegitik kalteberak diren larre iraunkorrak

Larreak behar bezala mantentzeko, lehenik eta behin ingurumenaren ikuspegitik kaltebera diren larre iraunkorrak bereizi behar dira, Habitaten Zuzentzarua eta Hegaztien Zuzentzaruetan bildutako eremuetan kokatutakoak, eremu horietako urtegi eta hezeguneak barne. Eremu horietako lurra ezin izango da birmoldatu edo landu, eta zaintza-lanek aparteko lanik ez da egingo bertan. Azalera horiek guztiak SIGPAC sisteman identifikatuta egongo dira.

Betetzen ez badu, nekazariak azalera iraunkor hori larre iraunkor bihurtu beharko du nahitaez, eta, eskumeneko Administrazioak hori erabakitzen badu, Administrazio horrek ezarritako jarraibideak errespetatu beharko ditu, ekintza horren eraginez ingurumenari eragindako kalteak nolabait ordaintzeko.

Agintari eskudunak ebatziko du birmoldaketa hori egin beharra eta betebeharrak betetzeko mugaeguna, baina nolana ere, beranduenez, ez-betetzearen jakinarazpenaren urtearen ondorengo urterako eskaera bakarria aurkezteko mugaeguna izango da.

Birmoldatutako azalera larre iraunkortzat hartuko dira birmoldaketaren egunetik.

Erreferentziazko proportzioa eta larre iraunkorren urteko proportzioa kalkulatzeko

Larre iraunkorren erreferentziazko proportzioa eta urteko proportzioa mantentzeko dagokionez, 2015ean kalkulua estatuan egin da, lehenik eta behin 2012an deklaratu ziren larre iraunkorretarako azalera eta 2015ean deklaraturakoak (2012an deklaratu ez zirenak) batuz, eta ondoren batura hori 2015ean guztira deklaraturako nekazaritza-azalerekin lotuz.

Gainera, estatu-mailan urtean behin kalkulatu da larre iraunkorretarako azalaren proportzioa, nekazariak guztira deklaraturako nekazaritza-azalari dagokionez.

Larre iraunkorretarako deklaraturako azalera

Guztira deklaraturako nekazaritza-azalera

Nolana ere, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza-jarduerak errespetatu behar dituzten nekazariak deklaraturako azalera bakarrik hartuko dira kontuan. Bereziki, honako azalera hauek ez dira kontuan hartuko:

- a) Nekazari txikien erregimenean parte hartzen duten nekazariak deklaraturakoak;
- b) Ustiategi batean produkzio ekologikorako erabilitako unitateak;

Estatuan kalkulaturako larre iraunkorren urteko proportzioa gutxienez % 5 izango da ezarritako erreferentziazko proportzioaren aldean. Nolanahi ere, termino absolututan, urte jakin batean larre iraunkorretarako erabilitako azalera, ezarritakoaren % 0,5etik gora jaisten ez bada, larre iraunkorren proportzioa mantentzeko betebeharrak beteta dagoela hartuko da aintzat.

Estatuan egiaztatzen bada aldakuntzak ezarritakoa gaintzen duela, eta larre iraunkorrak beste erabilera batzuetarako

Ildo-bizkarrak eta egiturazko elementuak mantendu behar dira:

- **Larreak greeningarengatik**
- **Egiturazko elementuak baldintzapekotatasunarengatik**

birmoldatu direla, birmoldaketa horien ardura duten nekazariak larre iraunkor bihurtu beharko dituzte azalera horiek.

Aurreko bi urte naturaletan, edo, 2015. urterako, aurreko hiru urte naturaletan aurkeztutako eskaeretan oinarritzat hartuta, labore iraunkorrak beste zeregin batzuetarako erabilitako nekazaritza-azalera dauzkaten nekazariak behartuta egongo dira birmoldaketa hori egitera.

Birmoldaketara behartutako nekazariak, azalera horien ehuneko bat, aldez aurretik ebaziko dena, larre iraunkor bihurtuko dute, edo bestela ehuneko horren baliokidea den beste azalera bat larre iraunkor bihurtu beharko dute.

Agintari eskudunek nekazariari banan-banan jakinaraziko dizkiete lurak birmoldatu beharra eta larre iraunkorrak beste erabilera batzuetara bideratzeko beste ekimen batzuk saihesteko arauak, estatuan % 5aren azpiko murrizketa ebazten den urteko abenduaren 31 baino lehen. Hurrengo urteko eskaera bakarra aurkezteko mugaeguna baino lehen egin beharko da birmoldaketa.

Birmoldatutako azalera larre iraunkortzat hartuko dira birmoldaketaren lehen egunetik, eta gutxienez bost urtez jarraian, belarrak edo bestelako belar-bazkak hazteko erabiliko dira. Nolanahi ere, birmoldaketa horretara behartutako nekazariak, dagoeneko belarrak eta bestelako belar-bazkak hazteko darabiltzaten azalera baliatu ahal izango dituzte betekizun hori betetzeko.

6.6. Nola betetzen da interes ekologikoko azalera edukitzea?

Ustiatégian interes ekologikoko azalera edukitzeko jardura betetzeko, nekazariak zera bermatuko du, ustiatégiko labore-lurak 15 ha baino gehiago hartzen baditu, labore-lur horren gutxienez % 5 (gehi Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsaren konturako Landa Garapenerako Laguntza Programak babestutako azalera basotua) interes ekologikoko azalera dela.

Honako hauek izango dira interes ekologikoko azalera:

- a) Lugoerriak
- b) Nitrogenoa finkatzeko laboretarako azalera
- c) NBFEF (Landa Garapena) funtsak babestutako azalera basotua.
- d) Nekazaritza eta basogintzarako azalera (1305/2013 Erregelamenduaren 23. artikulua, edo 1698/2005 Erregelamenduaren 44. artikulua).

Nekazariak 15 ha labore-lur baino gehiago deklaritzen badu, azalaren gutxienez % 5 lugoerria izango da, edo % 7,1 nitrogenoa finkatzeko laboreak

Interes ekologikoko azalerek (basotua izan ezik) ustiatégiko labore-lurretan egon beharko dute. Gainera, esparruak urtean behin kontabilizatzen dira bakarrik, urte eta eskaera bakoitzeko.

Nolanahi ere, ez da aplikatzekoa izango:

- a) Labore-lurren % 75 baino gehiago belarra edo bestelako bazkak sortzeko erabiltzen bada, edo lugoerria bada, edo aldi berean bi erabilera horiek baditu, betiere erabilera

horien eraginpean ez dagoen gainerako labore-lurrak gehienez 30 ha-ko azalera badu.

- b) Nekazaritza-azalera onargarriaren % 75etik gora larre iraunkorretarako edo belarra edo bestelako belar-bazkak edu urpeko laboreak sortzeko erabiltzen bada urteko tarte esanguratsu batean, edo bi erabilera horiek konbinatzen baditu, erabilera horien eraginpeko gainerako labore-lurrak, gehienez, 30 ha-ko azalera badu.

Interes ekologikoko azaleren kategoria bakoitzerako zenbatu beharreko hektareak neurtzeko, honako haztapan-faktore hauek erabiliko dira:

Azalera mota (m2)	Haztapan faktorea	Interes ekologikoko azalera
Lugorriak	1	1
Nitrogenoa finkatzeko laboreak dauzkaten azalera	0,7	0,7
NBBEF (Landa Garapena) funtsak babestutako azalera basotuak.	1	1
Nekazaritza eta basogintzarako azalera	1	1

Interes ekologikoko azalerek bete beharreko baldintzak:

- a) Lugorriak (*Ikus I. Eranskina: Produktuen kodifikazioa*): ezin izango dira nekazaritza-produkzioarako erabili gutxienez bederatzi hilabetez segidan aurreko uztaz geroztik, eta eskaeraren aurreko urteko urritik eskaera-urteko irailera bitarteko aldi. Gainera, lugorri gisa deklaratu beharko da.

Halaber, 2016tik aurrera, interes ekologikokotzat zenbatu nahi diren lugorri-azalaretan ezinezkoa izango da nitrogenoa finkatzen duten laboreak hazi izana aurreko urteari dagokion laguntza-eskaeran.

Lugorriak (m2): Haztapan-faktorea: 1;

Interes ekologikoko azalera 1 m2

Lugorriak interes ekologikoko azalertzat hartu ahal izateko, LARRATZEA DEBEKATUTA EGONGO DA ezarritako 9 hilabeteko aldi. Nolanahi ere, belarra aprobetxatu ahal izango da 9 hilabeteko aldi hori igaro eta gero

- b) Nitrogenoa finkatzen duten laboreak (*Ikus I. Eranskina: Produktuen kodifikazioa*)

Gizaki edo animalien kontsumorako honako lekadun espezie hauek hazteko erabiltzen diren azalera interes ekologikokotzat hartuko dira: babarrunak, txixirioak, dilistak, ilarrak, babak, lupinua, algarrobo-lekak, titarroak, almortak, txirta, eruak, aihorbea, zalkea, aixkola, alpapa, astorkia, zulla.

Ingurumenari ahalik eta onurarik handiena emateko, labore horiek lurrean jarraituko dute:

- Aleak esne-itxurako heldutasuna lortu arte, aletarako aprobetxatzen bada.

- Loratzen hasi arte, baldin eta urteko bazkarako edo berderako aprobetxatzen bada.
- Urte osoan urte anitzeko bazka-lekadunen kasuan, ezarpenaren urtean eta laborea altxatzen den urtean izan ezik.

Debekatuta daude nitrogenoa finkatzen duten laboreen barruko nahasketak (txirta-oloa adibidez)

Gainera, ustiategiko laboreak txandakatzean, nitrogeno-premia duen laboreen bat landatuko da jarraian, eta ezin izango da lugorririk utzi. 2016ari dagokion eskaera bakarretik aurrera, interes ekologikoko gisa kontabilizatu nahi diren nitrogenoa finkatzeko laboreen azaleretarako ezinezkoa izango da aurreko urtean nitrogenoa finkatzeko beste laborerik hazi izana, urte anitzeko bazka-lekadunak izan ezik, laborantza-zikloak dirauen bitartean

N finkatzen duten laboreen azalera (m²): Haztapan-faktorea: 0,7;
Interes ekologikoko azalera: 0,7 m²

Gogoratu labore-lurra zer den: lehorreko edo ureztatutako belar-laboreek hartutako labore-lurra, normalean urteroko uzta izaten duena, edo landu gabe uzten dena (lugorria)

ADIBIDEA:

Nekazari bat hurrengo urteko ereingaraiak planifikatzen ari da. 55 ha-ko labore-lurrak dauzka Aurreikusita dauka 28 ha gari, 15 ha olo, 10,25 ha patata eta 1,75 ha Arabako babarrun pikarta ereitea eta 1 ha lugorri uztea. Greeninga betetzen al du?

Laboreak dibertsifikatzeko irizpideari dagokionez, 30 ha labore-lur baino gehiago erein duenez, gutxienez 3 labore eduki behar ditu, toki handiena hartzen duenak gehienez labore-lurraren % 75 hartu dezake, eta bi labore nagusien artean gehienez labore-azalera osoaren % 95. Nekazari horrek 5 labore desberdin ereitea aurreikusi du. Labore nagusia garia da, azalera osoaren % 50,9 izanik, eta bi nagusien artean (garia eta garagarra) % 78 dira guztira. Hortaz, irizpide hori betetzen du.

Interes ekologikoko azalera edukitzeko irizpideari dagokionez, 15 ha-tik gora deklaratu duenez, behartuta dago labore-lurraren % 5 horrelako azalerekin uztera, zehazkiago, 2,75 ha (55 ha x % 5). Interes ekologikokotzat aintzat hartzen den azalera 1ez biderkatzen da lugorrien kasuan, eta 0,7z nitrogenoa finkatzen duten laboreen kasuan. Beraz: (1 ha lugorri x 1) + (1,75 ha babarruna x 0,7) = 2,225 ha. Hortaz, ez du irizpide hori betetzen (nahiz eta azalera horren 2,75 ha utzi duen, azalera horren % 100 interes ekologikoko azalera zatituz hartzen ez bada ere), eta beraz ez luke greeningaren osagaia jasoko ustiategi osoan,

Horrenbestez, interes ekologikoko azalera handitu beharko litzateke, adibidez

- (1 ha lugorri x 1) + (2,5 ha babarruna x 0,7) = 2,75 ha.
- (1,525 ha lugorri x 1) + (1,75 ha babarruna x 0,7) = 2,75 ha.

ARGITU BEHARREKOAK:

1. Urte jakin batean nekazari batek lugorria deklaratu du, aurrekoan erremolatxa deklaratu eta gero. Lugorri hori interes ekologikoko azaleratzat jo al daiteke baldin eta erremolatxaren uzta eskaerurtearen urtarrilera arte atzeratu bada?

Hasiera batean EZ. Araudiaren arabera, lugorriak gutxienez bederatzi hilabete segidan iraun behar du (eskaeraren aurreko urteko urritik eskaeraren urteko irailera bitarte). Hortaz, uzta beranduenez abenduaren 31n egin beharko da. Hori teledetekzioaren bitartez egiaztatu beharko litzateke.

2. Kontuan hartuta laboreetarako honako adiera hauek balio dutela:

- a) Laboreen sailkapen botanikoan zehaztutako edozein generotako laboreak.
- b) Brassicaceae, Solanaceae eta Cucurbitaceae familietako edozein espeziatako laboreak.
- c) Lugorriak
- d) Belarra edo bestelako belar-bazkak

Neguko eta udaberriko laboreak labore desberdintzat hartuko dira genero berekoak izan arren, baita aurrekoen desberdina izaki, labore desberdina den beste edozein genero edo espezie mota ere, etorkizunean zuzenean aplikatzekoa izango den erkidegoko araudiak esanbidez hori ezarri badu.

Nabarmentzekoa da *Vicia* generoaren barruan, hazteko moduko zenbait espezie daudela: bazkazalkea (*Vicia villosa* edo *Vicia sativa*), babak eta babatxoak (*Vicia faba*), zalke arrunta (*Vicia articulata*). a puntuan ezarritakoaren arabera, genero bereko (*Vicia*) espezieak izango al liriateke? beraz, labore bakartzat hartuko al liriateke greeningaren xedeetarako? Bai, labore bakartzat hartuko liriateke greeningaren xedeetarako.

Triticum generoaz antzeko zerbait esan dezakegu: gari biguna (*Triticum aestivum*), gari gogorra (*Triticum durum*) eta espelta (*Triticum spelta*) dauzkagu. Genero berekoak direnez, hiru espezieiek labore bakarra osatzen dute greeningaren xedeetarako? Bai, labore bakartzat hartuko liriateke greeningaren xedeetarako. Alabaina, tritikalea beste labore bat dela hartzen da aintzat.

Azken adieraren barruan, "belarra edo bestelako belar-bazkak" hartzen dira. Horrenbestez, edozein bazka-labore (alpapa, bazka-artoa, txirta, astorkia, lollobelarra eta abar) labore bakartzat hartzen al da? Labore horiek guztiak (alpapa, artoa, txirta eta abar), ez dira hartu "belarra edo bestelako belar-bazkak" atalaren barruan. Belarrak edo bestelako belar-bazkek sega-larre edo -belardiekin dute zerikusia. Txirta + oloa labore mistotzat hartzen al da?, aurrekoen desberdina al da? Bai.

Neguko laboreak eta udaberrikoak labore desberdintzat hartzen dira genero berekoak badira ere. Adibidez, udaberriko eta udazkeneko garagarra. Udazkenean eta udaberrian ereiten diren beste labore batzuetarako ere balio al du horrek, hau da, txirtetarako, babetarako eta abar? Bai. Hori guztia garatzeko dago, udazkeneko eta udaberriko barietateak bereiziz

3. Leka labore onargarria al da interes ekologikoko azalera justifikatzeko? Bai, esne-itxurako heldutasun-egoera lortzen ez badu ere.

4. Nitrogenoa finkatzen duen labore bat ereiten badugu, hurrengo urtean nitrogenoa behar duen labore bat erein behar dugu, eta lugorriak debekatuta daude kasu guztietan. Onargarria al da hurrengo urtean berriz ere lekadunen labore batekin errepikatzea? Ez. Hasiera batean ez litzateke onartuko.

5. Greeningaren xedeetarako, erabilera eta haztea hartzen dira aintzat. Zer gertatzen da produktore batek olibadia deklaritzen badu goldatzeko moduko lurretan?

Olibadi horrek ez du balio laboreen dibertsifikazioaren xedeetarako. Produktoreak SIGPAC sistemari alegazio bat egin beharko dio olibadi hori labore iraunkor bihurtzeko. Orain arte, nola "goldatzeko moduko lurretako olibadiak" hala "labore iraunkorretako olibadiak" azalera onargarriak ziren. Greeningaren xedeetarako, erabilerek eta laboreek bateragarri izatea lortu behar dugu. Gauza bera gertatzen da zainuriek in edo alpaparekin, eta ezinezkoa da labore iraunkortzat hartzea, goldatzeko moduko lurretat baizik.

6. ¿Cómo realizar la declaración de segundos cultivos en la SU? Lurzati batean bi labore segidan ereiten badira...bi labore desberdintzat har al daitezke dibertsifikazioaren orduan?

Laboreak dibertsifikatzeari dagokionez, Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak argi eta garbi dio esparru bakoitzeko labore bakar bat har daitekeela aintzat. Produktoreak hautatu nahi du zer deklaratu nahi duen, nagusia edo bigarren mailakoa, baina bietako bat bakarrik har dezake kontuan. Horren harira, Alemaniak egindako galdera bati Batzordeak emandako erantzuna azalduko dugu jarraian. Alemaniak jakin nahi zuen labore nagusia dibertsifikaziorako eta bigarren mailakoa interes ekologikoko azalera izateko aintzat hartu ote zitezkeen, eta EZEZKO erantzuna jaso zuen. Lurzatian deklaritzen denak xede bakarra dauka.

7. Interes Ekologikoko Azalera gisa sailkatutako lugorri bat bazkalekurako erabili al daitezke?

Ez. Interes Ekologikoko Azalera batek ezin dezake nekazaritza-produkzioz eduki, eta beraz 9 hilabete horietan ezinezkoa izango litzateke azalera sartzeari; ondoren bai, ordea. Batzordeak erabaki duenez, dibertsifikaziorako lugorri bat bazkalekurako erabili daitezke, baina Interes Ekologikoko Azalera lu gorri bat ez.

8. Finantziario bakoitzak zeri eragiten dio, baldin eta greeningerako erabiltzen den lurzati bat landa-garapenerako neurrietan ordaintzen bada?

Murrizketa Landa Garapenerako Planaren neurrietan aplikatzen da beti, greeninga oinarritzeko ildo bat delako eta oso-osorik ordaintzen delako.

9. Nola aplikatzen da Interes Ekologiko Azalaren ehunekoa? Orokorrean kalkulatu da, ustiatzeko labore-lurren azalera osoarentzat, edo proportzionalki, esleitutako eskualdeen arabera?

Orokorrean aplikatzen zaio ustiatzeko osotasunari. Ez dago zertan banatu beharrik nekazariak deklaratu ditzakeen eskualdeen artean, ezta lehorreko lurren edo lur ureztatuen artean ere.

10. Araudiaren arabera, nekazari batek ustiategiko azalera osoa edo zati bat ekologikoan deklaratzan badu, greeninga automatikoki kobratuko du, baina ekologikoan deklaraturako azalarengatik soilik. Kasu horretan, zer azalera hartu behar da aintzat dibertsifikazioko eta interes ekologikoko azalera edukitzeko irizpideak betetzeko? Ekologikoaren barruan hartu ez den gainerako azalera, hau da, ustiategi batek 100 ha labore-lur deklaratzan baditu eta horietatik 10 ha ekologikoan badago, 90 ha-ko azalera hartuko da aintzat. 3 labore eduki behar ditu, eta gutxienez 4,5 ha-ko azalera (labore-azalaren % 5) interes ekologikoko azalera izan behar du.

Ekologikoan dagoen azalera lugorri uzten badu edo bertan nitrogenoa finkatzen duen labore bat ereiten badu, interes ekologikoko azalera edukitzeko irizpidea beteko al du? Ez, irizpide guztiak azalera osoaren arabera ezartzen dira, baina ekologikoa alde batera utzita, harengatik zuzenean kobratuko lukeelako. Nolanahi ere, Batzordeari galdetuko zaio bidezkoa ote den lugorri hori labore ekologiko gisa ez deklaratzea eta interes ekologikoko azalera hartzea.

11. Laboreak dibertsifikatzeko atalean “Nekazaritza-azalera onargarrien %75etik gora larre iraunkorrak badira, ...” aipamenaren harira ezarritako salbuespenetan. Zer azalera hartzen da larre-azalera gordintzat edo garbitzat, behin larreen onargarritasun-koefizientea aplikatu ondoren? Zer azalera hartzen da larre-azalera gordintzat edo garbitzat, behin larreen onargarritasun-koefizientea aplikatu ondoren? Nekazaritza-azalera onargarria denez, garbia hartzen da aintzat.

12. Urte jakin batean, nekazari batek bi labore erein ditu lurzati berean, nitrogenoa finkatzeko lehen labore bat (txirta adibidez) eta bigarren labore bat (artoa adibidez). Txirtaren laborea aintzat hartu al daiteke greeningaren xedeetarako? Bai, nekazariaren erabakia da labore bata edo bestea deklaratzeko. Hortaz, txirta deklaratzan badu, labore hori hartuko da aintzat greeningaren xedeetarako (araudiaren arabera deklaraturako laboreak maiatzaren 31n behar du landatuta).

BEHIN-BEHIN

6. LAGUNTZA ELKARTUAK (Euskadin eragina dutenak)

7.1. Zer laboreri eta abeltzaintzako zer sektoreri ematen zaizkio laguntza gehigarriak?

Laboreei dagokienez:

Zailtasunak dauzkaten labore jakin batzuen produktoreei laguntza gehigarri bat emateko aukera izango da, egungo produkzio-mailak mantendu daitezen bultzatzeko.

Laguntza bideratzeko, urtean behin ordainketa bat egingo da betekizun orokorrak eta labore bakoitzaren espezifikoak betetzen dituen labore-hektarea bakoitzeko:

- a) Nekazari aktiboaren definizioa betetzen duten nekazarietara emango zaizkie laguntza horiek.
- b) Nekazarietara laguntza elkartu bakarra eskatu ahal izango dute nekazaritza-azalera bererako kanpaina jakin batean.
- c) Ustiategi bakoitzeko laguntza elkartuetako bakoitza jaso dezakeen gutxienezko azalera hektarea 1 izango da lehorreko azaleretarako, eta 0,5 hektarea azalera ureztatueterako, laguntzaren betekizun espezifikoek besterik ezartzen ez badute behintzat.
- d) SIGPAC sisteman horrela jasota dagoena izango da lehorreko azalera edo azalera ureztatua.
- e) Nekazarietara eskumeneko agintarien eskura jarriko dituzte laguntza elkartuak kobratzeko betekizun orokor eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatuzko agiri guztiak, horrelakorik eskatzen dietenean.

Honako labore hauek jasotzen dute laguntza elkartua:

- a) Azukre-erremolatxa
- b) Labore proteinadunak
- c) Kalitatezko lekaleak
- d) Arroz-laboreak
- e) Oskoldun fruituak eta algarrobo-lekak
- f) Industriadunak tomateak
- g) Kotoi-laboreak

Abere-sektoreei dagokienez:

Zailtasunak dauzkaten labore jakin batzuen ekoizleei laguntza gehigarri bat emango zaie, egungo produkzio-mailak mantendu daitezen bultzatzeko.

Laguntza bideratzeko, urtean behin ordainketa bat egingo da betekizun orokorrak eta sektore bakoitzaren espezifikoak betetzen dituen abere bakoitzeko:

- a) Abereak identifikatuta eta erregistratuta egon behar du erkidegoko araudiaren arabera
- b) Laguntza jaso dezaketen abereen ustiategiak Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrari dagokionez ezarritako xedapenak bete beharko ditu
- c) Nekazari aktiboaren definizioa betetzen duten nekazarietara emango zaizkie laguntza horiek.

Honako sektore hauek jasotzen dute laguntza elkartua:

- a) Behi ume-hazleak zaintzen dituzten ustiategiak
- b) Gizentzeko behien ustiategiak
- c) Esnetarako behien ustiategiak
- d) Ardien ustiategiak
- e) Ahuntzen ustiategiak
- f) 2014an eskubide bereziak zeuzkaten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten abeltzaintzako laguntza.

Abere batek ezin izango du laguntza elkarturik jaso ezarritako laguntza elkartu batengatik baino gehiagorengatik, aldi berean laguntza baterako baino gehiagorako hautagarritasun-betekizunak bete edo ez.

7.2. Landare proteinadunei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Labore proteinadun ureztatu jakin batzuen ekoizleei laguntza bat emango zaie, baita lehorreko azalerei ere, baldin eta lehorreko zerealetarako Bailarako Errendimenduaren Indizea, Produkzioa Eskualdeka Aplikatzeko Planaren arabera, 2.000 kg/ha baino handiagoa duten udalerrietan badaude, eta atal honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Abereak elikatzeko labore hauek jaso dezakete laguntza:

- a) Proteaginosak: ilarrak, babak eta lupinu gozoa.
- b) Lekadunak: txirta, eruak, algarrobo-lekak, titarroak, almortak, ailorbea, zalkea, aixkola, lehorretako azalaretako alpapa, bazka-zalkea, astorkia eta zulla
- c) Olio-landareak: ekilorea, koltza, soja, kamelina eta kartamoa.

Ohiko laborantza-jarduera bada, txirta eta zulla zerrenda honetan jasota ez dauden beste labore batzuekin nahasteko aukera izango da, baldin eta nahasketaren labore nagusia badira eta beste laborea laguntza elkartuaren jomuga izan daitekeen sektoreetako zerrendan jasota badago 1307/2013 Erregelamenduaren 52. 2 artikulua arabera (zereal, olio-landare, proteaginosa eta ale-lekadun guztiak jasota daude zerrenda horretan).

Estatuan, urteko hornidura 21.646 milioi euro da proteaginosa eta lekadunentzat eta 22.891 milioi olio-landareentzat.

Azaleraren muga 360.759 hektarea da proteaginosa eta lekadunetarako, eta 572.287 hektarea olio-landareetarako.

Lekadunetarako gehieneko azalera ezin izango du GATT esparruan ezarritako gehienekoa; gainditzen bada, banako murrizketa bat aplikatuko da, ustiategi bakoitzeko hektarea hautagarrien kopuruaren arabera.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- a) Europar Batasuneko katalogoan edo Estatu Kideen katalogo nazionalean jasota dauden edo erregistratzeko izapidetzen ari diren hazi barietateak erabiltzea.

- b) Nekazaritza-esparru ureztatuak lantzea, edota lehorreko esparruak, baldin eta lehorreko zerealetarako Bailarako Errendimenduaren Indizea 2.000 kg/ha baino handiagoa duten udalerrietan kokatuta badaude. Euskadi osoa hartzen du.
- c) Laboreak honako egoera fenologiko hau eduki behar du: proteaginoso, lekadunak, alea eta soja (alea esne-itxurako heldutasun-egoeran), urteko proteaginoso eta bazka-lekadunak (loratzen hasi arte), urte anitzeko bazka-lekadunak (urte osoan) eta olio-landareak soja izan ezik (fruitua eman arte)
- d) Aziendaren bazkarako aprobetxatu daiteke, espeziearekin bateragarria bada, baina laboreak gutxienez loratu arte mantendu behar da.
- e) Produktzioa hirugarrenei saldu edo hornitu izanaren proba edukitzea, norberaren kontsumorako denean izan ezik, baina kasu horretan titular nagusia izan behar du Abeltzaintza Ustiatarien Erregistro Orokorrean.
- f) Bazka berderako ezin daiteke erabili, ongi justifikatutako ezinbesteko arrazoiengatik ez bada.

Laguntzaren zenbatekoa.

Labore talde bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, talde bakoitzari dagokion aurrekontu-hornidura (nekazari txikien erregimenean erantsitako zenbatekoa kenduta) zatituko da dagokion urtean talde bakoitzari laguntzeko eskubidea duen azaleraren artean.

Ministerioaren arabera, hasiera batean laguntza 60 euro/hektarea izan liteke, gutxi gorabehera, proteaginoso eta lekadunen laboretarako, eta 40 euro/hektarea, gutxi gorabehera, olio-landaretarako.

Olio-landareen kasuan, gehieneko azalera hautagarria 50 hektarea izango da ustiatari bakoitzeko.

Nolanahi ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 250 €/ha izango da

LABORE PROTEINADUNEI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Arabako Mendialdeko nekazari batek, 2015eko Eskaera Bakarrean, 45 ha labore-lur aurkeztu ditu. Bestiak beste, 20 ha gari, 10 ha olo, 8 ha ekilore, 4 ha ilar proteoginoso eta 3 ha Arabako babarrun pikart deklaratu ditu. Zenbateko laguntza jasoko du labore proteinadunengatik?

Ekiloreak eta ilarak laguntza gehigarriak jaso ditzakete.

Babarrunak, aldiz, ez luke inolako laguntza gehigarririk jasoko, laguntza gehigarri horren xede bakarra abereen bazkarako labore proteinadunak direlako. Ekilorea ere diru-laguntza jaso dezaketen laboreen artean dago.

Hortaz, laguntza gehigarria honako hau izango da, beste erregimen batzuk direla-eta (oinarriko ordainketa, greeninga, nekazaritzan hasten diren gazteak edo kalitatezko lekaleengatik laguntza gehigarria) jaso dezakeena alde batera utzita:

- Ekilorea: 8 ha x 40 €/ha = 320 €
- Ilarra: 4 ha x 60 €/ha = 240 €
- GUZTIRA: 560 €

Oharra: Ekiloreari eta ilarari emandako laguntza 40 eta 60 €/ha dela kalkulatu da, gutxi gorabehera, baina kopuru hori aldatu liteke.

7.3. Kalitateko lekaleei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Giza elikadurarako kalitatezko lekaleen ekoizleei laguntza bat emango zaie, baldin eta atal honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Euskadin, giza elikadurarako diren kalitatezko honako lekale hauei ematen zaie laguntza:

- a) Arabako babarrun pikarta
- b) Tolosako babarruna
- c) Gernikako babarruna
- d) Nekazaritza ekologikoa

Estatuarentzako urteko hornidura milioi bat euro da.

Azalera-muga, berriz, 10.000 ha da

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- a) Goian aipatutako kalitate-deitura horietako batean inskribatuta edo inskripzio-prozesuan egotea, eskaera aurkezten den urteko otsailaren 1ean.
- b) Zerrenda horretako deiturretako batean sartuta dauden ale-lekadunak haztea.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, neurriari dagokion aurrekontu-hornidura (nekazari txikien erregimenean erantsiko den zenbatekoa kenduta) zatituko da dagokion urtean talde bakoitzari laguntzeko eskubidea duen azaleraren artean.

Ministerioaren arabera, hasiera batean laguntza 100 euro/hektarea izan liteke.

Nolanahi ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 400 €/ha izango da

7.4. Azukre-erremolatxari lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Giza elikadurarako kalitatezko lekaleen ekoizleei laguntza bat emango zaie, baldin eta atal honetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

Honako produkzio-eremu hauek hartzen dira aintzat:

- a. Udaberrian ereiteko azukre-erremolatxaren produkzio-eremua —ipar-latitudeko 39º paraleloaren iparraldean kokatutako eremu geografikoa— (Araba eremu horren barruan dago)

- b. Udaberrian ereiteko azukre-erremolatxaren produkzio-eremua —ipar-latitudeko 39º paraleloaren iparraldean kokatutako eremu geografikoa— (Araba eremu horren barruan dago)

Estatuan, urteko diru-homidura 16.836 milako euro da. Horietatik 14.470 milako euro udaberrian ereiteko produkzio-eremuari dagozkio, eta 2.366 milako euro udazkenean ereiteko produkzio-eremuari, hurrenez hurren.

Gehieneko azalera 32.500 ha da udaberriaren ereiteko eremurako, eta 7.600 hektarea udazkenean ereiteko produkzio-eremurako.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- EBren barietateen katalogo bateratuan edo Estatu kideen katalogo nazionalen inskribatutako barietateak erabiltzea
- Azukre-industriarekin hornidura-kontratu bat sinatu izana
- Gutxieneko hazi-dosia unitate 1 izatea hektarea bakoitzeko (iparraldean)

Laguntzaren zenbatekoa:

Estatuko eremu homogeen bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa (Euskadi udaberrian ereiteko eremuaren barruan dago, Gaztela eta Leonekin, Nafarroarekin eta Errioxarekin batera) urtean behin kalkulatu da. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eremu bakoitzari dagokion aurrekontu-hornidura (nekazari txikien erregimenean erantsiko den zenbatekoa kenduta) zatituko da dagokion urtean eremu bakoitzari laguntzeko eskubidea duen azaleraren artean.

Orientagarri gisa, iparraldean laguntza 460-480 €/ha izan liteke, gutxi gorabehera.

Nolanahi ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.600 €/ha izango da

AZUKRE ERREMOLATXARI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Arabako Lautadako nekazari batek, 2015eko Eskaera Bakarrean, 75 ha labore-lur aurkeztu ditu. Besteak beste, 40 ha gari, 10 ha olo, 10 ha ekilore, 8 ha ilar proteoginoso eta 7 ha Arabako babarrun pikart deklaratu ditu. Zenbateko laguntza jasoko du labore proteinadunengatik?

Kontuan hartuta erremolatxaren laguntza gehigarria 480 €/ha dela (zenbateko unitario orientagarria, urtean behin kalkulatu beharrekoa), erremolatxaren laguntza gehigarri gisa nekazari horrek honako kopuru hau jasoko du, beste erregimen batzuk direla-eta (oinarrizko ordainketa, greeninga, nekazaritzan hasten diren gazteak edo labore proteinadunei lotutako laguntza) jaso ditzakeen zenbatekoak alde batera utzita:

- Azukre-erremolatxa: 10 ha x 480 €/ha = 4.800 €
- GUZTIRA: 4.800 €

7.5. Fruitu oskoldunei eta algarrobo-lekei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Arbendolondo-, hurrondo- eta algarrobo-sailak dauzkaten nekazariei laguntza bat emango zaie espezie horiei lotuta. Laguntza horren bitartez espezie horien abandonuari aurre egin nahi zaio, horrek gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-arazo bat ekarriko lukeelako berekin.

Estatuan urteko hornidura 14.000 milako euro da. Bi eskualde sortu dira: Espainiako penintsula eta uharteak. Aurrez aipatutako kopuru hori bi eskualde horien artean banatuko litzateke, 12.956 milako euro Espainiako penintsularen eskualderako eta 1.044 milako euro uharterako Eskualderako, hurrenez hurren.

Neurri hori gehienez 390.500 ha-ko azalera batean aplikatu daiteke Espainiako penintsulan eta 27.500 ha-ko azalera uharterako eskualdean, hurrenez hurren.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- a) Hektareako gutxieneko dentsitatea honako hau izatea: 80 zuhaitz arbendolondoaren kasuan, 150 hurrondoaren kasuan, eta 30 algarroboaren kasuan, hurrenez hurren. Oskoldun-fruituen eta algarroboen sail mistoetarako betekizun hori beteko da baldin eta dentsitate horiek gutxienez espezieetako batean betetzen badira lurzati osoan, edo bestela, espezie bakoitza soilik lantzen den azalera baliokidean betetzen badira; azken kasu horretan azalera hori hartuko da kontuan laguntzaren xedeetarako.
- b) Laguntza-eskaerari dagokion lurzatiaren gutxieneko azalera 0,1 hektarea izatea, eta laguntza-eskaerari dagokion ustiatetik gutxieneko azalera, aurreko betekizuna betetzeaz gain, 0,5 ha izatea, nola lehorreko laboreetarako hala ureztatuetarako.
- c) Lehorreko lurretan haztea, baita lur ureztatuetan ere hurrondo espezierako.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eskualde bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, eskualde bakoitzari dagokion aurrekontua zatituko da dagokion urtean eskualde bakoitzerako zehaztutako azaleren artean.

Nolanahi ere, laguntzaren gehieneko zenbatekoa 105 €/ha izango da

7.6. Behi ume-hazleak dituzten ustiategiei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Behi ume-hazleak dauzkaten abeltzainei laguntza bat emango zaie.

Estatuan urteko hornidura 14.000 milako euro da. Bi eskualde sortu dira: Espainiako penintsula eta uharteak. Aurrez aipatutako kopuru hori bi eskualde horien artean banatuko litzateke, 12.956 milako euro Espainiako penintsularen eskualderako eta 1.044 milako euro uharterako Eskualderako, hurrenez hurren.

Neurri hori gehienez 390.500 ha-ko azalera batean aplikatu daiteke Espainiako penintsulan eta 27.500 ha-ko azalera uharterako eskualdean, hurrenez hurren.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira.

- a) Abereen Banakako Identifikaziorako Erregistro Orokorrean inskribatutako behi ume-hazleak izango dira abere hautagarriak.
- b) Urteko eskaera egiteko azken egunaren aurreko 20 hilabeteen barruan egin behar dute umea behiek.
- c) Behi ume-hazleak haragi-arraza batekoak izango dira edo arraza horietako batekin gurutzatzearen ondoriozkoak, eta, horrez gain, haragia ekoizteko txahal-hazkuntzarako taldeko parte izango dira. Honako arraza hauetako behiak ez dira haragi-arrazako behi edo bigantxatzat hartuko: Frisona; Groninger Blaarkop; Jersey; Guernsey; Angler; Bretonne pie noire; Rotvieh (Angeln)–Rød dansk mælkerace (RMD)–German Red–Lithuanian Red; Ayrshire; Armoricaine; Malkeborhorn; Reggiana; Valdostana Nera; Itäsuomenkarja; Länsisuomenkarja; Pohjoissuomenkarja; ezta, gaian eskumenekoa den agintariaren arabera, nagusiki esnetarako ahalmena duten gainerako guztiak ere.
- d) Honako laguntza hau jasotzeko eskubidea duten abereek ustiatégian bertan egon beharko dute egingo diren lau egiaztatzeetan; urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta zehaztu gabeko tarteko daten egingo diren beste bi egiaztatzeetan.
- e) Hautagarriak izango dira, era berean, aurreko paragrafoko betekizun guztiak betetzen dituzten bigantxak (umerik egin ez duten 8 hilabetetik gorako emeak), umea egin izanaren betekizuna kenduta. Nolanahi ere, ustiatégia bakoitzeko bigantxa hautagarrien kopurua gehienez behi ume-hazle hautagarrien % 15 izango da (bigantxak kalkulatzeko abere kopuru frakzionarioa lortzen badugu, kopuru hori unitate txikiagora biribilduko da 0,5etik beherakoa bada, eta osoko zenbaki handiagora 0,5 edo handiagoa bada).

Abere hautagarriek Abeltzaintza Ustiatégien Erregistro Orokorrean inskribatutako ustiatégietan egon behar dute, eta ustiatégia horiek "haragia ekoizteko ugalketarako" edo "produktzio mistorako ugalketarako" behi-azienda izango dira, sailkapen zooteknikoaren arabera.

Ustiatégian esnea saltzen bada, laguntza elkartu hori zenbat behik jaso dezaketen kalkulatzeko, abereak esnetarako behien erroldan edo behi ume-hazleen erroldan sartuko dira eskaeraren aurreko urriaren 1etik eskaeraren urteko irailaren 30era bitarte merkaturatutako esnearen eta ezarritako batez besteko esne-errendimenduaren (6.500 kilogramo) arteko erlazioaren arabera, salbu eta bestelako esne-errendimendua egiaztatzen badute, eta kasu horretan azken hori erabili ahal izango dute kalkulua egiteko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa urtero kalkulatu da, behi ume-hazleentzako zenbateko unitarioa abere hautagarrien artean zatituz sortutako bi eskualdeetako bakoitzeko.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 400 eurotik gorakoa izan abere hautagarri bakoitzeko.

Hasiera batean, laguntzaren zenbatekoa 90-100 € izan daiteke Espainiako penintsulan abere hautagarri eta urte bakoitzeko (balio orientagarria da, eta urtean behin kalkulatu behar da).

BEHI UME HAZLEEI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Goierriko emakume abeltzain batek 35 ha belardi deklaratu ditu 2015eko Eskaera Bakarrean. Abeltzain horrek haragia ekoizteko ugalketarako behi-aziendaren ustiategi gisa inskribatu du ustiatagia Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean. Titular horrek 35 behi eta 8 bigantxa ditu Eskaera Bakarra aurkeztu duen unean. 35 behietatik 34k eskaeraren aurreko 18 hilabeteetan egin dute umea. Urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarte egindako lau kontroletan, guztira 32 behi (31k eskaeraren aurreko 20 hilabeteetan egin zuten umea) eta 7 bigantxa egon dira kontrol gutzietan. Zenbatekoa da behi ume-hazle bakoitzeko laguntza gehigarria?

Laguntza jaso ahal izateko, abere hautagarriek (eskaeraren aurreko 20 hilabeteen barruan sortutako behiak) eta behi hautagarrien bigantxen gehienez % 15ek urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarteko lau egiaztatzeetan egon beharko dute. Laguntza unitarioa abere hautagarri eta urte bakoitzeko 100 € baldin bada, gutxi gorabehera.

- Lau kontroletan egondako behiak: 32 behi
- 35 behietatik 34k eskaeraren aurreko 20 hilabeteetan egin dute umea. 31 behi
- Gehieneko bigantxa kopuru hautagarria: $\% 15 \times 31 = 4,65$. 5eraino biribiltzen da. Kontroletan 7 bigantxa egon direnez, 5 bigantxek izango dute laguntza jasotzeko aukera
- Abereak guztira: 31 behi + 5 bigantxa = 36 abere hautagarri.
- Hortaz, 36 abere hautagarri $\times 100 \text{ €/abere hautagarri bakoitzeko} = 3.600 \text{ €/urtean}$

Gainera, abeltzain horrek Oinarrizko Ordainketaren, greeningaren, jardueran hasten den gaztearen eta gizentzeko azientzaren laguntza jasotzeko aukera izan dezake.

7.7. Gizentzeko behien ustiategiari lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Gizentzeko jardueran diharduten ustiategiari laguntza bat emango zaie. Lotutako laguntza horren barruan honako laguntza-ildo hauek ezarri dira, honako irizpide hauei jarraiki aurrekontu-hornidurari eta gehieneko abere kopuruari dagokienez:

- a. Jaio diren ustiategian bertan edo Espainiako penintsularen eskualdeko behi ume-hazleen ekoizleek kudeatutako erkidegoko beste gizendegi batzuetan gizendutako txekorrak. Hornidura: 12.488 milako euro eta gehienez 370.996 abererentzat (Euskadi eskualde horri esleituta dago)
- b. Jaio diren ustiategian bertan edo Espainiako penintsularen eskualdeko behi ume-hazleen ekoizleek kudeatutako erkidegoko beste gizendegi batzuetan gizendutako txekorrak. Hornidura: 93 milako euro, eta gehienez 1.627 abererentzat
- c. Espainiako Penintsularen eskualdeko beste ustiategi batean gizendutako txekorrak: 12.488 milako euro eta gehienez 2.458.879 abererentzat (Euskadi eskualde horri esleituta dago)
- d. Espainiako Penintsularen eskualdeko beste ustiategi batean gizendutako txekorrak: 93 milako euro, eta gehienez 14.469 abererentzat

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira.

1. 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke hektarea onargarri ez badute

2. Abere hautagarriak izango dira Abereen Banakako Identifikaziorako Erregistro Orokorrean inskribatuta egonik 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarte dauzkaten behiak, baldin eta eskaeraren aurreko urteko urriaren 1etik eskaera-urteko irailaren 30era bitarte gizendu badituzte onuradunaren ustiatzean edo erkidegoko beste gizendegi batean, hiltegirako edo esportaziorako bidea hartu baino lehen.

Abereen jomuga erabakitzeko eta abereak ustiatzean noiz sartu ziren eta hautagarritasuna eragin duten helmugetarako bidea noiz hartu duten zehazteko, SITRAN Abereen Trazabilitateko Sistema Integrala erabiliko da. Helmuga horietarako bidea hartzen dutenetik ustiatzean sartu arte gutxienez hiru hilabeteko tartea izango da abereen hautagarritasuna zehazteko.

3. Animalia hautagarrien kokaleku izango diren ustiatzeak Abeltzaintza Ustiatzeen Erregistro Orokorrean inskribatua egon beharko dute "haragia ekoizteko ugalketarako", "esnea ekoizteko ugalketarako", "produkzio mistoko ugalketarako" edo "gizentzeko edo gizendegiko" behi-azienden ustiatze gisa sailkapen zooteknikoaren arabera, ustiatze hori abereentzat azkena izanik hiltegira eraman edo esportatu aurretik. Beste ustiatze batetik ekarritako txekorren kasuan, aipatutako sailkapenen artean azkena bakarrik izango da balioduna.
4. Aurrekoa gorabehera, abereak azken ustiatzeetik irten badira bitarteko ustiatze batera joateko, tratulari batengana edo kontzentrazio-zentro batera adibidez, Abeltzaintza Ustiatzeen Erregistro Orokorrean horrela jasota daudenak, handik hiltegirako edo esportaziorako bidea hartu baino lehen, bitarteko ustiatze mugitu aurretik abereen kokaleku izan zen ustiatzeak laguntza jasotzeko aukera izango du, baldin eta aipatutako betekizun guztiak betetzen baditu eta bitarteko ustiatzean gehienez 15 egun ematen badute.
5. Gizendegi komunitarioen kasuan, bazkideek gizendegi komunitarioko kide direla egiaztatu beharko dute, eta gizendegi horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a. Bere helburuetako bat izatea bazkideek behi ume-hazleak dituzten ustiatzeetan hazitako txekorrek elkarrekin gizentzea. Hori egiaztatzeke, ustiatze goko behi ume-hazleek egindako umeek soilik izango dute lotutako laguntza hori kobratzeko aukera.
- b. Eskaerari abereak dakarzkieten bazkide guztiek behi espeziearen emeak izatea, eta behi ume-hazlearen laguntza eta/edo esne-behietarako laguntza eskatu izana dagokion eskaeraren urtean.

6. Laguntza-mota hau jasotzeko, gutxienez 3 abere hautagarri eduki behar dira urtero.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa urtean behin lortuko da ezarritako laguntza-ildo bakoitzean. Zenbateko unitario hori kalkulatzeko, ezarritako zenbateko bakoitza zatituko da kasuan kasuko abere hautagarrien kopuruaren artean.

Lotutako laguntza horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 125 eurotik gorakoa izan abere hautagarri bakoitzeko.

Gizendegi komunitario batek aurkeztutako eskaera batean agertzen den bazkide bakoitzak bere aldetik ere eska dezake laguntza elkartu hori. Zenbateko unitarioak kalkulatzeko, bi eskaeretan aurkeztutako abere guztiak hartuko dira kontuan. Horrelako kasuetan, ekoizleak banakako eskaeran adierazi beharko du laguntza elkartu hori ere eskatu duen gizendegi komunitario bateko bazkide dela.

Zaila da laguntza horren zenbatekoa kalkulatzea, baina kalkulu lineal bat eginez, 20 €-tik gora izan liteke, abere hautagarri eta urte bakoitzeko

GIZENTZEKO BEHIEN USTIATEGIEI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Durangaldeko abeltzain batek 16 ha belardi deklaratu ditu 2015eko Eskaera Bakarrean. Abeltzain horrek haragia ekoizteko ugalketarako behi-aziendaren ustiategi gisa inskribatu du ustiatagia Abeltzaintza Ustiatagien Erregistro Orokorrean. Titular horrek, Eskaera Bakarra aurkeztu duen unean, 35 behi ume-hazle, 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 4 idisko, 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 7 urrixa eta 24 hilabetetik gorakoak izaki umerik izan ez duten 5 eme dauzka. 2015. urtean abeltza in horrek 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 8 idisko eta 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 6 urrixa hiltzera eraman ditu. Gizendutako abere guztiak haren ustiatagian jaio ziren, auzoko bati erositako hiru eme izan ezik. Zenbatekoa izango da gizentzeagatik laguntza gehigarria?

Abere hautagarriek (gizendutako 6 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko idisko eta urrixa, ustiatagian gutxienez 3 hilabete eman dutenak hiltzera edo esportatzera eraman aurretik) laguntza jasotzeko. Abeltzain horrek laguntza jaso dezake jaiotze-ustiatagian gizendutako txekorreatatik (8 ar eta 3 eme) eta beste ustiategi batean gizendutako txekorreatatik (3 eme). Jaiotze-ustiatagian gizendutako txekorren laguntza unitarioa 24 € baldin bada abere hautagarri eta urte bakoitzeko, eta beste ustiategi batean gizendutako txekorreatako laguntza 16 € abere bakoitzeko (gutxi gorabeherako balioak).

- Behi hautagarriak guztira:
 - Jaiotze-ustiategi berean gizendutako txekorrak: 11 (8 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 8 ar eta 3 eme, hiltzera eraman beharrekoak)
 - Beste ustiategi batean gizendutako txekorrak: 3 (8 hilabetetik 24 hilabetera bitarteko 8 ar eta 3 eme, hiltzera eraman beharrekoak)
- Jaiotze-ustiategi berean gizendutako txekorren prima: 11 abere hautagarri x 24 €/abere bakoitzeko = 264 €
- Beste jaiotze-ustiategi batean gizendutako txekorren prima: 3 abere x 16 €/abere bakoitzeko = 48 €
- Guztira: 264 + 48 = 312 €/urte

Gainera, abeltzain horrek Oinarrizko Ordainketaren, greeningaren, jardueran hasten den gaztearen eta gizentzeko azidaren laguntza jasotzeko aukera izan dezake.

7.8. Esnetarako behien ustiategiei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Esnetarako behien ustiatzei laguntza bat emango zaie.

Laguntza elkartu horren barruan honako laguntza-ildo hauek ezarri dira, honako irizpide hauei jarraiki aurrekontu-hornidurari eta gehieneko abere kopuruari dagokienez:

- a. Espainiako penintsularen Eskualdeko ustiatzeietako lehen 75 behientzako laguntza. Hornidura: 93 milako euro, eta gehienez 436.146 abererentzat
- b. Uharteko Eskualdean eta mendialdeetan kokatutako ustiatzeietako lehen 75 behientzako laguntza. Hornidura: 93 milako euro, eta gehienez 206.215 abererentzat
- c. Espainiako penintsularen Eskualdeko ustiatzeietako lehen 75 behientzako laguntza. 93 milako euro, eta gehienez 162.789 abererentzat
- d. Uharteko Eskualdean eta mendialdeetan kokatutako ustiatzeietako behientzako laguntza, lehen 75 behiak aparte utzita. 2.652 mila euro, gehienez 39.203 abererentzat

Xede horretarako, penintsulako lurralde osoa Espainiako penintsula izango da, mendialdeak izan ezik, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritakoari jarraiki.

Ustiatzeiaren produkzio-unitateak hainbat eskualdetan daudenean, eskatzailearen ustiatzea zer eskualdetan dagoen jakiteko, produkzio-unitate bakoitzean dauden abere hautagarrien kopurua hartuko da kontuan. Abere hautagarrien kopuru handiena biltzen duten produkzio-unitateak eskualde jakin batean daude, eta eskualde horixe izango da ustiatzeiaren kokalekua. Hortaz, abere hautagarri guztiek eskualde horri dagokion zenbatekoa jasoko dute, haien zati bat beste eskualdeko unitateetan kokatuta egon arren.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira.

1. 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke hektarea onargarririk ez badute
2. Frisona; Groninger Blaarkop; Jersey; Guernsey; Angler; Bretonne pie noire; Rotvieh (Angeln)–Rød dansk mælkerace (RMD)–German Red–Lithuanian Red; Ayrshire; Armoricaine; Malkeborhorn; Reggiana; Valdostana Nera; Itäsuomenkarja; Länsisuomenkarja; Pohjoissuomenkarja; ezta, gaian eskumenekoa den agintariaren arabera, nagusiki esnetarako ahalmena duten gainerako guztiak ere.
3. Abereak gehienez 24 hilabete izango ditu eskaera aurkezteko epea amaitzean.
4. Laguntza hau jasotzeko eskubidea duten abereek ustiatzeian bertan egon beharko dute egingo diren lau egiaztatzeetan; urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta zehaztu gabeko tarteko datetan egingo diren beste bi egiaztatzeetan.

Animalia hautagarriak kokatu behar diren ustiatzeiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Abeltzaintza Ustiatzeien Erregistro Orokorrean inskribatua egotea "esnea ekoizteko ugalketarako" edo "produkzio mistoko ugalketarako" behi-aziendaren ustiatzei gisa, sailkapen zooteknikoaren arabera.

- b) Erosleei esnea eman izana edo zuzeneko salmentak egin izana gutxienez 6 hilabetez eskaeraren aurreko urteko urriaren 1etik eskaera-urteko irailaren 30era bitarte, edo azken urtean zuzeneko salmenten deklarazioa jaso izana, saldutako kopuruak barne.

Ustiategiaren produkzio-unitateak mendialdeetan eta mendialdeetatik aparteko eremuetan daudenean, eskatzailearen ustiatagia zer eremutan dagoen jakiteko, produkzio-unitate bakoitzean dauden abere hautagarrien kopurua hartuko da kontuan. Abere hautagarrien kopuru handiena biltzen duten produkzio-unitateak eskualde jakin batean daude, eta eskualde horixe izango da ustiategiaren kokalekua. Hortaz, abere hautagarri guztiek eskualde horri dagokion zenbatekoa jasoko dute, haien zati bat beste eskualdeko unitateetan kokatuta egon arren.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa urtean behin lortuko da ezarritako laguntza-ildo bakoitzean. Zenbateko unitario hori kalkulatzeko, ezarritako zenbateko bakoitza zatituko da kasuan kasuko abere hautagarrien kopuruaren artean

Kasu guztietan, lehen 75 behiak ustiategi bakoitzean zenbatzen dira, haien forma juridikoa eta bazkide kopurua edozein izanik ere.

Laguntza elkartu horren zenbatekoak ezin izango du inoiz 430 euroko zenbatekoa gainditu abere hautagarri bakoitzeko.

ESNETARAKO BEHIEN USTIATEGI EI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Aramaioko abere-kooperatibak 124 ha belardi deklaratu ditu 2015eko Eskaera Bakarrean. Kooperatiba horrek 6 bazkide ditu, eta haragia ekoizteko ugalketarako behi-aziendaren ustiategi gisa inskribatuta dago Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean. Ustiategi horrek urte osoan dihardu eta esnea saltzen du. Gainera, titular horrek frisona arrazako 240 eme ditu, 24 hilabetetik gorakoak, eta horietatik 220k umea egin dute dagoeneko. Urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarte egindako lau kontrolak 236 emeri egin zizkieten, 24 hilabetetik gorakoak, haietatik 216 umea egin ondoren. Zenbatekoa izango da esnetarako behiengatik laguntza gehigarria?

Animalia hautagarriek (24 hilabetetik gorako frisona arrazako emeak, lau kontroletan egondakoak) laguntza jasotzeko. Lehen 75 behiengatik laguntza unitarioa 125 € bada abere hautagarri eta urte bakoitzeko, eta hurrengo behiengatik laguntza 62,5 € abere eta urte bakoitzeko (gutxi gorabeherako balioa).

- Abere hautagarriak: 236
- Lehen 75 behientzako laguntza: 75 abere hautagarri x 125 €/abere bakoitzeko = 9.375 €
- Behientzako laguntza lehen 75 behiak aparte utzita: (236 – 75) abere hautagarriak x 62,5 €/abere bakoitzeko = 10.062,5 €
- Laguntza, guztira 9.377 / 10.062,5 = % 15

Gainera, abeltzain horrek Oinarrizko Ordainketaren, greeningaren, jardueran hasten den gaztearen eta gizentzako aziendaren laguntza jasotzeko aukera izan dezake. 75 behiak zenbatzean bazkide kopurua ez da kontuan hartzen.

Hasiera batean, laguntzaren zenbatekoa honako hau izan liteke:

- *Mendialdean: Lehen 75 behiak: 120-130 €/abere hautagarri eta urte bakoitzeko. Lehen 75 behietatik aurrera: 60-65 abere hautagarri eta urte bakoitzeko*
- *Menditik aparteko eremuetan. Lehen 75 behiak: 100 €/abere hautagarri eta urte bakoitzeko. Lehen 75 behietatik aurrera: 50 abere hautagarri eta urte bakoitzeko*

7.9. Ardien ustiatzei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Ardien ustiatzei laguntza bat emango zaie.

Estatuan urteko hornidura 14.000 milako euro da. Bi eskualde sortu dira: Espainiako penintsula eta uharteak. Aurrez aipatutako kopuru hori bi eskualde horien artean banatuko litzateke, 12.956 milako euro Espainiako penintsularen eskualderako eta 1.044 milako euro uharteko Eskualderako, hurrenez hurren.

Neurri hori gehienez 390.500 ha-ko azalera batean aplikatu daiteke Espainiako penintsulan eta 27.500 ha-ko azalera uharteko eskualdean, hurrenez hurren.

Ustiatzearen produkzio-unitateak hainbat eskualdetan daudenean, eskatzailearen ustiatze zer eskualdetan dagoen jakiteko, produkzio-unitate bakoitzean dauden abere hautagarrien kopurua hartuko da kontuan. Abere hautagarrien kopuru handiena biltzen duten produkzio-unitateak eskualde jakin batean daude, eta eskualde horixe izango da ustiatzearen kokalekua. Hortaz, abere hautagarri guztiek eskualde horri dagokion zenbatekoa jasoko dute, haien zati bat beste eskualdeko unitateetan kokatuta egon arren.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira.

1. 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarritzko ordainketarako eskubideak aktibatzeke hektarea onargarriek ez badute
2. Ardi espeziearen emeak izango dira abere hautagarriak, baldin eta ugaltzaile gisa hazten badira nahitaezko errolda-deklarazioaren arabera, eta ongi identifikatuta eta erregistratuta badaude, eskaera bakarra aurkezteko urte bakoitzeko urtarilaren 1ean indarrean dagoen araudiaren arabera.

30 eme hautagarri edo gehiagoko errolda duten ustiatzeietako titularrek bakarrik jasoko dute laguntza elkartu hori. Hala ere, gutxienezko muga hori murriztu edota kendu egin ahal izango da Estatukoarekin alderatuta ardi-aziendaren errolda % 2tik beherakoa duten autonomia-erkidegoetan, Euskadiren kasuan, esaterako.

Abere hautagarriak kokatu behar diren ustiatzeiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Abeltzaintza Ustiatzeien Erregistro Orokorrean inskribatua egon beharko dute "esnea ekoizteko ugalketarako", "haragia ekoizteko ugalketarako" edo "produkzio mistoko ugalketarako" ardi-aziendaren ustiatzei gisa, sailkapen zooteknikoaren arabera.

- b) Ustiatetik mugimenduen gutxienezko atalase-maila 0,4 arkume izatea eme hautagarri eta urte bakoitzeko, laguntza hori jasotzeko baldintza artifizialak sortu daitezkeen saihesteko.

Saillapen zooteknikoaren arabera "esnea ekoizteko ugalketarako" ustiatetik direnek ere aurreko baldintza betetzeko aukera izango dute baldin eta urtean gutxienez 60 litro ekoizten badute ugaltzaile eta urte bakoitzeko.

Laguntzaren zenbatekoa:

Ardi bakoitzeko zenbateko unitarioa kalkulatu da eskualde bakoitzari esleitutako zenbatekoa zatituz eskualde horri dagozkion abere hautagarrien artean.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 60 eurotik gorakoa izan abere hautagarri bakoitzeko.

Laguntza, printzipioz, 10 € izan daiteke Espainiako penintsulan, abere hautagarri eta urte bakoitzeko.

ARDIEI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Goierriko emakume abeltzain batek 24 ha belardi deklaratu ditu 2015eko Eskaera Bakarrean. Abeltzain horrek esnea ekoizteko ugalketarako ardi-aziendaren ustiatetik gisa inskribatu du ustiatetik Abeltzaintza Ustiatetik Erregistro Orokorrean. Gainera, urtarrilaren 1etik aurrera, titular horrek 12 hilabetetik gorako 120 eme deklaratu ditu, eta horietatik 96 ugaltzaileak dira. Gainera, 70 arkume saldu dituela eta 7.200 ardi-esne litro ekoiztu dituela deklaratu du. Zenbatekoa izango da ardien laguntza gehigarria?

Animalia hautagarriek (12 hilabetetik gorako emeak, urtarrilaren 1ean deklaratuak, eta ustiatetik irteko mugimenduen gutxienezko atalase-maila 0,4 arkume izanik eme hautagarri eta urte bakoitzeko, edo gutxienez 60 litro ekoiztea ugaltzaile eta urte bakoitzeko) laguntza jasotzeko. Oinarriko laguntza unitarioa abere hautagarri eta urte bakoitzeko 10 € baldin bada, gutxi gorabehera.

- Abere hautagarriak: 120
- Abereen irteerako mugimenduak 0,4 arkume izan behar du eme hautagarri bakoitzeko, edo bestela 60 litro-esne ekoiztu behar du ugaltzaile eta urte bakoitzeko. Bietako edozein betetzen du, baina ez du zertan biak bete.
- Laguntza, guztira: 120 abere hautagarri x 10 €/abere bakoitzeko = 1.200 €

Gainera, abeltzain horrek Oinarriko Ordainketaren, greeningaren, jardueran hasten den gaztearen eta gizentzeko azienaren laguntza jasotzeko aukera izan dezake.

7.10. Ahuntzen ustiatetik lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

Ardien ustiatetik laguntza bat emango zaie.

Estatuan urteko hornidura 14.000 milako euro da. Bi eskualde sortu dira: uharterko eskualdea eta mendialdeak batetik eta estatuko gainerako lurraldea bestetik. Aurrez aipatutako kopuru hori bi eskualde horien artean banatuko litzateke, 12.956 milako euro

Espainiako penintsularen eskualderako eta 1.044 milako euro uharteko Eskualderako, hurrenez hurren.

Mendialdeetako eta Balear Uharteetako eskualderako, neurri hori gehienez 860.571 ahuntzi aplika dakieke, eta gainerako lurralderako 801.881 ahuntzi, hurrenez hurren.

Ustiategiaren produkzio-unitateak hainbat eskualdetan daudenean, eskatzailearen ustiatagia zer eskualdetan dagoen jakiteko, produkzio-unitate bakoitzean dauden abere hautagarrien kopurua hartuko da kontuan. Abere hautagarrien kopuru handiena biltzen duten produkzio-unitateak eskualde jakin batean daude, eta eskualde horixe izango da ustiategiaren kokalekua. Hortaz, abere hautagarri guztiek eskualde horri dagokion zenbatekoa jasoko dute, haien zati bat beste eskualdeko unitateetan kokatuta egon arren.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira.

1. 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarriko ordainketarako eskubideak aktibatzeke hektarea onargarririk ez badute
2. Ardi espeziearen emeak izango dira abere hautagarriak, baldin eta ugaltzaile gisa hazten badira nahitaezko errolda-deklarazioaren arabera, eta ongi identifikatuta eta erregistratuta badaude, eskaera bakarra aurkezteko urte bakoitzeko urtarillaren 1ean indarrean dagoen araudiaren arabera.

10 eme hautagarri edo gehiago dituzten ustiategiekin bakarrik jasoko dute laguntza elkartu hau. Hala ere, gutxienezko muga hori murriztu edota kendu egin ahal izango da Estatukoarekin alderatuta ahuntz-aziendaren errolda % 2tik beherakoa duten autonomia-erkidegoetan, Euskadiren kasuan, esaterako.

Abere hautagarriak kokatu behar diren ustiategiekin honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean inskribatua egon beharko dute "esnea ekoizteko ugalketarako", "haragia ekoizteko ugalketarako" edo "produkzio mistoko ugalketarako" ardi-aziendaren ustiategi gisa, sailkapen zooteknikoaren arabera.
- b) Ustiategiko irteerako mugimenduen gutxienezko atalase-maila 0,4 arkume izatea eme hautagarri eta urte bakoitzeko, laguntza hori jasotzeko baldintza artifizialak sortu daitezkeen saihesteko.

Sailkapen zooteknikoaren arabera "esnea ekoizteko ugalketarako" ustiategi diren ere aurreko baldintza betetzeko aukera izango dute baldin eta urtean gutxienez 100 litro ekoizten badute ugaltzaile eta urte bakoitzeko.

Ustiategiaren produkzio-unitateak mendialdeetan eta mendialdeetatik aparteko eremuetan daudenean, eskatzailearen ustiatagia zer eremutan dagoen jakiteko, produkzio-unitate bakoitzean dauden abere hautagarrien kopurua hartuko da kontuan. Abere hautagarrien kopuru handiena biltzen duten produkzio-unitateak eskualde jakin batean daude, eta eskualde horixe izango da ustiategiaren kokalekua. Hortaz, abere hautagarri guztiek eskualde horri dagokion zenbatekoa jasoko dute, haien zati bat beste eskualdeko unitateetan kokatuta egon arren.

Laguntzaren zenbatekoa:

Ahuntz bakoitzeko zenbateko unitarioa kalkulatu da eskualde bakoitzari esleitutako zenbatekoa zatituz eskualde horri dagozkion abere hautagarrien artean.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 30 eurotik gorakoa izan abere hautagarri bakoitzeko.

Laguntza, printzipioz, 8 € izan daiteke Espainiako penintsulan, abere hautagarri eta urte bakoitzeko.

AHUNTZEI LOTUTAKO LAGUNTZAREN ADIBIDEA

Arabako Errioxako abeltzain batek 44 ha labore lur eta 6 ha zuhaixkadun larre deklaratu ditu 2015eko Eskaera Bakarrean. Abeltzain horrek haragia ekoizteko ugalketarako ahuntz-aziendaren ustiategi gisa inskribatu du ustiatagia Abeltzaintza Ustiategien Erregistro Orokorrean. Gainera, urtarrilaren 1etik aurrera, titular horrek 12 hilabetetik gorako 240 eme deklaratu ditu. Gainera, 120 antxume saldu dituela deklaratu du. Zenbatekoa izango da ahuntz-aziendaren laguntza gehigarria?

Animalia hautagarriek (12 hilabetetik gorako emeak, urtarrilaren 1ean deklaratuak, eta ustiategitik irteteko mugimenduen gutxieneko atalase-maila 0,4 arkume izanik eme hautagarri eta urte bakoitzeko, edo gutxienez 100 litro ekoiztea ugaltzaile eta urte bakoitzeko) laguntza jasotzeko. Oinarrizko laguntza unitarioa 8 € baldin bada abere hautagarri eta urte bakoitzeko, gutxi gorabehera.

- Abere hautagarriak: 240
- Laguntza, guztira: 240 abere hautagarri x 8 €/abere bakoitzeko = 1.920 €

Gainera, abeltzain horrek Oinarrizko Ordainketaren, greeningaren, jardueran hasten den gaztearen eta gizentzeko aziendaren laguntza jasotzeko aukera izan dezake.

7.11. 2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.

Neurri horri urtean 2.227 mila euroko aurrekontu-hornidura esleituko zaio guztira.

Neurri hori gehienez 15.650 abereri aplikatu dakieke.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez badute
- 2014an eskubide arrunten titular izaki kanpaina horretan 0,2 hektareako azalera edo azalera handiagoa deklaratu zuten eskubide berezien titularrek ezin izango

dute laguntza hori jaso, eta kasu horietan laguntza gehigarri espezifiko bat ezarriko litzateke.

- c) Nolanahi ere, hori ez ezik, Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorrean inskribatutako ustiatgien titular ere izan beharko dute.
- d) Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira. Urte bakoitzean abeltzain bakoitzak abere hautagarri batzuegatik jasoko du ordainketa, eta abere hautagarri horiek, deskribatutako abeltzaintzako sektoreei lotutako laguntzarako ezarritako hautagarritasun-baldintzak betetzen dituzten abere berberak izango dira.

Laguntzaren zenbatekoa:

Abere bakoitzaren urteko zenbatekoa urtean behin lortuko da, laguntza horretarako zenbatekoa zatituz abere hautagarrien artean.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 210 eurotik gorakoa izan.

7.12. 2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten gizentzeko behien abeltzainei lotutako laguntza.

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.

Neurri hori urtean 1.440 mila euroko aurrekontu-hornidura esleituko zaio guztira.

Neurri hori gehienez 19.220 abereri aplikatu dakieke.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- a. 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez badute
- b. 2014an eskubide arrunten titular izaki kanpaina horretan 0,2 hektareako azalera edo azalera handiagoa deklaratu zuten eskubide berezien titularrek ezin izango dute laguntza hori jaso.
- c. Nekazaritza Ustiatgien Erregistro Orokorrean inskribatutako abeltzaintza-ustiatgien titular ere izan beharko dute.
- d. Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira. Urte bakoitzean abeltzain bakoitzak abere hautagarri batzuegatik jasoko du ordainketa, eta abere hautagarri horiek, deskribatutako abeltzaintzako sektoreei lotutako laguntzarako ezarritako hautagarritasun-baldintzak betetzen dituzten abere berberak izango dira.

Aurrekoa gorabehera, abereak azken ustiategitik irten badira bitarteko ustiategi batera joateko, tratulari batengana edo kontzentrazio-zentro batera adibidez,

Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean horrela jasota daudenak, handik hiltegiarako edo esportaziorako bidea hartu baino lehen, bitarteko ustiategira mugitu aurretik abereen kokaleku izan zen ustiategiak laguntza jasotzeko aukera izango du, baldin eta aipatutako betekizun guztiak betetzen baditu eta bitarteko ustiategiaren gehienez 15 egun ematen badute.

Abereen jomuga erabakitzeko eta abereak ustiategiaren noiz sartu ziren eta hautagarritasuna eragin duten helmugetarako bidea noiz hartuko duten zehazteko, SITRAN Abereen Trazabilitateko Sistema Integrala erabiliko da. Helmuga horietarako bidea hartzen dutenetik ustiategiaren sartu arte gutxienez hiru hilabeteko tartea izango da abereen hautagarritasuna zehazteko.

Eskatzailea gizendegi komunitario bateko kide bada eta gizendegi horretara abereak badaramatza gizentzeko, abere horiek kontuan hartuko dira eskatzaile horren laguntza elkartuan, eta kendu egingo dira gizendegiko laguntza-zenbaterako kalkulatzeko, salbu eta azken horrek ere laguntza elkartu horretarako betekizunak biltzen baditu. Azken kasu horretan, gizentzeko behien ustiategietarako laguntza elkarturako ezarritakoari jarraituko zaio

Laguntzaren zenbatekoa:

Abere bakoitzaren urteko zenbatekoa urtean behin lortuko da, laguntza horretarako zenbatekoa zatituz abere hautagarrien artean.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 112 eurotik gorakoa izan.

7.13. 2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten esnetarako ardi eta ahuntzen abeltzainei lotutako laguntza

Xedea, eremua eta laguntzaren hornidura:

2014an eskubide bereziak zituzten eta orain oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez duten esnetarako behien abeltzainei lotutako laguntza.

Neurri horri urtean 30.155 milako euroko aurrekontu-hornidura esleituko zaio guztira.

Neurri hori gehienez 1.073.000 abereri aplikatu dakieke.

Onuradunak eta betekizunak (urtekoak):

- a) 2014an eskubide berezien titular izan diren eskatzaileek ezin izango dute laguntza hori jaso, baldin eta oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeko hektarea onargarririk ez badute
- b) 2014an eskubide arrunten titular izaki kanpaina horretan 0,2 hektareako azalera edo azalera handiagoa deklaratu zuten eskubide berezien titularrek ezin izango dute laguntza hori jaso, eta kasu horietan laguntza gehigarri espezifikoko bat ezarriko litzateke.

- c) Nolanahi ere, hori ez ezik, Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Orokorrean inskribatutako ustiatgien titular ere izan beharko dute.
- d) Laguntzak abere hautagarri bakoitzeko eta urteko emango dira. Urte bakoitzean abeltzain bakoitzak abere hautagarri batzuegatik jasoko du ordainketa, eta abere hautagarri horiek, deskribatutako abeltzaintzako sektoreei lotutako laguntzearako ezarritako hautagarritasun-baldintzak betetzen dituzten abere berberak izango dira.

Laguntzaren zenbatekoa:

Abere bakoitzaren zenbateko unitarioa urtean behin lortuko da, laguntza horretarako zenbatekoa zatituz abere hautagarrien artean.

Ordainketa horren zenbateko unitarioa ezin izango da inoiz 45 eurotik gorakoa izan.

BEHIN-BEHINEKOA

PAGOS DIRECTOS 2015 - Real Decreto 1075/2014
Gehieneko aurrekontu- eta kopuru-mugak eta gehieneko zenbateko unitarioak

LÍNEA DE AYUDA		2.015		
		LÍMITE PRESUPUESTARIO (miles de euros)	LÍMITE CUANTITATIVO (animales, ha)	Importe Unitario máximo (euros)
Régimen de Pago Básico*		2.809.784		
Pago para prácticas agrícolas beneficiosas para el clima y el medio ambiente		1.452.797		
Pago suplementario para jóvenes agricultores		96.853		
Ayuda asociada voluntaria	Terneros cebados en la misma explotación de nacimiento: España peninsular	12.488	370.996	125
	Terneros cebados en la misma explotación de nacimiento: Región insular	93	1.627	
	Terneros cebados procedentes de otra explotación: España peninsular	25.913	2.458.879	
	Terneros cebados procedentes de otra explotación: Región insular	193	14.469	
	Vaca nodriza: España peninsular	187.294	2.100.000	400
	Vaca nodriza: Región insular	451	3.000	
	Ovino: España peninsular	124.475	15.831.764	60
	Ovino: Región insular	3.428	254.854	
	Caprino: España peninsular	5.386	801.881	30
	Caprino: Región insular + zonas de montaña	5.093	860.571	
	Primeras 75 vacas de las explotaciones de vacuno de leche: España peninsular	51.861	436.146	430
	Primeras 75 vacas de las explotaciones de vacuno de leche: Región insular + zonas de montaña	26.986	206.215	
	Vacas distintas de las primeras 75 de las explotaciones de vacuno de leche: España peninsular	9.853	162.789	
	Vacas distintas de las primeras 75 de las explotaciones de vacuno de leche: Región insular + zonas de montaña	2.652	39.023	
	Derechos especiales vacuno de leche	2.227	15.650	
	Derechos especiales vacuno de engorde	1.440	19.220	
	Derechos especiales ovino y caprino	30.155	1.073.000	45
	Remolacha azucarera: zona de producción de siembra primaveral	14.470	32.500	1.600
	Remolacha azucarera: zona de producción de siembra otoñal	2.366	7.600	
	Arroz	12.206	122.060	400
	Tomate para industria	6.352	25.000	1.016
	Frutos de cáscara y algarrobas: España peninsular	12.956	390.500	105
	Frutos de cáscara y algarrobas: Región insular	1.044	27.500	
Cultivos proteicos: proteaginosas y leguminosas	21.646	360.759	250	
Cultivos proteicos: oleaginosas	22.891	572.287		
Legumbres de calidad	1.000	10.000	400	
Pago específico al cultivo del algodón	60.841	48.000	1.267,525	

* Incluye el incremento del 3% del límite máximo nacional contemplado en el artículo 22.2 del Reglamento (UE) nº 1307/2013.

8. NEKAZARITZAN HASTEN DIREN NEKAZARI GAZTEENTZAKO ORDAINKETA

8.1. Nork du nekazaritzan hasten diren gazteentzako ordainketa osagarri hori eskuratzeko eskubidea?

Osagarri hori jasotzeko, nekazariak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Gehienez 40 urteko adina izatea oinarrizko ordainketarako eskubideen lehen eskaera aurkeztu zuen urtean.
- b) Nekazaritzako ustiategi batean lehenengo aldiz ezartzea ustiategi horren arduradun gisa, edo oinarrizko ordainketaren erregimenaren babesean egindako eskaera lehenengo aldiz aurkeztu baino bost urte lehenago ezarri izana ustiategi horretan. Nekazari gazte bat ustiategiaren arduraduna dela ulertuko da baldin eta epe luzera begira ustiategiaren kudeaketarekin, etekinekin eta finantza-arriskuekin zerikusia duten erabakiak kontrolatzen baditu. Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzaren dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.
- c) Ordainketarako eskubidea izatea oinarrizko ordainketaren erregimenaren arabera, eta dagozkion ordainketa-eskubideak aktibatu izana.
- d) Oinarrizko Ordainketaren Erreserba Nazionalaren eskubideen esleipenaren esparruan, nekazari gazte diren pertsona fisiko eta juridikoentzat ezarritako baldintzak betetzea.

Zehazki, nekazari gazteak honako hauek dira:

1. Erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen eskaera aurkeztu duten urtean gehienez 40 urteko adina duten pertsona fisikoak, baldin eta:
 - Lehen ezarpenaren laguntza ematearen aldeko espediente bat badute Landa Garapenerako Programaren esparruan, edo lehentasunezko ustiategi batean ezarri badira nekazari profesional gisa, edo Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategi gisa katalogatzeko eskaera egin badute erreserba nazionalaren eskaera aurkeztu duten aldiaren eta katalogazio horren jabe badira eskubideak esleitu baino lehen, edo 2014an erreserba nazionalaren ordainketa bakarreko eskubideen esleipena jaso badute.
 - Jardunean hasi badira 2013. urtera arteko ordainketa bakarreko erregimenean sartuta zeuden sektoreetako batean edo oinarrizko ordainketaren erregimenean sartu den sektore batean.
 - Nekazaritzako ustiategi batean lehenengo aldiz ezartzea ustiategi horren arduradun gisa, edo oinarrizko ordainketaren erregimenaren babesean egindako eskaera lehenengo aldiz aurkeztu baino bost urte lehenago ezarri izana ustiategi horretan. Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzaren dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.
2. Pertsona juridikoak, haien forma edozein izanik ere, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Erreserba nazionalaren oinarriko ordainketarako eskubideen esleipena eskatzen duen pertsona juridikoaren gaineko epe luzerako benetako kontrola, a puntuan jasotakoa betetzen duen nekazari gazten baten ardura izatea. Gazte batek pertsona juridikoa benetan kontrolatuko du baldin eta gaztearen akzio edo partizipazioek osatutako kapital sozialak partizipazio gehien dauzkan bazkidearena gainditzen badu, eta, horrez gain, haren zuzendaritza-batzordeko edo gobernu-organoko kide bada.
- Zenbait pertsona fisikok, nekazari gazteak ez diren pertsonak barne, pertsona juridikoaren kapitalean edo kudeaketan parte hartzen badute, nekazari gaztea denbora luzean benetako kontrola egiteko moduan egongo da, banaka edo beste nekazari batzuekin elkarlanean. Pertsona juridiko bat, banaka edo beste batzuekin batera beste pertsona juridiko baten kontrolpean badago, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak pertsona juridiko hori kontrolatzen duen edozein pertsona fisikori aplikatuko zaizkio.

Xede horretarako, aurreko atalean «ezarpena» aipatu dugunean, pertsona juridikoa kontrolatzen duten nekazari gazteen ezarpena adierazi nahi izan dugu.

Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzari dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.

Zehazki, nekazaritzan hasten diren nekazariak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. 19/1995 Legean zehaztutakoaren arabera lehentasunezko ustiategi batean nekazari profesional gisa ezarri izana egiaztatzea, edo Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategi gisa katalogatzeko eskaera egin izana erreserba nazionalaren eskaera aurkezten duten eskaera bakarraren aldiaren, eta dagokion katalogazioaren jabe izatea eskubideak esleitu baino lehen
2. Jardunean hastea 2013. urtera arte ordainketa bakarreko erregimenean sartutako sektoretako batean, edo, 13. artikuluan jasota egonik, 2015ean oinarriko ordainketarako erregimenean sartutako sektoretako batean, edo 2014an erreserba nazionalaren ordainketa bakarrerako eskubideen esleipena jaso izana.
3. 2013an edo ondorengo urte batean nekazaritzako jardura batean hasi izana, baldin eta nekazaritzako jarduerari ekin aurreko bost urteetan nekazaritzako jarduerarik bere kontura egin ez badu, edota denboraldi horretan nekazaritzako jardura batean aritzen den pertsona juridikoa kontrolatu ez badu. Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzari dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.
4. Oinarriko ordainketarako erregimenerako erreserba nazionalaren eskaera aurkeztea, beranduenez bi urte geroago nekazaritzan hasi den urte naturalaz geroztik.

8.2. Zenbatekoa da nekazaritzan hasten diren gazteentzako osagarria?

Ordainketaren zenbatekoa urtean behin kalkulatzen da aktibatutako ordainketarako eskubideen kopurua kopuru finko batez biderkatuta, azken kopuru hori nekazariak jabetzan edo alokairuan dauzkan eskubideen batez besteko balioaren % 25 izanik.

Gazte bat pertsona juridikoaren barruan sartzen bada, kalkulu horretarako kontuan hartu beharreko eskubideen kopurua doitu egingo da, gazteek pertsona juridikoan duten parte-hartze ehunekoaren arabera.

Aurreko atalaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartu beharreko ordainketa-eskubide aktibatuak gehienez 90 izango dira.

Nekazari gazteentzako laguntzaren zenbatekoa ez da urtean behin doitu konbergentziari jarraiki.

Ordainketa gehienez bost urterako emango da, ezarpenaren urteaz geroztik. Aldi hori murriztuko da nekazari gaztearen ezarpenetik laguntza osagarri hori jasotzeko ordainketa-eskaera lehen aldiz aurkeztu duen arte igarotako urteen arabera.

Gazteen osagaia Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen batez besteko balioaren % 25 da

Gehienez ere 90 eskubide hartzen ditu aintzat

Ez du konbergentziarik bete behar.

Greeningarengatik ordainketak Oinarrizko Ordainketa baino ez du kontuan hartzen, eta beraz gazteentzako ordainketa ez du kontuan hartzen.

GAZTEENTZAKO ORDAINKETAREN ADIBIDEA

Arabako Lautadako emakumezko nekazari gazte bat 2013an ezarri da. 2015. urtean nekazari horri 8. eskualdeko Oinarrizko Ordainketarako 70 Eskubide esleitu zaizkio, jabetzan eta eskubideko 146 €-ko zenbateko unitarioarekin, 8. eskualdeko Oinarrizko Ordainketarako 15 Eskubide, errentan eta eskubideko 168 €-ko zenbateko unitarioarekin, eta 20. eskualdeko Oinarrizko Ordainketarako 8 Eskubide, eskubideko 425 €-ko zenbateko unitarioarekin. Zenbatekoa da gazteentzako osagarria?

Lehenik eta behin, pertsona horrek jarduera 2013an hasi zuenez, gehienez 5 urtez kobratu dezake ezarpenaren urteaz geroztik. Hortaz, 2015ean osagarria kobratu dezake.

Osagarria kalkulatzeko, aktibatutako ordainketa-eskubideen kopurua (gehienez 90 eskubide) biderkatuko da interesdunak eskura dauzkan ordainketarako eskubideen batez besteko balioaren % 25az.

- Eskubide kopurua guztira: $70 + 15 + 8 = 93$. Hortaz, gehienez 90 eskubide
- Eskubidearen batez besteko balioa: $[(70 \times 146) + (15 \times 168) + (8 \times 425)] / 93 = 173,55 \text{ €/eskubide}$
- Gazteentzako ordainketa: $90 \text{ eskubide} \times 173,55 \times 0,25 = 3.904,88 \text{ €}$

9. NEKAZARI TXIKIEN ERREGIMEN LABURTUA

9.1. Nor sartu daiteke Nekazari Txikien Erregimenean?

2015ean oinarritzko ordainketarako eskubideak jabetzan edo alokairuan dauzkaten nekazariak, ordainketa zuzenetan guztira 1.250 euro baino gutxiago jaso behar badituzte, nekazari txikientzako erregimenean sartuko dira automatikoki, salbu eta esanbidez erabakitzen badute ez dutela hartan parte hartu nahi, 2015eko urriaren 15a baino lehen jakinarazita.

2015/09/30a baino lehen, ekoizle bakoitzaren ordainketa zuzen guztien gutxi gorabeherako behin-behineko kalkulua egingo da, eta 1.250 €-tik beherako ordainketa dagokien nekazariari horren berri emango zaie.

Jakinaraziko zaie, halaber, nekazari txikien erregimenean ez dutela parte hartu nahi erabakitzeko eskubidea badutela, nahiz eta horretarako baldintzak bete.

2015etik aurrera, nekazari berriek nekazari txikien erregimenean sartzeko aukera izango dute, baina bakar-bakarrik ordainketarako eskubiderik esleitzen bazaie erreserba nazionalaren bitartez eta laguntza zuzenetan 1.250 €-tik behera jaso behar badute, eta erregimen horretara lagapen baten bidez biltzen diren ekoizleek ere eskubide hori izango dute.

Nekazari txikien erregimeneko kide direnek ezin dezakete, inondik inora, beste edozein ordainketa zuzenik jaso.

Nekazari txikien erregimenean parte hartzen duen nekazari batek 2015ean ordainketa- eskubideak aktibatzen baditu, eskubide horiek aktibatuta egongo dira nekazari horrek erregimen horretan parte hartzen duen aldi guztian.

2015etik aurrerako kanpainetan, nekazari txikien erregimenean bildutako nekazariak erregimen horretan jarraitzeari uzteko aukera izango dute, eskaera bakarreko aldian.

Nekazari batek Nekazari Txikien Erregimenean sartu nahi ez badu, 2017/10/15a baino lehen jakinarazi behar du

Nekazari batek erregimen horretan parte hartzeari uko egiten badiu, aurrerantzean ezin izango du hartan berriz ere sartzeko eskatu.

Nekazari Txikien Erregimenean sartzea ofizioz ezarriko da baldin eta 2015ean guztira jaso beharreko ordainketa zuzenen zenbatekoa 1.250 €-ra iristen ez bada. Kalkuluak zenbateko gordinen gainean egiten dira (murrizketak eta eskusioak ezarri aurretik)

9.2. Zenbatekoa da Nekazari Txikien Erregimenaren barruan dagoenari dagokion ordainketa?

Eman beharreko ordainketa 2015ean nekazariari eman beharreko ordainketa zuzenen guztizkoa da, oinarritzko ordainketaren, greeningaren, laguntza gehigarrien erregimenak bane. 2015. urtetik aurrera, zenbateko horrek ordeztuko ditu laguntza-erregimen horien harira urtean behin eman beharrekoak, eta bere horretan jarraituko du, aldaketarik gabe beraz, ondorengo kanpainetan; hortaz, konbergentzia ez da aplikatuko.

EGOERAK

2015ean nekazari batek alokairu-eskubideak deklaratu ditu bakarrik, eta guztira 1.250 €-tik beherako kopuru bat jaso behar du ordainketa zuzenetan. Nekazari Txikien Erregimenaren barruan al dago?

Hasteko Nekazari Txikien Erregimenean sartzen zaio ofizioz, baina Erregimen horretan parte hartzeari ukoa emateko aukera ere badu. Nolanahi ere, 2013/09/15a baino lehen jakinarazi behar du ez duela erregimen horretan sartu nahi. Adi! Egoera edozein izanik ere, horrek eskubideen lagatzaile eta jabeari ez dio inola eragingo, eta eskubideek aktibatuta jarraituko dute.

9.3. Zer betekizun eta zer abantaila dute Nekazaritza Txikien Erregimenaren barruan sartutako nekazariak?

Besteak beste, honako hauek bete behar dituzte:

- a) Dagozkien Erregistroetan inskribatuta egotea, Ustiatgien Erregistroan, Nekazaritza Ustiatgien Erregistro Orokorrean eta abar.
- b) 2015. urtean gutxienez hektarea onargarrien kopuru bat deklaratea.
- c) Erregimen horren barruan jarraitu nahi dutela berrestea, eta lurzatieen gutxieneko informazioa aurkeztea 2016tik aurrera Eskaera Bakarra egiteko unean.

Bestetik, honako abantaila hauek ere baditu:

- a) Baldintzapekotasunaren araberako kontrolik ez dute izango.
- b) Ez dute greeninga bete beharrik izango.
- c) Nekazari aktiboari dagozkion eskakizunak ez zaizkie aplikatuko, dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea izan ezik.
- d) Eskaera bakarra aurkeztean, Erregimen horretan jarraitu nahi dutela berretsiz eta lurzatiei buruzko gutxieneko informazioa aurkeztuz.
- e) Eskaera bakarrean ustiatetik nekazaritza-lurzati guztietako azalera osatu gabe deklaratzegatik aurreikusitako zigorrak ez dira aplikatuko nekazari txikien erregimenaren esparruan.
- f) Nekazari Txikien Erregimenean sartutako nekazarien izenak ez dira argitaratzen

2016tik aurrera, Nekazari Txikien Erregimenean sartutako nekazariak, Eskaera Bakarra aurkeztean, Erregimen horren barruan jarraitu nahi dutela berretsi beharko dute, eta lurzatieen gutxieneko informazioa aurkeztu.

Gainera, 2016tik aurrera, Eskaera Bakarra aurkeztearekin batera Nekazari Txikien Erregimenean jarraitzeko ukoa aurkeztu daiteke, baina kasu horretan etorkizunean ezin izango da erregimen horretara itzuli.

Nekazari txikien erregimenean parte hartzen duten bitartean, nekazari txikiek jabetzan edo alokairuan dauzkaten ordainketa-eskubideak ez dira baliatu gabeko ordainketa-eskubidetzat hartuko, eta hortaz ez dira erreserba nazionalera itzuli beharko.

9.4. Posible al da Nekazari Txikien Erregimeneko ordainketa-eskubideak lagatzea edo eskualdatzea?

Ez, erregimen horretan parte hartzen duten nekazarien eskubideak ezin izango dira eskualdatu, salbu eta herentzia bat tartean dagoenean, titularrak erretiroa hartu eta lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea denean, jardunari behar baino lehen uzteko programa onartuta dagoenean, edo lanerako ezintasun iraunkorren kasuetan.

Lagapen horietako baten bitartez, nekazari txikien erregimenean parte hartzen duen nekazari baten eskutik ordainketa-eskubideak jasotzen dituzten nekazariak erregimen horretan parte hartzeko aukera izango dute, baldin eta oinarrizko ordainketaren erregimenaren onuraduna izateko betekizunak betetzen badituzte, eta, lagapenean, eskubideak eskualdatu dizkien nekazariaren ordainketa-eskubide guztiak jasotzen badituzte.

Nekazari Txikien Erregimenean bildutako nekazariak ordainketa bakarra eman behar zaie, 300 €-tik 1.250 €-ra bitarte urtean (2015ean eta 2016an barneko muga 100 eta 200 € da, hurrenez hurren).

Ekizleek eskubideak lurrik gabe saltzean oinarrizko ordainketarako eskubideak guztira 300 €-tik behera badira, eskubide horien salmenta errazteko ez da inolako atxikipenik aplikatuko.

Nekazari txikien erregimenean, nola justifikatzen da nekazari aktiboa izatea?

Nekazari horiek ez dute 80/20 araua bete behar, baina dagozkien erregistroetan inskribatu behar dute.

1.250 eurotik gora jasotzen duen nekazari batek, ordainketaren zati bat bakarrik ordaindu al dezake nekazari txikien erregimenean sartu ahal izateko?

Sartzeko erregimena ez da hautazkoa. 1.250€ baino gutxiago kobratzen duena nekazari txikien erregimenean sartzen da (horri uko egiten ez badiu), eta hori baino gehiago kobratzen duena kanpo geratzen da.

Nekazari txikien erregimenean bildutako nekazariak ezin dute ordainketa gehigarriak jaso. Ba al dute ordainketa gehigarriak jasotzeko aukera?

Nekazari Txikien Erregimenean sartutako nekazariak ezin dezake ordainketa gehigarriak jaso. 2015. urtean, ekizle batek jasotako kopurua hartzen da aintzat, ordainketa gehigarriak barne. 2015ean 1.250€-tik beherako kopuru bat jasotzen badute, Nekazari Txikien Erregimenean inskribatuko zaie automatikoki, eta etorkizunean kopuru finko bat jasoko dute (ezarri beharrekoa), baina ezin izango dute ordainketa gehigarriak jaso.

BEHIN-BEHINEKOA

10. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN LAGAPENAK

10.1. Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen eskualdaketak

Oinarrizko ordainketarako eskubideak eskubide horiek esleitu diren oinarrizko ordainketaren erregimenaren eskualde berean laga ahal izango dira, bai salmenta bidez, alokairu bidez edo zuzenbidean onartutako beste edozein modu erabiliz

Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak esleitu diren Eskualdearen barruan laga daitezke bakarrik, salmenta edo alokairu bidez

Laguntza-eskubideen salmenta eta alokairua lurrekin edo lurrik gabe egin ahal izango dira.

Lurren alokairuak oinarrizko ordainketarako eskubideak errentatzaileari salduz edo dohaintzaz amaitzen badira, lurrekin egindako eskubideen salmentatzat hartuko dira.

Eskubide zatiak lagatzeko, irizpide proportzionalak erabiliko dira eskubidearen balioa kalkulatu eta

esleitzeko.

Ordainketa-eskubideak aktibotzat hartutako nekazari bati eskualdatu dakizkioke bakarrik, herentzien kasuan izan ezik.

Lurren alokairuak oinarrizko ordainketarako eskubideak errentatzaileari salduz edo dohaintzaz amaitzen badira, lurrekin egindako eskubideen salmentatzat hartuko dira.

10.2. Zer atxikipen aplikatzen zaie eskubideen eskualdatzeei?

- a) Laguntza-eskubideak lurrik gabe saltzeko edo errentan emateko, erreserba nazionalari eskubide bakoitzaren balioaren ehuneko 20 itzuliko zaio, salbu eta ekoizleek egindako lagapenen oinarrizko ordainketarako eskubideen guztizko zenbatekoa 300 €-ra iristen ez bada, haien eskubideen salmenta errazteko.
- b) Laguntza-eskubideak lurrekin saldu edo errentan emateko ez da inolako atxikipenik aplikatuko.
- c) Honako kasu hauetan ere ez da inolako atxikipenik aplikatuko:
 - Nekazaritzako jarduera hasten duen nekazariari lurrekin edo lurrik gabeko laguntza-eskubideen behin betiko salmentaren edo lagapenaren kasuan.
 - Titularra ordeztzen bada herentzia bat tartean dagoenean; erretiroa hartu eta eskubideen lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea denean; jardunari behar baino lehen uzteko programa onartua dagoenean; lanerako ezintasun iraunkorren kasuetan; ustiategiaren estatutu juridikoa aldatzen denean; zenbait pertsona fisiko edo juridiko nortasun juridikorik gabeko beste pertsona fisiko edo erakunde batean elkartzan direnean; eta pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak zatitzen direnean. Ustiategi bat titulartasun partekatuko ustiategiaren erregistroan inskribatuzetik eratorritako titulartasun-aldaketak ere hemen bilduko dira, baldin eta alde zuzeneko titularrak ustiategi horren parte izaten segitzen badu. Zirkunstantzia

horiek guztiak probatzeko, dagozkien dokumentu publiko edo pribatuak aurkeztuko dira, zergak likidatuta.

10.3. Noiz egin daitezke eskubideen lagapenak eta noiz jakinarazten zaizkio Administrazioari?

Lagatzaileak laguntza-eskubidearen lagapenaren berri emango du, eta, jakinarazpen horrekin batera, aukeratutako lagapen motaren arabera beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuko ditu, lagapena egiaztatzeko. Komunikatzeko epea azaroaren 1ean hasiko da eta hurrengo urteko eskaera bakarra aurkezteko epea bukatzen denean amaituko da. VII. eranskinean oinarritzko ordainketarako eskubideak lagatzeko eredu bat jaso da, Administrazioari jakinarazteko baliagarria.

Komunikazioaren ondoren sei hilabete igarotzean agintari eskudunak haren aurka dagoela jakinarazi ez badu, horretarako arrazoiak emanez, lagapena onartu egin dela ulertuko da. Nolanahi ere, 10.2 puntuan jasotako atxikipen-ehunekoak aplikatzeko, agintari eskudunak komunikazioa onartzeko aukera izango du, lagatzaileak ekarritako dokumentazioaren bidez egiaztatutako lagapen motaren arabera. Edozein kasutan, agintari eskudunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dizkio kontrako arrazoiak lagatzaileari.

Titularra aldatzen bada herentzia bat tartean dagoelako; erretiroa hartzen duelako eskubideen lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako senidea izanik; jardunari behar baino lehen uzteko programa onartu zaiolako; lanerako ezintasun iraunkorren kasuetan; bat-egiteak edo zatiketak daudenean eta nortasun juridikoa aldatzen denean; titulartasun-aldaketa horiek eta titulartasun-aldaketen ondoriozko alokairu-aldaketak agintari eskudunei jakinaraziko zaizkie, gutxienez VII. eranskinean jasotako informazioa aurkeztuz, eskaera bakarra aurkezteko epearen mugaeguna baino lehen.

Ordainketa-eskubideak aktibotzat hartutako nekazari bati eskualdatu dakizkioke bakarrik, herentzien kasuan izan ezik

Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak lurrik gabe eskualdatzen badira 2015eko maiatzaren 15a baino lehen, % 20aren peajea aplikatu beharko da.

2015eko maiatzaren 15a baino lehen ezinezkoa da Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak lurrik GABE lagatzea. Egun horren aurretik egiten diren lagapen GUZTIAK lurrekin batera gauzatu behar dira.

Posible al da Oinarritzko Ordainketarako Eskubideak lurrik GABE errentan ematea?

Bai. Gainera, % 20ko peajea aplikatuko litzaioke. Kenkari horrek behin betiko eragiten dio errentatzaileari, hau da, eskubide horren balioa % 20 jaitsiko da errentatzaileari itzultzen zaionean. Berriz ere errentan ematen badu, % 20ko beste peaje bat aplikatuko zaio.

11. OINARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEEN ERRESERBA NAZIONALA

11.1. Nola osatzen da Erreserba Nazionala?

2015ean erreserba nazionalari gaineratuko zaizkio artikuluko horren 1. atalean jasotako zenbatekoak, gehenez ere Oinarrizko Ordainketaren Erregimenaren ehuneko 3, baina 2015ean atxikipen-ehuneko hori handitzeko aukera izango da, edo ordainketa-eskubideen balioa linealki murrizteko aukera izango da, baldin eta igoera edo murrizketa horiek beharrezkoak badira:

- a) Behin betiko administrazio-egintzak edo -epaiak estaltzeko.
- b) Nekazari gazteen eta nekazari hasiberrien kasuak estaltzeko, beharrezkotzat jotzen denean.

Gainera, honako hauek erreserba nazionalean sartuko dira:

- a) Bi urte segidan baliatu ez diren laguntza-eskubide guztiak, ezinbesteko kasuetan eta aparteko zirkunstantzietan izan ezik.
- b) Nekazariak beren borondatez lagutako ordainketa-eskubideak.
- c) Ustekabeko onura aplikatzean lortutako zenbatekoak.
- a) Ordainketa-eskubideen salmenta eta lagapenen ondorioz kendutako ehunekoak aplikatzeagatik atxikitako zenbateko guztiak

11.2. Nor sartu daiteke Erreserba Nazionalean?

Erreserba Nazionalean sartzeko eskaera bat aurkeztu beharko da urte bakoitzeko eskaera bakarra aurkezteko epean (VI. eranskinean jaso dira Erreserba Nazionalean bildu nahi duten eskatzaileen egiaztagiria).

Honako hauek erreserba nazionalako oinarrizko ordainketarako eskubideak lortuko dituzte, betiere, ezarritako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Epai judizial irmoen edo administrazio-egintza irmoen bidez, laguntza-eskubideak jasotzeko edo dauzkaten eskubideen balioa handitzeko legitimatuta dauden nekazariak.
- b) Lehentasunez, nekazari gazteek eta hasiberriek, nahiz eta alde aurretik, 2014ko erreserba nazionalaren bitartez, ordainketa bakarrerako eskubideen lehenengo esleipena jaso izan, betiere atal honetan ezarritako irizpideak betetzen badituzte.
- c) Ezinbesteko arrazoiak edo aparteko zirkunstantziak direla medio 2015ean oinarrizko ordainketarako eskubideen lehen esleipena eskuratu ez duten nekazariak.

Erreserbaren eskubideak jasotzeari dagokionez, nor dira nekazari gazteak?

- a. Erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen eskaera aurkezten duten urtean gehienez 40 urteko adina duten pertsona fisikoak, baldin eta:
1. Lehen ezarpenaren laguntza ematearen aldeko espediente bat badute Landa Garapenerako Programaren esparruan, edo lehentasunezko ustiategi batean ezarri badira nekazari profesional gisa, edo Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategi gisa katalogatzeko eskaera egin badute erreserba nazionalaren eskaera aurkeztu duten aldian eta katalogazio horren jabe badira eskubideak esleitu baino lehen, edo 2014an erreserba nazionalaren ordainketa bakarreko eskubideen esleipena jaso badute.
 2. Jardunean hasia 2013. urtera arte ordainketa bakarreko erregimenean sartutako sektoretako batean, edo, 13. artikuluan jasota egonik, 2015ean oinarrizko ordainketarako erregimenean sartutako sektoreetako batean, edo 2014an erreserba nazionalaren ordainketa bakarrerako eskubideen esleipena jaso izana.
 3. Nekazaritzako ustiategi batean lehenengo aldiz ezartzea ustiategi horren arduradun gisa, edo oinarrizko ordainketaren erregimenaren babesean egindako eskaera lehenengo aldiz aurkeztu baino bost urte lehenago ezarri izana ustiategi horretan. Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzari dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.
- b. Pertsona juridikoak, haien forma edozein izanik ere, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:
1. Erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen esleipena eskatzen duen pertsona juridikoaren gaineko epe luzerako benetako kontrola, a puntuan jasotakoa betetzen duen nekazari gazte baten ardura izatea. Gazte batek pertsona juridikoa benetan kontrolatuko du baldin eta gaztearen akzio edo partizipazioek osatutako kapital sozialak partizipazio gehien dauzkan bazkidearena gainditzen badu, eta, horrez gain, haren zuzendaritza-batzordeko edo gobernu-organoko kide bada.
 2. Zenbait pertsona fisikoak, nekazari gazteak ez diren pertsonak barne, pertsona juridikoaren kapitalean edo kudeaketan parte hartzen badute, nekazari gaztea denbora luzean benetako kontrola egiteko moduan egongo da, banaka edo beste nekazari batzuekin elkarlanean. Pertsona juridiko bat, banaka edo beste batzuekin batera beste pertsona juridiko baten kontrolpean badago, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak pertsona juridiko hori kontrolatzen duen edozein pertsona fisikori aplikatuko zaizkio.

Xede horretarako, aurreko atalean «ezarpena» aipatu dugunean, pertsona juridikoa kontrolatzen duten nekazari gazteen ezarpena adierazi nahi izan dugu.

Atal horren xedeetarako lehen ezarpena zein den zehazteko, Gizarte Segurantzari dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.

Erreserbaren eskubideak eskuratzeari dagokionez, zer betekizun behar ditu nekazari batek nekazari hasiberriat hartua izateko?

- a. 19/1995 Legean zehaztutakoaren arabera lehentasunezko ustiategi batean nekazari profesional gisa ezarri izana egiaztatzea, edo Lehentasunezko Nekazaritza Ustiategi gisa katalogatzeko eskaera egin izana erreserba nazionalaren eskaera aurkezten duten eskaera bakarraren aldian, eta dagokion katalogazioaren jabe izatea eskubideak esleitu baino lehen
- b. Jardunean hasia 2013. urtera arte ordainketa bakarreko erregimenean sartutako sektoretako batean, edo, 13. artikuluan jasota egonik, 2015ean oinarrizko ordainketarako erregimenean sartutako sektoreetako batean, edo 2014an erreserba nazionalaren ordainketa bakarrerako eskubideen esleipena jaso izana.
- c. 2013an edo ondorengo urte batean nekazaritzako jardura batean hasi izana, baldin eta nekazaritzako jarduerari ekin aurreko bost urteetan nekazaritzako jarduerarik bere kontura egin ez badu, edota denboraldi horretan nekazaritzako jardura batean aritzen den pertsona juridiko bat ere kontrolatu ez badu. Xede horretarako jardueraren hasiera zein den zehazteko, gizarte-segurantzari dagokion nekazaritza-jardueraren erregimenean alta hartu duen eguna hartuko da aintzat.
- d. Oinarrizko ordainketarako erregimenerako erreserba nazionalaren eskaera aurkeztea, beranduenez bi urte geroago nekazaritzari hasi den urte naturalaz geroztik.

Erreserbaren xedeetarako, zein dira ezinbestezko arrazoiak edo aparteko zirkunstantziak?

- a. Nekazari gazteari eta nekazari hasiberriari buruzko ataletan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten nekazariak, baldin eta 2014ko kanpainan erreserba nazionalaren ordainketa bakarreko eskubideak esleitu bazaizkie, 1698/2005. Erregelamenduan (EE) ezarritako Landa Garapenerako Programa baten eremuan lehen aldiz ezarri ziren nekazari berriak direla oinarritzat hartuta.
- b. Ezinbestezko arrazoiengatik edo aparteko zirkunstantziengatik 2013an ordainketarik jaso ez dutenez “2013an ordainketa jasotzeko eskubidea eduki izana, edozein murrizketa edo eskusio ezarri baino lehen ordainketa zuzenen laguntza-eskaera bati dagokionez, 73/2009. Erregelamenduarekin (EE) bat etorritik” betekizuna betetzen ez duten nekazariak, baldin eta erreserba nazionalaren kontura oinarritzko ordainketarako eskubideak eskatzen badituzte.
- c. Ezinbestezko arrazoiengatik edo aparteko zirkunstantziengatik 2015ean eskaera bakarra aurkeztu ez dutenez “Ordainketa-eskubideen esleipena eskatzea oinarritzko ordainketaren erregimenari jarraiki, beranduenez 2015eko eskaera bakarra aurkezteko mugaegunean, ezinbesteko kasuan edo aparteko zirkunstantzietan izan ezik” betekizuna betetzen ez duten nekazariak, baldin eta, ondoren, erreserba nazionalaren kontura oinarritzko ordainketarako eskubideak eskatzen badituzte. Egoera hori gertatzen denean onuradunak edo haren eskubidedunak alegazio bat idatziko du eskaera arauzko epearen barruan aurkezteko galarazi zion ezinbesteko arrazoi edo aparteko zirkunstantzia azaltzeko, eta idazkia eskumeneko autonomia-erkidegoari helaraziko dio, agintaritzari hori gogobetetzeko beharrezko frogak erantsiz, onuradunak edo haren eskubidedunak hori egiteko moduan dagoen egunaz geroztik hamabost egun baliodunen epean, 640/2014. Erregelamendu Delegatuaren (EE) 4.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erreserba nazionalak gainditzen badu oinarritzko ordainketaren erregimenerako urteko gehieneko mugaren % 0,5, esleitutako oinarritzko ordainketarako eskubide guztien balioa linealki igotzeko aukera izango da, baldin eta epai edo administrazio-egintza irmoen ondoriozko esleipenentarako eta nekazari gazte eta nekazari hasiberrien esleipenentarako behar adinako kopuruak eskuragarri geratzen badira.

11.3. Zer baldintza eskatzen da Erreserba Nazionalen sartzeko?

Betiere, erreserba nazionalen sartu nahi duten nekazariak honako baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Nekazari aktiboa izatea
- b) Zehaztutako hektarea onargarriak edukitzea oinarritzko ordainketaren xedeetarako, eskubideak hektarea horien arabera esleitu ahal izateko.
- c) Erreserba nazionalaren oinarritzko ordainketarako eskubideak azalera baterako eskatzen dira, eta azalera horrek eskatzailearen eskura egon behar du erreserba nazionalaren eskubideak jasotzeko egindako eskaerari dagokion kanpainaren eskaera bakarra aurkezteko unean; hortaz, eskaera horretan ongi jasota egongo da.

Nekazari gazteek, erreserba nazionalen sartzeko, honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dituzte baldintza orokorrez gain:

- a) Nekazari bat landa-garapenerako programa baten esparruan lehen aldiz ezarri dela ulertuko da lehen ezarpenaren laguntza ematearen aldeko espediente bat tartean

dagoenean eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta azalera oinarrizko ordainketaren erregimenari erantsitako sektoreetako bati lotuta badago.

- b) Nekazari bat landa-garapenerako programa baten esparruan lehen aldiz ezarri dela ulertuko da lehen ezarpenaren laguntza ematearen aldeko espediente bat tartean dagoenean eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta azalera oinarrizko ordainketaren erregimenari erantsitako sektoreetako bati lotuta badago.
 - c) Nahitaezkoa da ezarpena edo erregistroak aurreko bost urteen barruan gertatu izana, oinarrizko ordainketaren erregimenaren babesean lehen eskaera aurkeztu zenez geroztik
 - d) Ezinezkoa da nekazariak erreserba nazionalaren eskubideak jaso izana erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen aurreko esleipenetan, epai judizial irmoen kasuan izan ezik.
 - e) Beharrezkoa da nekazaria nekazaritzan hasi izana eta gizarte-segurantzaren alta hartu izana nekazaritzaren alorrean, indarreko legeriak ezarritakoa betez, erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean.
 - f) Nekazariak, erreserba nazionalaren eskaerari dagokion urteko eskaera bakarrean, nekazari diharduen ustiategiaren deklarazioa egingo du, bera bakarrik edo beste batzuekin batera ustiategi horren titularra baita jabetza- edo alokairu-erregimenean.
 - g) Lehen ezarpenaren egunaren aurreko 5 kanpainetan nekazaritzan jardun ez izana.
3. Nekazari gazteek, erreserba nazionalan nekazari hasiberriak direlako sartzen badira, honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dituzte baldintza orokorrez gain:
- a) Ezinezkoa da nekazariak erreserba nazionalaren eskubideak jaso izana erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen aurreko esleipenetan, epai judizial irmoen kasuan izan ezik.
 - b) Nekazari bat landa-garapenerako programa baten esparruan lehen aldiz ezarri dela ulertuko da lehen ezarpenaren laguntza ematearen aldeko espediente bat tartean dagoenean eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta azalera oinarrizko ordainketaren erregimenari erantsitako sektoreetako bati lotuta badago.
 - c) Beharrezkoa da nekazaria nekazaritzan hasi izana eta gizarte-segurantzaren alta hartu izana nekazaritzaren alorrean, indarreko legeriak ezarritakoa betez, erreserba nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideen eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean.
 - d) Nekazariak, erreserba nazionalaren eskaerari dagokion urteko eskaera bakarrean, nekazari diharduen ustiategiaren deklarazioa egingo du, bera bakarrik edo beste batzuekin batera ustiategi horren titularra baita jabetza- edo alokairu-erregimenean.
 - e) Lehen ezarpenaren egunaren aurreko 5 kanpainetan nekazaritzan jardun ez izana.

11.4. Nola ezartzen dira Erreserba Nazionaleko ordainketa-eskubideak?

Erreserba nazionalan nekazari gazteak direlako edo nekazari hasiberriak direlako sartzen diren nekazariantzat:

- a) Esleitu beharreko ordainketa-eskubideen balioa bat etorriko da esleipen-urtean eskubideek eskualdean duten batez besteko balioarekin.
- b) Eskualdearen batez besteko balioa kalkulatzeko, esleipen-urterako oinarritzko ordainketari dagokion eskualdeko gehieneko muga zatitu egingo da eskualde horretan esleitutako guztizko eskubide kopuruaren artean.
- c) Nekazari gazte batek edo nekazari hasiberri batek jabetzako edo alokairuko oinarritzko ordainketarako eskubiderik ez badu, eta erreserba nazionalaren eskubideak eskatzen baditu, ordainketa-eskubideen kopuru jakin bat jasoko du, hain zuzen ere esleipen-eskaera aurkezteko mugaegunean jabetzan edo alokairuan zituen zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren berdina. Eskubide horien balioa kalkulatu da a) letran adierazitakoaren arabera.
- d) Nekazari gazte batek edo nekazari hasiberri batek erreserba nazionalaren eskubideak eskatzen baditu, baina alde zuzenetik zenbait ordainketa-eskubideren jabe bada, jabetzan zein alokairuan, ordainketa-eskubideen kopuru jakin bat jasoko du, hain zuzen ere esleipen-eskaeraren mugaegunean jabetzan edo alokairuan eskura dauzkan zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren berdina, baina oraindik oinarritzko ordainketarako eskubiderik esleitu ez zaien hektareak soilik aintzat hartuta. Eskubide horien balioa kalkulatu da a) letran adierazitakoaren arabera.

Kasu horretan, gainera, nekazariak jabetzan edo alokairuan dauzkan ordainketa-eskubideen balioa a) letran jasotako eskualdeko batezbestekoa baino txikiagoa bada, eskubide horien urteko balio unitarioak igotzeko aukera izango da eskualdeko batezbesteko horretara iritsi arte.

- e) Gazte bat pertsona juridiko baten barruan sartzen bada, a) letraren arabera kalkulatu eskubide kopurua doitu egingo da, zehaztutako azalera onargarriaren proportzioa kontuan hartuta, pertsona juridiko horren bazkide diren gazteek pertsona juridiko horretan duten parte-hartze ehunekoaren arabera.

Ezinbesteko kasuetan edo aparteko zirkunstantzietan:

- a) Ordainketa-eskubideen urteko balio unitarioak ezarriko dira, hasierako esleipenean ezarritakoak bezalakoak, baldin eta horrelako ezinbesteko arrazoirik edo aparteko zirkunstantziarik gertatu ez bada (hasierako balioa eta haren konbergentzia).
- b) Jabetzan edo alokairuan ordainketa-eskubiderik ez duen nekazari batek erreserba nazionalaren eskutik eskubide horiek jasotzeko eskubidea badu eta eskubide horiek eskatzen baditu, ordainketa-eskubideen kopuru jakin bat jasoko du, hain zuzen ere esleipen-eskaera aurkezteko mugaegunean jabetzan edo alokairuan dauzkan zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren berdina.
- c) Jabetzan edo alokairuan ordainketa-eskubiderik ez duen nekazari batek erreserba nazionalaren eskutik eskubide horiek jasotzeko eskubidea badu eta eskubide horiek eskatzen baditu, ordainketa-eskubideen kopuru jakin bat jasoko du, hain zuzen ere esleipen-eskaera aurkezteko mugaegunean jabetzan edo alokairuan dauzkan zehaztutako hektarea onargarrien kopuruaren berdina.

Laguntza-eskubideak jasotzeko edo lehendik dauden eskubideen balioa handitzeko, epai edo administrazio-egintza irmoari jarraiki, nekazaria legitimaturik dagoen kasuetan,

nekazariak dagozkion kopuruan eta balioan eskubideak jasoko ditu, epai edo administrazio-egintza irmoan oinarrituta.

Lehenik eta behin, epai judizial irmoetan edo administrazio-egintza irmoetan ezarritako eskubideak esleituko dira. Esleipen hori egin ostean erreserban soberakinik geratzen bada, nekazari gazteentzat eta nekazari hasiberrientzat ezarritako eskubideak esleituko dira. Bigarren esleipenaren ostean oraindik ere erreserban soberakinik geratzen bada, ezinbesteko arrazoiengatik edo aparteko zirkunstantziengatik oraindik jaso ez dituztenei esleituko zaizkie eskubideak.

11.5. Nola esleitzen dira Erreserba Nazionalako ordainketa-eskubideak?

Autonomia-erkidegoek Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsari bidaliko diote Erreserba Nazionalan sartzeko eskaeretan jasotako informazioa, bi taldetan ordenatutako ebazpen-proposamenen zerrendarekin batera. Lehen talde batean, epai judizial irmoen edo administrazio-egintza irmoen bidez laguntza-eskubideak jasotzeko edo lehendik dauzkaten eskubideen balioa handitzeko legitimatuta dauden nekazariak bilduko dira eta bigarrenean gainerako eskatzaileak. Jasotako informazioan eta erreserba nazionalaren eskuragarritasunean oinarrituta, Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak nekazari bakoitzari emango zaizkion eskubideak ezarriko ditu, eta aipatutako informazioa autonomia-erkidego bakoitzari igorriko dio.

Autonomia-erkidegoek beren eremuko nekazariari jakinaraziko diete eskubideen esleipena, erreserba nazionalaren eskubideen eskaera aurkezten duten urtearen ondorengo urteko otsailaren 28a baino lehen. Epe hori amaitzerako esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, interesdunek beren eskaera atzera bota dela hartu dezakete aintzat.

Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, azaroaren 16ko 30/1992 Legearen 59.6 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, komunikazio horren ordez informazio hori argitaratu egin daiteke, 20.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

11.6. Gaizki esleitutako Oinarrizko Ordainketarako Eskubideak berreskuratzea

Lehen eskubide-esleipenari dagokionez, frogatzen baldin bada nekazari bati esleitutako ordainketarako eskubideen kopurua handiagoa dela esleitu beharko litzaiokeen kopurua baino, gaizki esleitutako ordainketarako eskubideak erreserba nazionalari itzuliko zaizkio.

Aurreko atalean aipatutako gaizki egindako esleipena agintari eskudunaren edo beste agintari baten erruz gertatzen bada, eta bidezkoa bada pentsatzea onuraduna ez dela oker horretaz ohartu, azken horri esleitutako gainerako laguntza-eskubideak behar bezala doitu dira.

Eskubideak onuradunei eskualdatu bazaizkie aurreko ataletan aipatutako doikuntza egin baino lehen, eskubide horiek lagapen-hartzaileei kenduko zaizkie, proportzionalki laga zaizkien ordainketarako eskubideen kopuruaren arabera.

Gainera, frogatzen bada nekazari bati esleitutako oinarrizko ordainketarako eskubideen balioa benetan egokitu beharko litzaiokeen balioaren gainetik dagoela, balio hori doitu egingo da, eta erreserba nazionalari eskualdatuko zaio gaizki esleitutako zenbatekoa Aldez

aurretik aipatutako eskubideak beste nekazari batzuei laga bazaizkie doikuntzaren aurretik, ondoriozko balioa lagapen-hartzailearen eskubideei jasanaraziko zaie, eta azken horiek aukera izango dute lagatzaileari dagokiona ordaindu dezan eskatzeko.

Frogatzen bada onuradun bati esleitutako eskubide kopurua benetan dagokiona baino handiagoa dela, eta esleitutako ordainketarako eskubide horien balioa benetan dagokion balioaren gainetik dagoela, lehenik eta behin ordainketarako eskubideen balioa doituko da, gaizki esleitutako zenbatekoa erreserba nazionalari itzuliz, eta, jarraian, erreserba nazionalari itzuliko zaizkio gaizki esleitutako ordainketarako eskubideak.

Artikulu honetan aurreikusitako laguntza-eskubideen kopurua edo balioa doitzeak ez du berekin ekarriko eskubide horiei dagozkien eskualdeen konbergentzia berriz ere sistematikoki kalkulatu beharra.

BEHIN-BEHINEKOA

12. **BALDINTZAPEKOTASUNA**

12.1. **Nori eragiten dio baldintzapekotasunak?**

Honako hauek bete behar dituzte baldintzapekotasun-arauak:

- a) Oinarrizko Ordainketaren, klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza-jardueretarako ordainketaren (greeninga), laguntza elkartuen, eta nekazari hasiberrientzako ordainketaren erregimenei jarraiki 1307/2013 Erregelamendutik eratorritako ordainketa zuzenak jasotzen dituzten nekazariak.

Nekazari txikien aldeko erregimenean parte hartzen duten nekazariak ez dira kontrolpean egongo baldintzapekotasunaren xedeetarako.

- b) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez (1305/2013 Erregelamendua) neurri jakin batzuegatik Landa Garapenerako urteko primak jasotzen dituzten onuradunek, zehazkiago honako eremu hauetarako neurriengatik jasotzen dituztenek: ingurumena eta klima (ingurumen-neurriak), nekazaritza ekologikoa, Natura 2000 sarearen eta Uraren Esparru Zuzentarauaren babesean egindako ordainketak, muga naturalak eta bestelako muga espezifikoak dauzkaten eremuetarako laguntza (ICM), abereen ongizatea, eta baso eta ingurumenaren eta klimaren zerbitzuak eta basozaintza.
- c) 1308/2013 Erregelamenduari jarraiki mahastiak berregituratu eta birmoldatzeagatik eta mahasti berdeen uztagatik ordainketak jasotzen dituzten onuradunek.
- d) 1698/2005 Erregelamenduaren landa-garapenerako zortzi neurrien onuradunek, zehazkiago honako laguntza hauek jasotzen dituztenek: nekazarietako mendialdeetako zailtasun naturalengatik kalte-ordaina emateko laguntzak; nekazarietako mendialdeez aparteko eremuetako zailtasunengatik kate-ordaina emateko laguntzak; «Natura 2000» laguntzak eta Uraren Esparru Zuzentarauarekin zerikusia duten laguntzak; nekazaritza- eta ingurumen-laguntzak; eta abereen ongizatearekin zerikusia duten laguntzak. Gainera, 2012., 2013. edo 2014. urteetan mahastia abian jartzeko eta mahastia berregituratu eta birmoldatzeko primaren lehen ordainketa jaso duten onuradunek, 1234/2007 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Baldintzapekotasunak honako hauei eragiten die

- a) **Oinarrizko Ordainketaren, greeningaren, gazteen eta ordainketa gehigarrien ordainketa zuzenak jasotzen dituztenei**
- b) **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bitartez ingurumen-laguntzak, nekazaritza ekologikoaren laguntzak, Natura 2000 sarearen eta Uraren Esparru Zuzentarauaren babesean egindako ordainketak, ICM laguntzak, abereen ongizaterako laguntzak, eta baso eta ingurumenaren eta klimaren zerbitzuetarako eta basoak zaintzeko laguntzak jasotzen dituztenei.**
- c) **1308/2013 Erregelamenduari jarraiki mahastiak berregituratu eta birmoldatzeagatik eta mahasti berdeen uztagatik ordainketak jasotzen dituzten onuradunek.**
- d) **2007-2013 aurreko programazioaldiko b) eta c) puntuetako laguntzak "arrastatzen" dituzten onuradunei.**

12.2. Zer betebeharrak dute onuradunek baldintzapekotasunari dagokionez?

Onuradunek baldintzapekotasun-arauak eta luraren nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza egokien alorreko arauak bete beharko dituzte VII. eranskinean ezarritakoari jarraiki (1306/2013 Erregelamenduaren II. Eranskinarekin bat etorritik), baita autonomia-erkidegoan ezarri daitezkeenak ere.

12.3. Zer betebeharrak ezartzen dira larre iraunkorrei dagokienez?

2015. eta 2016. urteei dagokienez, baldintzapekotasun-arauetan larre iraunkorren mantentzea ere bilduko da.

Larre iraunkorretara bideratutako azalaren nekazari edo abeltzain titularra erkidegoko araudian aurreikusitako eskakizunei lotuko zaie, baita, hala badagokio, larre iraunkorren guztizko azalera murrizketa esanguratsua izan ez dezan prebenitzeko autonomia-erkidegoek ezartzen dituztenei ere.

Horretarako, 2014. urtean SIGPAC sistemari buruzko Errege Dekretuan zehaztutako onargarritasun-koefizientea aplikatu aurretik deklaraturako larre iraunkorren azalaren eta nekazaritza-azalera osoaren arteko proportzioa Estatuan % 5aren gainetik jaitsi bada 1122/2009 Erregelamenduaren (EE) 3. artikuluko 4. atalari jarraiki ezarritako erreferentziazko proportzioaren aldean, 2015ean ordainketa zuzenen erregimenen babesean laguntzak eskatzen dituzten onuradunek baimena eskatuko dute larre iraunkorretarako lurak bihurtzeko, 640/2014 Erregelamenduko (EE) 37. artikuluko 2. atalean aurreikusitako salbuespenekin.

Egiaztatzen bada 2014an ezinezkoa dela 1122/2009 Erregelamenduko (73/2009 Erregelamendua (EE) garatzeko arauak ezartzen ditu, Erregelamendu horrek nekazariari zuzenean laguntzeko ezarritako erregimenen baldintzapekotasunari, modulazioari eta kudeaketa- eta kontrol sistema bateratuari dagokienez, baita 1234/2007 Erregelamendua (EE) garatzeko arauak ere, mahastizaintzako eta ardogintzako sektorerako ezarritako laguntza-erregimenaren baldintzapekotasunari dagokionez) 3. artikuluko 2. atalean jasotako betekizuna betetzea, hau da, 2014an proportzioak % 10aren gainetik egin badu behera, aurrez aipaturako betebeharrak gain, larre iraunkorrak bestelako erabileretarako azalera bihurtu dituzten onuradunek laguntza bat eskatzen badute 2015ean ordainketa zuzenen edozein erregimenari jarraiki, lurak lehengo erabilerara itzuliko dituzte, hau da, berriz ere larre iraunkor bihurtuko dituzte, 640/2014 Erregelamenduko (EE) 37. artikuluko 3. atalean ezarritako baldintzen arabera.

Aldez aurretik aipaturako betebeharrak 2015. urtean aplikatuko dira bakarrik, baina 2015ean eta 2016an kontrolak egingo dira benetan betetzen direla bermatzeko.

12.4. Zer zigor aplikatzen da baldintzapekotasunari lotutakoa ez betetzeagatik?

12.1 atalean aurreikusitako laguntzen onuradun batek 12.2 atalean aurreikusitako baldintzapekotasun-betebeharrak betetzen ez baditu urte natural jakin baten edozein unetan, betetzen ez baditu, eta ez-betetze hori zuzenean egotzi badakioke urte hartan laguntza-eskaera edo ordainketa-eskaera aurkeztu zuen onuradunari, zigor bat aplikatuko zaio.

Zigor hori onuradunak aurkeztu dituen edo aurkezten dituen laguntza-eskaerei dagokienez, onuradun horri emandako edo eman beharreko ordainketen (12.1 atalean aurreikusitakoak) gutzizko zenbatekoa murriztuz edo baztertuz aplikatuko da ez-betetzea dagoela jakiten den urte naturalean.

Zigorra soilik aplikatuko da ez-betetzea onuradunari zuzenean egotzi dakioken ekintza edo ez-egite baten ondorio denean, eta, gainera, haren nekazaritza-jarduerarekin lotuta badago eta/edo haren ustiategiaren azalerari eragiten badio. Ez-betetzeak baso-eremuei eragiten badie, eta onuradunak eremu horietarako laguntzarik eskatu ez badu, zigorra ez da aplikatuko.

Lehenengo paragrafoa, baldintzak betetzeko betebeharrak bete ez dituzten onuradunei aplikatuko zaie mutatis mutandis, edozein unetan hiru urteko epean, mahastia berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntza-programen esparruan egin den lehen ordainketaren urte naturalaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera, edota edozein unetan urtebetez 1308/2013 (EE) Erregelamenduan aipatzen den mahasti berdeen uztari laguntzeko programen esparruan ordainketa hori egin den urte naturalaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera.

Zigorak kalkulatzeko eta aplikatzeko, 640/2014 (EE) Erregelamenduaren 39. eta 40. artikuluetan eta 809/2014 Erregelamenduaren 73., 74. eta 75. artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Lurra urte naturalean edo dagokion urteetan eskualdatzen den kasuetan, 12.1. atala ere aplikatuko da dagokion ez-betetzea lurra eskualdatu zitzaien edo lurra eskualdatu zuen pertsonari zuzenean egotzi dakioken egintza edo ez-egite baten ondorio bada. Nolanahi ere, egintza edo ez-egitea zuzenean egotzi dakioken pertsonak laguntza-eskaera edo ordaintzeko eskaera urte naturalean edo dagozkion urteetan aurkeztu badu, zigorra pertsona horri emandako edo eman beharreko ordainketen gutzizko zenbatekoen oinarriaren gainean aplikatuko da.

1306/2013 (EE) Erregelamenduaren 99. artikulua 2. atalaren bigarren paragrafoaren ondorioetarako, alerta azkarreko sistema bat ezartzeko aukera izango da, eta aplikatuko da, ongi justifikatutako kasuetan, ustiategitik kanpoko eraginik ez duten larritasun arineko ez-betetzeen aurrean, baldin eta ez-betetze horietatik ondoriorik eratortzen ez bada edo ez-betetze horiek urtebete baino gutxiago irauten badute (hortaz, ez dute murrizketarik edo esklusiorik ekarriko berekin). Osasun publikorako edo abereen osasunerako zuzeneko arriskuak dakartzaten ez-betetzeen kasuetan, beti aplikatuko da murrizketa edo esklusioa.

Hiru hilabeteko epearen barruan lekuan bertan egindako kontrolaren egunaren ondoren nekazariari ez-betetzearen berri emango zaio, eta neurri zuzentzaileak hartu beharra jakinaraziko zaio. Segidako hiru urte naturaleko epearen barruan egindako kontrol batean ezartzen bada ez-betetzea ez dela agintaritza eskudunak ezarritako epe zehatzean bete eta egiaztapena egin zen urtearen ondorengo urteko ekainaren 30etik aurrera ezin izango dela luzatu, gutxienez % 1eko murrizketa aplikatuko da alerta azkarreko sistema aplikatzeko xede izan zen ez-betetzea atzeman zen urteari dagokionez. Zigorra

kalkulatzeko, ez-betetzea ondorengo kontrola egin den urtean errepikatu ote den hartuko da kontuan. Nolanahi ere, onuradunak ez-betetzea ezarritako epean zuzendu badu, ez da ez-betetzetzat hartuko errepikatzen bada.

1306/2013 Erregelamenduaren (EE) 100. artikulua aplikatuz baldintzapekotasuna ez betetzeagatik egindako murrizketen ondoriozko zenbatekoen % 25 autonomia-erkidegoen esku geratuko da, proportzionalki haietako bakoitzean atxikitako zenbatekoen arabera.

Baldintzak betetzearen inguruko kontrolei dagokienez laguntza ordaintzeari buruzko 809/2014 (EE) Erregelamenduaren 66. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontrol horiek 1306/2013 (EE) Erregelamenduaren 92. artikuluan aipatzen diren urteko laguntzen eta sarien ordainketa egin aurretik amaitu ezin direnean, onuradunak zigorraren ondorio gisa ordaindu beharko duen zenbatekoa berreskuratu egingo da bidegabeko ordainketak berreskuratzeari buruzko Erregelamenduaren (EE) 7. artikulua arabera, edo konpentsazio-bidez (offsetting).

BEHIN-BEHINEKOR

13. KUDEAKETA ETA KONTROL SISTEMA BATERATUA

13.1. Zer aplikazio-eremu dauka kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuak?

Kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratua 1307/2013 Erregelamenduaren (EE) I. Eranskinean zerrendatutako laguntza-erregimenei aplikatuko zaie, zehazki honako hauei:

- Oinarrizko ordainketaren erregimenari
- Klimaren eta ingurumenaren ikuspegitik onuragarriak diren nekazaritza jardueretarako ordainketari
- Nekazari gazteentzako ordainketei
- Nekazari txikien aldeko erregimenerako ordainketari.
- Laguntza elkartuari.

1305/2013 Erregelamenduan (EE) jasotako honako laguntza hauei ere aplikatzen zaie:

- Nekazaritza- eta klima-laguntzei, salbu eta laguntza jakin batzuk ematen badira kontserbazioaren eremurako eta nekazaritzan baliabide genetikoaren erabilera eta garapen iraunkorrak sustatzeko (ikus 1075/2014 Errege Dekretuaren 90. artikulua)
- Nekazaritza ekologikoa
- Natura 2000ren eta Uraren Esparru Zuzentarauaren babespeko ordainketei
- Oztopo naturalak edo bestelako muga espezifikokoak dituzten eremuetarako laguntzari
- Animalien ongizateari
- Baso-ingurumenerako eta klimarako zerbitzuei eta basozaintzari

Eta 1303/2013 Erregelamendua (EE) aplikatuko da, baldin eta honako hauek gauzatu behar badira:

- Tokiko garapen partizipatiboan oinarritutako estrategiaren arabera operazioak egitea
- Tokiko ekintzarako taldearen lankidetzajarduerak prestatzea eta egitea

Basoberritzeko, baso-azalerak sortzeko eta nekazaritza- eta baso-sistemak ezartzeko aurreikusitako neurriei ere ez zaie aplikatuko, ezarpen-kostuei dagokienez.

13.2. Zer da eskaera bakarra eta zer eduki dauka?

Urtean 13.1 atalean adierazitako ordainketa zuzenetako bat lortu nahi duten nekazariak eskaera bakarra aurkeztu beharko dute X eranskinean ezarritakoaren arabera.

Eskaera horretan bilduko dira, halaber, 1305/2013 Erregelamendutik (EE) eratorritako Landa Garapenerako Programen arabera ezarritako ordainketa-eskaerak, sistema bateratuaren eremuko landa-garapenerako neurriei dagokienez: baso eta ingurumenaren eta klimaren zerbitzuak eta basozaintza, eta, bidezko bada, eragiketarako egitea landa-garapen partizipatiboan oinarritutako strategiari jarraiki, eta toki-ekintzaren taldeko lankidetzajarduerak prestatzea eta egitea.

Ordainketa zuzenen kasuan, ustiategiaren arduradunak aurkeztuko du eskaera bakarra. Hortaz, jarduera horren ohiko garapenarekin zerikusia duen dokumentazio guztia edukiko du eskura, araudi espezifikoak ezarritako erregistro eta ustiategi-liburu guztiei dagokienez.

Ustiategiaren titularrak bere gain hartu behar du eskaeran deklaraturako informazioa egiazkoa izatea bere alderdi guztietan, eta zehazkiago laguntza jasotzeko onargarritasunari, eta II. tituluan nekazari aktiboaren betekizunak betetzeko eta nekazaritzan aritzeko egoerari dagokionez. Hala ez bada, 1075/2013 Errege Dekretuaren VI. tituluko II. kapituluan ezarritako zigorak aplikatuko dira, baita erkidegoko araudian ezarritakoak ere, zehazkiago 1306/2013 Erregelamenduko (EE) 63. artikuluan eta ondorengoetan jasotakoak.

Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsak, eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoek, SIGPACaren datu-base eguneratua argitaratuko dute, urtero, beren webguneetan.

Edukiari dagokionez:

- Agintari eskudunek horretarako ezarritako baliabide elektronikoen bitartez aurkeztuko da eskaera bakarra, agintari eskudunak adierazitako aparteko kasuetan izan ezik, eta kasu horietan agintariak bere gain hartuko du nekazariak aurkeztutako eskaera formatu elektronikoan sartzea.
- Ustiategiko nekazaritza-lurzatiak grafikoki eta formatu digitalean mugatu behar dira (hemendik aurrera «deklarazio grafikoa»), ongi identifikatu eta kokatu ahal izateko. Horretarako, autonomia-erkidegoko agintari eskudunak ezarritako informazio geografikoko sistemen teknologian oinarritutako tresna informatikoak erabiliko dira.
- Aurreko paragrafoa, beranduenez, honela aplikatuko da:
 - a) 2016ko kanpainatik aurrera nahitaezkoa izango da 200 ha-tik gora deklaritzen dituzten eskatzaile guztientzat;
 - a) 2017ko kanpainatik aurrera nahitaezkoa izango da 30 ha-tik gora deklaritzen dituzten eskatzaile guztientzat;
 - a) 2018ko kanpainatik aurrera nahitaezkoa izango da eskatzaile guztientzat;

Agintari eskudunak adierazitako aparteko kasuetan, onuraduna deklarazio grafikoa egiteko gai ez bada, paperean adieraziko du nekazaritza-lurzati mugaketa, eta administrazioak deklarazioa hori deklarazio grafiko bihurtuko du.

Deklarazio grafikoa nahitaezkoa ez bada, deklaraturako nekazaritza-lurzati bakoitza identifikatzeko, lurzati hori osatzen duten SIGPAC esparruaren edo esparruen identifikazio-kodea erabiliko da, eta azalera hektareatan adieraziko da bi dezimalekin.

- Eskaera bakarrean, ustiategiko nekazaritza-azalera guztia osatzen duten nekazaritza-lurzati guztiak deklaraturako dira, hain zuzen ere ustiategiko titularraren eskura daudenak jabetza-, gozamen-, alokairu- edo apartzeria-erregimenetan, baita agintari eskudun kudeatzaileak esleitutako herri-azalera ere, laguntza-erregimenaren eskaeratik kanpo utzitakoak barne. Landa-garapenerako programen azalerengatiko laguntza-neurrien kasuan, laguntza-eskaeraren barruko azalera osoa deklaraturako da, nekazaritzakoa ez dena barne.
- Errege Dekretu horren 1. artikuluan bildutako laguntzak jasotzeko aukera izango dute gutxienez 100 metro koadroko azalera onargarria duten nekazaritza-lurzatiek.

- Nekazariak esanbidezko deklarazio bat egingo du deklaraturako esparru bakoitzaren mugaketarekin, erabilerarekin eta SIGPACean jasotako gainerako informazioekin ados dagoela adierazteko. Hala ez bada, dagozkion alegazioak egin beharko ditu, hurrengo artikuluan zehaztutakoaren arabera.
- Hala badagokio agintari eskudunak ezarriko dituen irizpide eta prozeduren arabera, nekazariak deklaraturako esparru guztien erabilera deklaraturako du eskaera bakarrean, edota bazkarako edo laborantzarako egoera egokian egindako mantentze-lan guztiak.
- Bere eskaera bakarrean nekazariak baimen bat bilduko du, agintari eskudunak Zerga Administrazioaren eskutik informazio fiskala jaso dezan, eta horrela nekazari aktiboa izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko (80/20 araua). Baimen hori aurkezten ez badu, bere diru-sarreraren fiskalak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu nekazariak.
- Artikulu honetan aurreikusitakoaz gain, eskaerak bildu beharko du, gutxienez, honekin batera doan X eranskinean jasotako informazio guztia, eskaturako erregimenaren arabera, eranskin horren V. atalean adierazitako dokumentazio osagarriari jarraiki. Nolanahi ere, agintari eskudunaren eskura dagoen informazioaren arabera, agintari horrek erabakiko du nekazariak zer informazio eta zer dokumentu aurkeztu behar dituen, baita zer euskarritan aurkeztu behar dituen ere.

13.3. Non eta zer epetan aurkezten da eskaera bakarra? Noiz alda daitezke eskaerak?

Ustategia edo ustategiaren nekazaritza-azaleraren zati handiena hartzen duena (edota, nekazaritza-azalera ezean, abere gehien dauden azalera) kokatua dagoen autonomia-erkidegoko agintari eskudunari bidaliko zaio eskaera.

2015erako eskaera bakarra aurkezteko, urte horretako martxoaren 1etik maiatzaren 15era bitarteko epea izango da, bi egun horiek barne. 2016. urtetik aurrera, urte bakoitzeko otsailaren 1etik apirilaren 30era bitarteko epea izango da. Aurreikusitako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira eskaerak, mugaegunera arte.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ezarritako epea amaitu eta hurrengo 25 egun naturaletan, laguntza-eskaerak onartuko dira. Kasu horretan, zenbatekoa % 1 murriztuko da, aipatutako epea gaintzen den egun baliodun bakoitzarengatik, ezinbesteko kasuetan eta aparteko zirkunstantzietan izan ezik. Paragrafo horretan aipatutako murrizketa aplikatuko da, halaber, kontratuak, deklarazioak eta dagokion laguntzaren onargarritasunarekin zerikusia duten bestelako dokumentu edo egiaztagiria aurkeztu behar direnean, erkidegoko araudian aurreikusitakoaren arabera. Oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitzen diren urtean, eskubide horien balioa igo behar denean barne, murrizketa hori ehuneko 3 izango da laguntza-erregimen horretarako egun hori gaintzen den egun baliodun bakoitzeko. 25 egunetik gorako atzerapenarekin aurkeztuz gero, eskaera ez da onartuko.

Eskaera bakarra aurkezteko epea bukatu ondoren, nekazariak maiatzaren 31ra arteko epea izango dute banakako lurzatiak edo banakako ordainketa-eskubideak gehitzeko, betiere kasuan kasuko laguntza-erregimenean ezarritako baldintzak betetzen badira. Gainera, eskaera bakarrean deklaraturako nekazaritza-lurzatien erabilera edo laguntza-erregimena aldatu ahal izango dute, baldin eta eskabide bakarreko beste nekazaritza-

lurzati batzuetarako ere hala eskatu badute. Aldaketa horiek eragina baldin badute aurkeztu beharreko egiaztagiri edo kontraturen batean, kasu horretan ere hura aldatzeko aukera izango da.

13.4. Bateragarriak al dira oinarrizko ordainketarako laguntzak beste laguntza batzuekin?

Bai, erregimen horren ordainketa bateragarria da baimendutako erabilerei dagozkien erregimenetatik eratorritako ordainketa gehigarriekin.

Urte batean, ordainketa gehigarriko eskaera bakar bat aurkezteko aukera izango da nekazaritza-lurzati bakoitzeko.

Oinarrizko ordainketarako eskubideen aktibazio-xedeetarako, hektarea onargarriak izango dira ustiategiko nekazaritza-azalerak, txandaketa laburreko baso-landareekin landatutako azalerak barne, nekazaritzarako erabiltzen direnak zein, nekazaritza bestelako jardueretarako ere erabiltzen badira ere, nagusiki nekazaritzarako erabiltzen direnak. Ustiategi bateko nekazaritza-azalera bat nekazaritzakoak ez diren beste jarduera batzuetarako ere erabiltzen bada, nagusiki nekazaritzarako erabiltzen dela hartuko da aintzat baldin eta nekazaritzakoak ez diren jardueren intentsitateak, izaerak, iraupenak edo egutegiak nekazaritza-jarduera nabarmen oztopatzen ez badute.

13.5. Baldintzapekotasuna derrigorrezkoa al da?

Bai, eskaera bakarra aurkezten duten onuradun guztiek abenduaren 19ko 1078/2014 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko dute, ordainketa zuzenak, landa-garapenerako prima jakin batzuk edo mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreari laguntzeko programa jakin batzuen (mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko edo mahasti berdeen uztarako) arabera ordainketak jasotzen dituzten onuradunek bete beharreko baldintzapekotasun-arauak ezartzen dituena.

13.6. Baldintza artifizialen sorrera

Frogatzen bada pertsona fisiko edo juridiko batek baldintza artifizialak sortu dituela laguntzak jasotzeko, pertsona horri ez zaio ordainketa zuzenik edo bestelako laguntzarik emango. Egindako ez-betetzearen arabera zehaztuko dira onuradunak jaso ezin izango dituen zenbatekoak.

Frogatzen bada nekazari batek 2011ko urriaren 18tik aurrera baldintza artifizialak sortu dituela murrizketa horren eraginak saihesteko, nekazari horri ez zaio inolako abantailarik emango ordainketen murrizketa saihesteko.

Frogatzen bada nekazari batek, 2011ko urriaren 18tik aurrera, baldintza artifizialak sortu dituela erregimen baten barruan sartzeko, nekazari horri ez zaio nekazari txikien erregimenean aurreikusitako abantaila bat ere emango.

Nekazari gazteentzako ordainketa kobratzeko baldintza artifizialak sortzen ari direla hartuko da aintzat baldin eta frogatzen bada nekazari gazteak nortasun juridikoa duten nekazaritza-enpresetan modu artifizialean sartu direla bazkide edo kide gisa, enpresa horiek kualifikatzeko eta horrela ordainketa hori jasotzeko helburu bakarrarekin.

Bi nekazari edo gehiagok eskatutako lurzati batean egindako kontrol batean atzematen bada nekazari batek lurzati hori nahita deklaratu duela nahiz eta eskura ez eduki jabetza-, gozamen- edo alokairu-erregimenean, edo herri-ondasun bat kudeatzen duen agintari publiko batek esleitu ez dion arren, laguntza jasotzeko baldintza artifizialak sortzen ari direla hartuko da aintzat.

13.7. Nola deklaritzen dira larreak eskaera bakarrean?

Larre-esparruak deklaratu gero, azalera gordina izango da deklaraturako azalera, hau da, larreen onargarritasun-koefizientea ez da aplikatuko.

Larreen hektarea onargarri garbiak lortzeko, 1075/2014 Errege Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoa hartuko da aintzat. Nekazariak egiaztatu beharko du bere nekazaritza-lurzatiari esleitutako larreen onargarritasun-koefizientea lursailaren errealitatearekin bat datorrela.

Denen artean erabilitako larreetarako, autonomia-erkidegoak erabaki ahal izango du azalaren deklarazioa egitea aurreko paragrafoan jasotako irizpideari jarraiki, edo bestela SIGPAC sisteman nekazaritza-lurzatiak identifikatzeko ezarritakoez bestelako erreferentzia batzuetan oinarrituta, XIV. eranskinean jasotakoaren arabera. Azken aukera hori aplikatu gero, eta 1. atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe, larrea kudeatzen duen agintariak esleitutako azalera garbia deklaratu du nekazariak, hau da azalera onargarria behin dagokion larreen onargarritasun-koefizientea aplikatu ondoren.

13.8. Alegazioak SIGPACaren kontra

Jasotako laguntza-eskaeren xedeetarako, laguntzak jasotzeko SIGPAC esparruak deklaratu dituen nekazariak bere gain hartu behar du SIGPACean erregistratutako informazio grafiko zein alfanumeriko guztia egiazkoa izatea eta errealitatearekin bat etortzea. Bereziki, datuak errealitatearekin bat datozela zainduko du, eta esparruan ez dagoela bide, eraikin edo elementu ez-emankor iraunkor gisa hautatu ezin den elementurik. Azkenik, bazka-esparruen kasuan, egiaztatuko du esparruari esleitutako larreen onargarritasun-koefizienteak behar bezala islatzen duela azalera horren azalera onargarriaren ehunekoa.

SIGPACean jasotako informazioa bat ez badator bere ustiategiaren errealitatearekin, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, eraginpeko esparru bakoitza kokatua dagoen agintari eskudunaren aurrean, nekazaritza-lurzatiaren informazio geografikoko sistema arautzen duen abenduaren 19ko 1077/2014 Errege Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, nekazaritza-lurzatiaren informazio geografikoko sistemaren erabilerari, mugaketari edo edukiaren informazioari buruz dagozkion alegazio edo aldaketa-eskaera guztiak.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, aldatzeko eskaera dagokion esparruak duen katastro-lurzatiari atxikitako informazio grafikoari eta alfanumerikoari buruzkoa bada, eskaera hori

lurzatia dagoen probintziako higiezinaren Katastroa kudeatzeko eskumena duen agintaritzan aurkeztu beharko da.

13.9. Zenbatekoak dira baldintzak, konpromisoak eta lagapenean hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenei dagozkien zigorrak?

Lehenik eta behin, laguntzak emateari dagokionez erregelamendu bidez ezarritako baldintzak, konpromisoak eta betebeharrak ez betetzearen ondorioa da zigorra.

Sistema bateratuaren eremuan bildutako landa-garapenerako ordainketa zuzenak eta neurriak kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuan aurreikusitako zigorren mende egongo dira. Zigor horietan ustiategi-azaleran egin beharreko nekazaritza-jarduerari dagokionez eskaera bakarrean deklarazio faltsua egitearen ondorioz sortzen direnak sartuko dira.

Ustiategiko nekazaritza-lurzatiaren azalerei dagokienez eskaera bakarrean deklarazio osatu gabea egiteagatik aurreikusitako zigorrak kalkulatzeko, eskaera bakarrean deklaratutako azalera globalari kendu egingo zaio deklaratutako azalera global hori deklaratu ez diren nekazaritza-lurzatiaren azalera globala gehituta ateratzen den azalera, eta alde hori hartuko da aintzat.

Alde hori deklaraturako azalera globalaren gaineko ehuneko 3tik gorakoa bada, azalergatik ordainketa zuzenen edo nekazaritza-ustiategien titularrei aplikaturako neurrien laguntzen gutzizko zenbatekoa edo dagokiona honako eskala honen arabera murriztuko da:

- a) Ehuneko % 3tik gorakoa bada baina % 25etik beherakoa edo % 25ekoa, ordainketa zuzenen edo neurrien laguntzen gutzizkoaren ehuneko 1eko murrizketa aplikatuko da (edo bietako batean).
- b) Ehuneko % 25etik gorakoa bada baina % 50etik beherakoa edo % 50ekoa, ordainketa zuzenen edo neurrien laguntzen gutzizkoaren ehuneko 2ko murrizketa aplikatuko da (edo bietako batean).
- c) Ehuneko % 50etik gorakoa bada, ordainketa zuzenen eta neurrien laguntzen gutzizkoaren ehuneko 3ko murrizketa aplikatuko da (edo bietako batean).

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zigorrari azalera osoa labore-lur gisa ez deklaratzegatik (ordaintzeko betebeharretatik salbuesteko) edo larre iraunkor guztiak ez deklaratzegatik ezarritako zigor guztien zenbatekoa kenduko zaio.

13.10. Ordainketarako eta aurrerakinarako zer epe daude ezarrita?

Oro har, ordainketa zuzenak egingo dira hurrengo urte naturaleko abenduaren 1aren eta ekainaren 30era bitarte. Ordainketak gehienez bi epetan egiteko aukera izango da

Urriaren 16tik abenduaren 1era bitarte agintari eskudunak gehienez % 50eko aurrerakinak ordaintzeko aukera izango du ordainketa zuzenetarako, eta gehienez % 75eko aurrerakinak kudeaketa- eta kontrol-sistema bateratuaren eremuan landa-garapenerako neurrien esparruan emandako laguntzetarako.

Sistema bateratuaren eremuko landa-garapenerako neurriei dagokienez, artikulua hau aplikatuko da 2018tik aurrera aurkeztutako ordainketa-eskaerei dagokienez, aurreko paragrafoan ezarritako % 75erainoko ordainketa-aurrerakinatarako izan ezik.

Beranduenez, eskaera aurkezteko urteko urriaren 15a nekazari gazteentzako ordainketa osagarriaren eskatzaileentzako datuetarako, kontzeptu horrengatik ordaindu beharreko zenbatekoen kalkulua barne, 2015. urtean izan ezik, urte horretan laguntza hori eskatzen dutenentzako zehaztutako azalerei buruzko datuak soilik bidaliko direlako.

BEHIN-BEHINEKOA

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA. Produktuen kodeak NPBko greeningari buruzko datu-basean
- II. ERANSKINA. Ezinbesteko arrazoiarengatik edo aparteko zailtasunengatik egindako alegazioaren jakinarazpena.
- III. ERANSKINA. Lursailen salerosketarako edo alokairurako kontratuari atxikitako kontratu-klausula pribatuaren eredia, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1a) eta 1b) ataletan ezarritakoaren arabera.
- IV. ERANSKINA. Ustiategiaren titulartasuna aldatuz gero aurkeztu beharreko agiriak, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1c) atalean ezarritakoaren arabera.
- V. ERANSKINA. Ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerosteagatik edo alokatzeagatik jarritako alegazioaren jakinarazpena, Esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 10. artikuluko 1d) atalean ezarritakoaren arabera.
- VI. ERANSKINA. Erreserba Nazionalean sartzeko eskaera egin dutenen egiaztagiriak.
- VII. ERANSKINA. Oinarrizko ordainketarako eskubideak lagatzeko eredia.
- VIII. ERANSKINA. BALDINTZAPEKOTASUN-ARAUAK (1306/2013 ERREGELAMENDUAREN II. ERANSKINA)
- IX. ERANSKINA. Ordainketa zuzenak: Aintzat hartu beharreko zenbatekoak.
- X. ERANSKINA: Eskaera bakarrean eman beharreko gutxieneko informazioa
- XI. ERANSKINA: Erabilera arrunteko larre iraunkorren deklarazioa SIGPACaz bestelako erreferentziekin

BEHIN-BEHINEKOA

I. ERANSKINA

PRODUKTUEN KODEAK NPBko GREENINGari BURUZKO DATU BASEAN

Jarraian, kodeen proposamen bat aurkeztuko dugu, multzoka ordenatuta, ordainketa hori egiteko eskatzen diren baldintzei dagokienez: laboreen dibertsifikazioa, larre iraunkorrak eta interes ekologikoa duten azalerak.

Horrela, bada, lehen kodifikazio orokorra egin da, honako multzo hauen arabera:

- Labore-lurrak.
- Larre iraunkorrak.
- Basoak.
- Labore iraunkorrak.

Aurrerago, Greeningari eta azaleraren araberako ordainketa elkartuei dagokienez, hainbat zehaztapen aintzat hartu beharko dira:

- Urpeko laboreak.
- Belarrak eta bestelako belar-bazkak.
- Lugoariak.
- N finkatzen duten laboreak.
- Baso-sartzea, eta Nekazaritza eta basogintza.

LABORE LURRAK

KOD	PRODUKTUA
1	Gari biguna
2	Triticum spelta
3	Gari gogorra (ikus barietateak)
4	Artoa (ikus erabilera)
5	Garagarra
6	Zekalea
7	Basartoa
8	Oloa
9	Artobeltza
10	Artaxikia
11	Alpistea
12	Gari nahasia
13	Tritikaleak
14	Tritordium Lugoari tradizionala
20	Lugoari tradizionala
23	Ingurumen-lugoaria
24	Lugoaria, produkziozik gabe
25	Abandonua 20 urte
33	Ekilorea
34	Soja
35	Koltza

KOD	PRODUKTUA
36	Camelina
40	Ilarrak (ikus erabilera)
41	Babak (ikus erabilera)
43	Lupinu gozoa (ikus erabilera)
50	Txitxirioak
51	Dilistak
52	Txirta (ikus erabilera)
53	Eruak
60	Alpapa
65	Ailorbea (ikus erabilera)
63	5 urtetik beherako larreak
64	Bestelako bazka-azalerak *
67	Astorkia
68	Festuca
69	Llollobelarra
70	Agrostis
71	Arrhenatherum
72	Alka-belarra
73	Pleotza
74	Poa

KOD	PRODUKTUA
76	Zulla
77	Hirusta
80	Arroza
81	Kotoia
83	Erremolatxa
83	Tabakoa
84	Lupulua
85	Ehungintzako lihoa, zuntza egiteko
86	Kalamua, zuntza egiteko
87	Kakahuetea
88	Kartamoa
91	Loreak
93	Ehungintzako ez den lihoa
96	Belar-espezie usaintsuak
97	Perretxikoak
98	Zainzuriak
99	Patata (fekula lortzeko)
100	Patata (jateko)
	Patata (ereiteko)
138	Lo-belarra
151	Porruak (Ikus motak)
152	Piper freskoa (Ikus motak)
153	Meloia
154	Brokolia
155	Uraza
156	Angurria
157	Tipula
158	Apioa
159	Arbi-aza
160	Azalorea
162	Alberjina
163	Kuiatxoak
164	Orburua
165	Luzokerra
166	Zerba
167	Tipuleta
168	Tipulatxa
169	Baratxuria
170	Aza
171	Aza txinatarra
172	Buru-aza
173	Milan-aza
174	Aza gorria
175	Aza

KOD	PRODUKTUA
176	Bruselaza
177	Endibia
178	Azenarioa
179	Arbia
180	Babarruna (ikus erabilera)
181	Txikoria
182	Piperminak
183	Ziazerba
184	Kardua
185	Kuia
	Erromesaren kuia
186	Borraja
187	Ozpinetako luzokerrak
188	Eskarola
189	Errefaua
190	Berroa
191	Mugurdiak
193	Txanpinoiak
194	Piperra
195	Bola-piperra
196	Piperrak (sarea)
197	Tomatea
198	Tomatea (transformatzeko)
199	Piperra (piperrautsa egiteko)
	Marrubiak
215	Marrubiak (aire zabalean)
216	Marrubiak (plastikopean)
217	Baratze-marrubia
220	Azukre-kanabera
	Kanabera (Arundo donax)
	Kinoa
223	Miscanthus
239	Aixkola
240	Titarroak
241	Txirta-olo nahasketa
	Zulla-garagar nahasketa
242	Lekadunekin egindako beste nahasketa batzuk *
242	Lekadunekin egindako beste nahasketa batzuk *
243	Belardiko espezieetako labore mistoak
245	Algarrobo-leka
246	Zalkea (ikus erabilera)
247	Aixkola (ikus erabilera)
301	Labore mistoak ilaran (ikus konbin.)

BELARRA EDO BESTELAKO BELAR BAZKAK (LUR GOLDAGARRIA)

KOD	PRODUKTUA
63	5 urtetik beherako larreak
58	Festuca
69	Llollobelarra
70	Agrostis
71	Arrhenatherum

KOD	PRODUKTUA
72	Alka-belarra
73	Pleotza
74	Poa
77	Hirusta
243	Belardiko espezieetako labore mistoak

LARRE IRAUNKORRAK

KOD	PRODUKTUA
62	5 urte edo gehiagoko larre iraunkorrak
28	Larredia

KOD	PRODUKTUA
226	Zuhaixkadun larrea
227	Zuhaizia duen larrea

BASOAK

KOD	PRODUKTUA
26	Abandonua baso-sartzerako
28	Erretiratzea baso-sartzerako
114	Baso-azalera zurgaiak
115	Bestelako baso-azalerak
116	Makalak
150	Bestelako erabilerak
222	Paulownia
224	Leucaena
225	Eucalyptus
226	Opuntia

KOD	PRODUKTUA
227	Salix
228	Akazia
229	Ailanthus
230	Robinia
231	Gleditsia
232	Jakaranda
233	Phytolacca
400	2080/1992 Erregel. lotutako baso-sartzeak
500	1257/1999 Erregel. lotutako baso-sartzeak
600	1698/2005 Erregel. lotutako baso-sartzeak

LABORE IRAUNKORRAK

KOD	PRODUKTUA
101	Olibadia
102	Eraldaketako mahastia
103	Mahaiko mahatsa
104	Arbendolondoak
105	Mertxikondoak
106	Nektarinondoak
107	Abrikotondoak
108	Udareondoak
109	Sagarrondoak
110	Gereziondoak
111	Aranondoak
112	Intxaurondoak
113	Bestelako fruta-arbolak
117	Gaztainondoak
118	Zurezko espezie usaintsuak
119	Mintegiak
120	Mahasti-olibadia
122	Algarrolboa
123	Hurritza
124	Pistatxoak
201	Platerina

KOD	PRODUKTUA
202	Paraguaioa
203	Elorri beltza
204	Klementinak
205	Satsumak
206	Laranjondoa
207	Limoiondoa
208	Arabisagar-arbola
209	Mandarinondoa
210	Zitriko hibridoak
211	Irasagarrondoak
212	Kiwiak
213	Kakiondoa
214	Mizpirondoa
218	Pikondoa
221	Mahaspa
235	Jatropha
237	Txandaketa laburreko baso-azalerak
	Basafruituak
	Granadondoa
	Boilurra

* Laboreak dibertsifikatzeari dagokionez, ez da aplikatzekoa

AZPIPRODUKTUEN AZPIKODEAK

AZPIKOD	AZPIPRODUKTUA
903	Neguko laboreak

904	Udaberriko laborea
-----	--------------------

ERABILEREN AZPIKODEAK

AZPIKOD	ERABILERA	MANTENTZEA
905	Aletarako soilik	Aleak esne-itxurako heldutasuna lortu arte
906	Bazkatarako edo belarditarako soilik	Loraldia hasi arte
907	Mistoa aletarako edo bazkatarako	

URPEKO LABOREAK

KOD	PRODUKTUA
80	Arroza

LUGORRIAK

KOD	PRODUKTUA	MOTA
20	Lugorri tradizionala	901 - Landare-estalkirik gabe 902 - Landare-estalkiarekin
23	Ingurumen-lugorria	901 - Landare-estalkirik gabe 902.- Hazitarako
24	Lugorria, produkziarik gabe	901 - Landare-estalkirik gabe 902 - Landare-estalkiarekin

NITROGENOAFINKATZEN DUTEN LABOREAK

KOD	PRODUKTUA
40	Ilarrak
41	Babak
50	Txitxirioak
51	Dilistak
52	Txirta
53	Eruak
60	Alpapa
64	Ailorbea
67	Astorkia

KOD	PRODUKTUA
76	Zulla
236	Babarruna
238	Lupinua
239	Aixkola
240	Titarroak
245	Algarrobo-leka
246	Zalkea
247	Aixkola

BASO-SARTZEA, ETA NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA

KOD	PRODUKTUA
26	Abandonua baso-sartzerako
28	Erretiratzea baso-sartzerako

BEHIN-BEHINEKOA

BARAZKIEN LABORANTZAREN KODEAK

KOD	PRODUKTUA
100	Atari zabaleko barazkiak
101	Plastikopeko barazkiak

BEHIN-BEHINEKOA

II. ERANSKINA

ESLEIPENARI BURUZKO ERREGE DEKRETUAREN 17. ETA 18. ARTIKULUEI **JARRAIKI, EZINBESTEKO ARRAZOIARENGATIK EDO APARTEKO** **ZAILTASUNENGATIK EGINDAKO ALEGAZIOAREN JAKINARAZPENA**

EZINBESTEKO ARRAZOIAREN EDO APARTEKO ZAILTASUNEN JAKINARAZPENAREN
PROPOSAMENA

..... jauna/andrea, IFK zenbakia:, helbidea:
....., herria:, probintzia:
....., PK: eta telefono-zenbakia:

Kargua:

Nekazaria, abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduan xedatutakoari jarraiki, Oinarrizko Ordainketarako Eskubideen esleipena eskatzen duela.

Hala badagokio, IFK zenbakia duen
..... jaunaren/andreaken ustiategiaren
oinordeko edo hartzaile den aldetik,

Honako hau AZALDU DU: 2014ko kanpainan, bere ustiatagia ezinbesteko arrazoi edo aparteko zailtasun baten eraginpean egon dela eta, horren ondorioz, eskatzaileak Errege Dekretu honen 13. artikuluan zerrendatzen diren laguntza-erregimenek eragindako 2014ko ordainketa zuzen bat edo batzuk ez dituela jaso edo behar baino zenbateko txikiagoa jaso duela. Hona hemen ezinbesteko arrazoi edo aparteko zailtasun hori:

- a) Onuradunaren heriotza edo desagertzea.
- b) Onuradunaren lanerako ezintasuna, iraupen luzekoa.
- c) Hondamendi natural larria edo fenomeno klimatologiko kaltegarria, hondamendi naturalaren baliokidea, ustiatagiko nekazaritza-lurrei kalte larriak eragin dizkiena.
- d) Ustiatagiko abere-lokalak istripuz suntsitzea.
- e) Epizootia, agintari eskudunak egiaztatua, onuradunaren ustiatagiko azienda osoarentzat edo zati batentzat kaltegarri gertatu dena.
- f) Mikroorganismo patogenikoen edo ingurumen-faktoreek eragindako landare-izurritea edo landare-gaixotasuna, eskumeneko agintariak egiaztatua, eta onuradunaren ustiatagiko labore guztientzat edo zati batentzat kaltegarri gertatu dena.
- g) Ustiatagi osoa edo haren zati garrantzitsu bat desjabetzea, baldin eta desjabetze hori aurreikusita ez bazegoen eskaera aurkeztu zen egunean.
- h) Arazoak 2014ko kanpainaren laguntza-eskaera izapidetzean, nekazariaren arduraren ez direnak eta eskaera hori ez aurkeztea ekarri dutenak.

Datu guztiak egiazkoak direla adierazi du behean sinatu duenak, eta Errege Dekretu honen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezinbesteko arrazoiarengatik edo aparteko zailtasunengatik egindako alegazioa aintzat hartzeko eskatu du.

....., 20...(e)koaren ..(a)

Sin:

Dokumentazioa:

- a) kasua: heriotza-ziurtagiria edo desagertu izanaren salaketa, absentzia-deklarazioa edo heriotza-deklarazioa.
- b) kasua: Gizarte Segurantza kudeatzen duen zentroaren ziurtagiria, iraupen luzeko ezintasunari buruzkoa. Eskatzaileak autonomia-erkidegoetako organo eskudunei baimena eman ahal izango die Gizarte Segurantza kudeatzen duen zentrotik zuzenean eskuratzeko iraupen luzeko ezintasuna justifikatzen duen informazioa edo ziurtagiria.
- c) kasua: katastrofea izan den urterako/urteetarako Nekazaritza Politika Bateratuaren laguntzen eskaeraren kopia, eta aurreko urteko NPBrena, gertakarien deskribapen laburrekin batera.
- d) kasua: aseguru-konpainiaren ziurtagiria edo bestelako dokumentu ofizial bat, ustategiaren abeltzaintzako nabeak istripuz suntsitu direla justifikatzeko.
- e) kasua: albaitaritzako zerbitzu eskudunen ziurtagiria, animaliak alegatutako epizootiaren eraginez hil direla edo hil egin behar izan direla egiaztatzen duena.
- f) kasua: zerbitzu fitosanitario eskudunen ziurtagiria, ustategia alegatutako landare-izurritea edo landare-gaixotasunaren eraginpean egon zela egiaztatzen duena.
- g) kasua: desjabetzea egiaztatzen duen dokumentu publikoa eta lursailak desjabetzeari buruzko lehen jakinarazpenaren data ofiziala. Lurzatiak biltzearen ondoriozko desjabetze-espeditenteak ez dira sartuko.
- h) kasua: erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko asegurua ordaindu izanaren ziurtagiria eta zinpeko deklarazioa, erakunde laguntzailearen ez-egiteari buruzkoa.

BEHIN BEHINEROKO

III. ERANSKINA

I. LURSAILEN SALEROSKETARAKO EDO ALOKAIRURAKO KONTRATUARI ATXIKITAKO KONTRATU KLAUSULA PRIBATUAREN EREDUA, ESLEIPENARI BURUZKO ERREGE DEKRETUAREN 19. ARTIKULUKO 1 a) ETA 1 b) ATALETAN EZARRITAKOAREN ARABERA

1. – ERREGIMEN JURIDIKOA

1.1 Oinarrizko ordainketarako eskubideen esleipenari buruzko Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1 a) eta 1 b) atalen arabera, ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerosteko edo alokatzeko kontratu bati abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.8 artikuluan ezarritako kontratu-klausula atxiki dakiok, betiere kontratua 2014ko maiatzaren 16tik 2015eko maiatzaren 15era bitarte sinatu bada; hartara, Erregelamendu horren 24.1 b) artikuluan 2013ko laguntza-eskaera bati dagokion zuzeneko ordainketaren bat jasotzeari buruz xedatzen den baldintza betetzeko betebeharra saltzaile edo errentatzailearengandik erosle edo errentariarengana eskualdatzen dela egiaztatuko da, dagokion oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitzeko eskaerari dagokionez.

1.2 19 1 a) artikuluan, martxoaren 11ko Batzordearen 639/2014 Erregelamendu Delegatuaren 20. artikuluan deskribatzen den kontratu-klausula aplikatzeko aukera ere sartzen da; Erregelamendu horren arabera, ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerosteko eragiketetan, nekazari saltzaileek saldutako hektareei dagozkien ordainketarako eskubideak eskualda ditzakete, betiere aipatutako epearen barruan egin bada. Hori horrela izanik, klausula horri jarraiki, oinarrizko ordainketarako eskubideak saltzaileari esleituko zaizkio eta zuzenean erosleari eskualdatu, betiere eroslearen ordainketarako eskubideak kalkulatzeko garaian eskualdatutako hektareekin batera aintzat hartzeko.

1.3 Errege Dekretu honen 19 1 b) artikuluan arabera, ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, alokatzeko kontratu bati martxoaren 11ko Batzordearen 639/2014 Erregelamendu Delegatuaren 21. artikuluan xedatutako kontratu-klausula atxiki dakiok, betiere kontratua epe horretan egin bada eta errentatzailea baldin bada alokatutako hektareei dagozkien zuzeneko laguntzen hartzaile 2013ko eskaera bakarreko kanpainan. Hori horrela izanik, alokairu hori lurrekin egindako oinarrizko ordainketarako eskubideen alokairutzat hartuko da.

Goiko paragrafoan aipatu den kontratu-klausula sinatzen bada, oinarrizko ordainketarako eskubideak errentatzaileari esleituko zaizkio eta hark errentariari lagako dizkio zuzenean, alokairu-erregimenean; errentariak kobratuko ditu eskubide horiek, 2015eko eskaera bakarrean eta hurrengoetan ordainketa eskatzen duenean. Hasieran lurren alokairu-kontratua zena, beraz, lurrekin egindako oinarrizko ordainketarako eskubideen alokairu bihurtuko da, aipatutako kontratu-klausula hori aplikatzearen ondorioz.

1.4 Abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren (EB) 26. artikuluan xedatutakoari jarraiki, 2015ean saltzailearen/errentatzailearen esleipenari dagozkien ordainketarako eskubide guztien hasierako balioa honela kalkulatu da: Errege Dekretuaren 13. artikuluan aipatzen diren eta 2014. urtean jaso dituen zuzeneko laguntzen zenbatekoak saldutako/alokatutako hektareen eta saldu/alokatu gabeko hektareen artean banatuta, hurrenez hurren.

1.5 Abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, gogoan izan behar da ustiategi osoaren edo zati baten lagapenarekin lotutako lur-eskualdaketa eskualdatutako hektareei dagokien eta lagatzaileak 2013an deklaraturako azalera onargarriaren banako muga ere eskualdatzen dela, betiere 2015. urtean azalera horretan esleitu beharreko balioa ere eskualdatzen bada; hori horrela izanik, 2015eko eskaera bakarrean lagapen-hartzaileak eta lagatzaileak, hala badagokio, deklaraturako azalera-doikuntzan aintzat hartu beharko da azalera-eskualdaketa hori.

1.6 Dela abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.8 artikuluan araututako kontratu-klausula aplikatzeko, dela martxoaren 11ko 639/2014 Erregelamendu Delegatuaren 20. eta 21. artikuluetan xedatutako klausulak baliatzeko, saltzaile/errentatzaileak 1307/2013 Erregelamenduaren (EB) 24. artikuluko 1. atalean zehazten dena bete beharko du, eta erosle/errentariak, aldiz, Erregelamendu horren 9. artikuluan xedatzen dena. Alegia, saltzaile/errentatzaileak 2013an zuzeneko ordainketaren baten onuradun izan behar zuen, zigor edo murrizketen aurretik; 2015ean esleipen-eskaera aurkeztu behar du edo erosle/errentariari baimena eman behar dio haren izenean aurkezteko; eta urte horretan nekazari aktibo izan behar du. Bestalde, erosle/errentariak ere nekazari aktibo izan beharko du.

2.- SALTZAILE/ERRENTATZAILEAREN ETA EROSLE/ERRENTARIAREN DATUAK

SALTZAILE/ERRENTATZAILEA

..... jauna/andrea; NAN zenbakia:.....

Helbidea:..... Udalerria:..... Probintzia:.....

PK:.....

EROSLE/ERRENTARIA

..... jauna/andrea; NAN zenbakia:.....

Helbidea:..... Udalerria:..... Probintzia:.....

PK:.....

3.- ABENDUAREN 17ko 1307/2013 ERREGELAMENDUAREN 24.8 ARTIKULUAN BILDUTAKO KONTRATU KLAUSULA APLIKATZEKO AKORDIOA.

.....
jaunak/andreak, dokumentu hau sinatuta, saltzaile/errentatzailea den aldetik, abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.1.b) artikuluan xedatutako baldintza bete beharra

.....
janari/andreaki eskualdatzea erabaki du, erosle/errentari den aldetik, akordio pribatu honen 1.1 eta 1.6 ataletan xedatutakoan oinarrituta.

Biek ala biek aipatutako arauen berri badutela adierazi dute, eta Administrazioak aurreko paragrafoan aipatu den baldintza betetzeko betebeharrari dagokion eskualdaketa egingo duela ere jakinarazi zaie.

Behean sinatu dutenek adierazi dute datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla,

....., 20...(e)koaren ..(a)

Saltzailea/Errentatzailea,

Eroslea/Errentaria,

Sin:

Sin:

4.- MARTXOAREN 11ko 639/2014 ERREGELAMENDU DELEGATUAREN 21. ETA 21. ARTIKULUETAN

LAGATZAILEAK LAGAPEN-HARTZAILEARI ESANBIDEZ EMANDAKO BAIMENA

..... jaunak/andreak, saltzaile/errentzaile den aldetik, dokumentu hau sinatuta baimena ematen dio jaunari/andreari, erosle/errentari den aldetik, haren izenean esleipen-eskaera aurkezteko 2015eko eskaera bakarrean, jarraian aipatuko diren hektarea onargarriei –erantsitako salerosketako/alokairuko eskritura bidez eskualdatu direnak– aplikatu beharreko oinarriko ordainketarako eskubideei dagokienez, betiere akordio pribatu honen kontratu-klausuletan onartutako akordioak aintzat hartuta.

....., 20...(e)koaren ..(a)

Saltzailea/Errentatzailea,

Eroslea/Errentaria,

Sin:

Sin:

BEHIN-BEHINEKOA

IV. ERANSKINA

II. USTIATEGIAREN TITULARTASUNA ALDATUZ GERO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK, ESLEIPENARI BURUZKO ERREGE DEKRETUAREN 19. ARTIKULUKO 1.c) ATALEAN EZARRITAKOAREN ARABERA

1. Ustiategiaren titularra aldatzeko arrazoia edozein izanik ere, hau da, jaraunspena, erretiroa – ustiategiaren lagapen-hartzailea lagatzailearen lehen mailako ahaidea izanik–, nekazaritza-jarduera alde aurretik eteteko onartutako programak, bat-egitea, zatiketa eta ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzea, kasu guzti-guztietan honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitu behar zaizkion/en titular berri(ar)en eta zahar(ar)en identifikazioa (IFK, helbidea eta telefonoa).
- Nortasun juridikorik gabeko entea edo pertsona juridikoa baldin bada, legezko ordezkariaren akreditazioa.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzen kopiatu edo, bestela, beharrezkoak diren sozietatearen gaineko zergarenak, edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunei baimena eman behar zaie Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik edo Zerga Administrazioaren Estatu Agentziatik zuzenean eskuratzeko, lagapen-hartzailea eta lagatzailea benetan nekazari aktibo direla egiaztatzeko.
- Bestelako agiriak (interesdunak zehaztu beharrekoak edo agintaritza eskudunak eskatutakoak).

2. Jaraunspena (gozamen-eskubidea barnean hartuta): Ustiategiaren zati bat eskualdatuz gero, titular berriak ustiategiaren zenbateko ehunekoa jasoko duen adierazi behar da; halaber, eskualdatutako lurzatiekin kokapenari buruzko informazioa ere atxiki behar da. Kasuak kasu, jaraunspena justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu behar da.

3. Erretiroak, ustiategia lehen mailako ahaide bati lagata, eta nekazaritza-jarduera alde aurretik eteteko onartutako programak: Titular-aldaketa eragin duen egoera frogatzeko moduan egiaztatzen duten dokumentu publiko edo pribatuak.

4. Ustiategiaren izena edo estatutu juridikoa aldatzea: Izena edo estatutu juridikoa aldatu izana egiaztatzen duen dokumentua. Sozietatearen eratze-eskritura publikoa edo aurrekoaren eraldaketa. Titularra aldatu baino lehen ustiategia –kudeaketari, enpresa-emaitei eta finantza-arriskuei dagokienez– kontrolatzen zuten nekazariak aldatu ondoren ere kontrolatzen jarraitu beharko du.

5. Hainbat pertsona fisikok edo juridikok bat egin eta nortasun juridikorik gabeko ente edo pertsona fisiko bat eratzea: Egungo sozietatearen eta bat-egitearen ondoriozko berriaren eskrituren kopiatu edo bat-egitea egiaztatzen duten beste dokumentu batzuk, bat-egitea noiz izan zen adierazten dutela. Bat-egitearen ondoriozko ustiategian bat egin duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak biltzen direla aitortzen duen deklarazioa. Bat-egitearen ondoriozko nekazari berriak bat egin duten nekazarietako gutxienez baten kontrolpean egon beharko du kudeaketari, enpresa-emaitei eta finantza-arriskuei dagokienez.

6. Nortasun juridikorik gabeko ente edo pertsona fisikoen zatiketa: Zatiketa berri ematen duen dokumentu publiko edo pribatua, alde guztiek sinatuta, eta titular berri bakoitzari ustiategiaren zenbateko ehunekoa dagokion adierazten duela; eskualdatutako lurzatiekin kokapenari buruzko informazioa ere atxiki behar da. Zatiketa berriaren ondorioz hasierakoa ez den beste bi nekazari berri sortzen direnean, gutxienez horietako bat kontrolpean egongo da kudeaketari, enpresa-emaitei eta finantza-arriskuei dagokienez; hain zuzen ere, hasierako nekazari hori kontrolatzen zuten pertsona fisiko edo juridikoen artean gutxienez baten kontrolpean.

V. ERANSKINA

III. USTIATEGI OSOA EDO ZATI BAT, LURREKIN BATERA, SALEROSTEAGATIK EDO ALOKATZEAGATIK JARRITAKO ALEGAZIOAREN JAKINARAZPENA, ESLEIPENARI BURUZKO ERREGE DEKRETUAREN 10. ARTIKULUKO 1.d) ATALEAN EZARRITAKOAREN ARABERA

1. – ERREGIMEN JURIDIKOA

1.1 Oinarrizko ordainketarako eskubideen esleipenari buruzko 1076/2014 Errege Dekretuaren 19. artikuluko 1 d) atalaren arabera, administrazio eskudunari jakinarazi behar zaizkio ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerosteagatiko edo alokatzeagatiko alegazioak, betiere 2013ko maiatzaren 16tik 2014ko maiatzaren 15era bitarte egin badira, lagapen-hartzaileak Errege Dekretu horren 10.1 b) artikuluan xedatutako baldintza betetzen baldin badu baina ez 2013an, ez 2014an, ez badu ordainketa bakarreko eskubiderik esleituta, eta lagapen-hartzaileak 2014ko eskaera bakarrean sartzen badu salerosketaren xede den ustiatagia.

1.2 Errege Dekretu horren 19. artikuluko 1 d) atalaren arabera, ustiategi osoa edo zati bat, lurrekin batera, salerosteko edo alokatzeko kontratuei –goiko atalean deskribatu ditugunei– abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.8 artikuluan ezarritako kontratu-klausula atxiki dakieke; hartara, Erregelamendu horren 24.1.b) artikuluan (edo Errege Dekretu honen 10.1.b) artikuluan) 2013ko laguntza-eskaera bati dagokion zuzeneko ordainketaren bat jasotzeari buruz xedatzen den baldintza betetzeko betebeharra saltzaile edo errentatzailearengandik erosle edo errentariarengana eskualdatzen dela egiaztatuko da, erosle/errentariaren oinarrizko ordainketarako eskubideak esleitzeko eskaerari dagokionez.

1.3 Abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, gogoan izan behar da ustiategi osoaren edo zati baten salerosketa/alokairuarekin lotutako lur-eskualdaketa eskualdatutako hektareei dagokien eta saltzaile/errentatzaileak 2013an deklaraturako azalera onargarriaren banako muga ere eskualdatzen dela; hori horrela izanik, 2015eko eskaera bakarrean erosle/errentariak eta saltzaile/errentatzaileak, hala badagokio, deklaraturako azalera-doikuntzan aintzat hartu beharko da azalera-eskualdaketa hori.

1.4 1307/2013 Erregelamenduaren 24.8 artikuluan araututako kontratu-klausula aplikatzeko, saltzaile/errentatzaileak 1307/2013 Erregelamenduaren (EB) 24. artikuluko 1. atalean zehazten dena bete beharko du, eta erosle/errentariak, aldiz, Erregelamendu horren 9. artikuluan xedatzen dena. Alegia, saltzaile/errentatzaileak 2013an zuzeneko ordainketaren baten onuradun izan behar zuen, zigor edo murrizketen aurretik; 2015ean esleipen-eskaera aurkeztu behar du edo erosle/errentariari baimena eman behar dio haren izenean aurkezteko; eta urte horretan nekazari aktibo izan behar du. Bestalde, erosle/errentariak ere nekazari aktibo izan beharko du.

2.- SALTZAILE/ERRENTATZAILEAREN ETA EROSLE/ERRENTARIAREN DATUAK

SALTZAILE/ERRENTATZAILEA

..... jauna/andrea; NAN zenbakia:.....

Helbidea:..... Udalerrria:..... Probintzia:.....

PK:.....

EROSLE/ERRENTARIA

..... jauna/andrea; NAN zenbakia:.....

Helbidea:..... Udalerrria:..... Probintzia:.....

PK:.....

3.- ABENDUAREN 17ko 1307/2013 ERREGELAMENDUAREN 24.8 ARTIKULUAN BILDUTAKO KONTRATU KLAUSULA APLIKATZEKO AKORDIOA.

.....
jaunak/andreak, saltzaile/errentatzailea den aldetik, dokumentu hau sinatuta, abenduaren 17ko 1307/2013 Erregelamenduaren 24.1.b) artikuluan xedatutako baldintza bete beharra

.....
jaunari/andreari eskualdatzea erabaki du, erosle/errentari den aldetik, akordio pribatu honen 1. atalean xedatutakoan oinarrituta.

Biek ala biek aipatutako arauen berri badutela adierazi dute, eta Adminis trazioak aurreko paragrafoan aipatu den baldintza betetzeko betebeharrari dagokion eskualdaketa egingo duela ere jakinarazi zaie.

Behean sinatu dutenek adierazi dute datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa egiazkoak direla,

....., 20...(e)koaren ..(a)

Saltzailea/Errentatzailea,

Eroslea/Errentaria,

Sin:

Sin:

Sin:

Sin:

Erantsitako dokumentazioa:

- Lurren salerosketa-eskritura publikoa
- Lurren alokairuaren zergen dokumentu pribatu likidatua edo eskritura publikoa.
- Saltzaile/errentatzailea eta erosle/errentaria 2015ean benetan nekazari aktibo direla egiaztatzeko beharrezkoak diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenen kopiak aurkezteko konpromisoa, sinatuta; bestela, autonomia-erkidegoetako organo eskudunei baimena eman behar zaie Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik edo Zerga Administrazioako Estatu Agentzietatik informazio hori zuzenean eskuratzeko.
- Bestelako agiriak (interesdunek zehaztu behar dituzte).....

VI. ERANSKINA

ERRESERBA NAZIONALEAN SARTZEKO ESKAERA EGIN DUTENEN **EGIAZTAGIRIAK.**

Oro har, eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Ustategiaren lurzati guzti-guztien zerrenda, abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuan nekazaritza eta abeltzaintzarako zuzeneko ordainketak 2015etik aurrera aplikatzeari buruz, eta zuzeneko ordainketak eta landa-garapenerako ordainketak kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema integratua ezartzeari buruz xedatutakoari jarraiki.
2. Agintaritza eskudunak erabakitako bestelako dokumentazioa.

Bereziki:

1. Epai judizial irmo edo administrazio-egintza irmo bidez lehendik dauden eskubideen balioa handitzeko eta laguntza-eskubideak jasotzeko aukera duten nekazarien kasuan:

Epai edo administrazio-egintza irmoaren kopia.

2. Nekazaritza-jarduerari ekiten dioten nekazari gazteen kasuan:

Gizarte-segurantzaren alta noiz hartu zen egiaztatzen duen dokumentua, betiere dagokion nekazaritza-jarduerari buruzkoa.

Dokumentu hori aurkeztu beharrean, autonomia-erkidegoetako organo eskudunei baimena eman ahal izango zaie Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusitik zuzenean eskuratzeko nekazaritza-jardueraren hasiera eta garapena egiaztatzen duen ziurtagiria edo informazioa.

3. 2015ean oinarritako ordainketarako eskubideen lehen esleipenean sartu ez diren nekazarien kasuan, betiere ezinbesteko arrazoiengatik edo aparteko zirkunstantziengatik, Errege Dekretuaren 24.5.b) eta 24.5.c) kasuetan:

- III. eranskinean zerrendatutako ezinbesteko arrazoia edo aparteko zirkunstantzia egiaztatzen duen ziurtagiria, edo bestela, honako hauetako bat:

- a. Oskoldun fruituen sektoreko espezie jakin batzuetan nekazaritza eta ingurumenerako onura gehiago ematen dituzten nekazaritza-jarduerak sustatzeko Programa Nazionalarekin lotutako aparteko zirkunstantziak; programa hori 2013. urtean ezarri zen, urtarrilaren 23ko 202/2012 Errege Dekretuan.

- b. 2013an eskaera bakarra aurkeztu ez izana, erakunde laguntzaileari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik.

- Errege Dekretu honen III. eranskinean zerrendatutako dokumentaziotik kasuan kasu dagokionaz gain, eranskin honetan deskribatu den ezinbesteko arrazoia edo aparteko zirkunstantzia justifikatzen duten dokumentuak ere aurkeztuko dira:

1. 2013. urtean ustategian egin behar izan zen labore-txandakatzeari buruzko zinpeko deklarazioa, urte hartan laguntza espezifiko eskatzeko ezintasuna justifikatzen duela.
2. Erakunde laguntzaileak erantzukizun zibileko aseguru ordaindu izanaren ziurtagiria eta zinpeko deklarazioa, erakunde laguntzailearen ez-egiteari buruzkoa.

VII. ERANSKINA

ONARRIZKO ORDAINKETARAKO ESKUBIDEAK LAGATZEKO EREDUA

LAGATZAILEAREN DATUAK

- IZEN-ABIZENAK/IZEN SOZIALA:
- IFZ:
- LAGATAKO ESKUBIDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA ESKUBIDE HORIEK BILTZEN DITUEN ESKUALDEAREN IDENTIFIKAZIOA (Eskubideak kudeatzeko datu-base nazionalen eskubideak identifikatzeko erabiltzen diren kode ofizialak erabili behar dira)
 - 1.-..... (%) 2.-..... (%)
 - 3.-..... (%) 4.-..... (%)
 - 5.-..... (%) 6.-..... (%)
 - 7.-..... (%) 8.-..... (%)
 - 9.-..... (%) 10.-..... (%)
- LAGAPENAREN DATA:
- LAGATZAILEAREN SINADURA

LAGAPEN-HARTZAILEAREN DATUAK

- IZEN-ABIZENAK/IZEN SOZIALA:
- IFZ:
- LAGAPEN-HARTZAILEAREN SINADURA
- LAGAPENAREN ARRAZOIA (Markatu dagokiona)
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak lurrik gabe saltzea edo behin betiko lagatzea (% 20ko atxikipena).
 - Oinarrizko ordainketarako eskubide guztiak lurrik gabe saltzea edo behin betiko lagatzea, oinarrizko ordainketarako guztizko zenbatekoak 300 eurotik behera dituzten lagatzailearen kasuan.
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak lurrarekin batera saltzea edo behin betiko lagatzea (hektarea ohargarriak).
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak saltzea edo behin betiko lagatzea, baina lurren alokairua bukatu delako lur-jabeari itzultzearekin lotuta.
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak lurrarekin batera alokatzea (hektarea ohargarriak).
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak lurrik gabe alokatzea (% 20ko atxikipena).
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideak lurrik gabe saltzea edo behin betiko lagatzea nekazaritza-jarduerari ekiten dion nekazari bati.
 - Jaraunspenak.
 - Nekazaritza-jardueraren erretiroak, betiere eskubideen lagapen-hartzaileak lagatzailearen lehen mailako ahaideak badira, eta alde zurretik eteteko onartutako programak edo lagatzailearen lanerako ezintasuna iraunkorra.
 - Titularraren erregimen edo estatutu juridikoaren aldaketak, IFZ ere aldatu behar izanik.
 - Nortasun juridikorik gabeko ente edo pertsona fisikoen bat-egite edo elkartzeak.
 - Pertsona fisikoen elkarteen edo pertsona juridikoen zatiketak.
 - Oinarrizko ordainketarako eskubideen lurrekin baterako alokairua alde zurretik amaitzea.
 - Borondatez uko egitea erreserba nazionalaren alde.

Oharra: agintaritza eskudunak eskatzen duen dokumentazio guztia aurkeztu behar da, eskatutako lagapen mota justifikatzeko beharrezkoa baldin bada.

BEHIN-BEHINEKOA

VIII. ERANSKINA

BALDINTZAPEKOTASUNA: KUDEAKETARI BURUZKO LEGEZKO BETEKIZUNAK

KLB (Kudeaketari buruzko Legezko Betekizuna); NIBE (Lurraren nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza egokiak)

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos		Normas nacionales de referencia
Medio Ambiente, cambio climático, buenas condiciones agrícolas de la tierra	Agua	RLG 1 Directiva 91/676/CEE, del Consejo, de 12 de diciembre de 1991, relativa a la protección de las aguas contra la contaminación producida por nitratos procedentes de fuentes agrarias (DO L 375 de 31.12.1991, p. 1)	Artículos 4 y 5: Cumplimiento de las medidas establecidas en los programas de actuación, en las explotaciones agrícolas y ganaderas situadas en zonas declaradas por la Comunidad Autónoma como zonas vulnerables.	Real Decreto 261/1996, de 16 de febrero, sobre protección de las aguas contra la contaminación producida por los nitratos procedentes de fuentes agrarias.
	Biodiversidad	RLG 2 Directiva 2009/147/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de noviembre de 2009, relativa a la conservación de las aves silvestres (DO L 20 de 26.1.2010, p. 7)	Artículo 3, apartado 1, artículo 3, apartado 2, letra b), y artículo 4, apartados 1, 2 y 4. Preservar los espacios que constituyen los hábitats naturales de las especies de aves migratorias, amenazadas y en peligro de extinción.	Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y la Biodiversidad. Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres
		RLG 3 Directiva 92/43/CEE, del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres (DO L 206 de 22.7.1992, p. 7)	Artículo 6, apartados 1 y 2: Conservación de hábitats y especies de la Red Natura 2000.	Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y la Biodiversidad. Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos		Normas nacionales de referencia
Salud pública, sanidad animal y fitosanidad	Seguridad alimentaria	<p>RLG 4 Reglamento (CE) nº 178/2002, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 28 de enero de 2002, por el que se establecen los principios y los requisitos generales de la legislación alimentaria, se crea la Autoridad Europea de Seguridad Alimentaria y se fijan procedimientos relativos a la seguridad alimentaria (DO L 31 de 1.2.2002, p. 1)</p>	<p>Artículos 14 y 15, artículo 17, apartado 1*, y artículos 18, 19 y 20</p> <p>Art. 14: Los productos de la explotación destinados a ser comercializados como alimentos deben ser seguros.</p> <p>Art. 15: Comprobar que en las explotaciones ganaderas destinadas a la producción de alimentos no existen ni se les da a los animales piensos que no sean seguros.</p> <p>Art. 17(1) (*): Sobre higiene de los productos alimentarios y de los piensos (desarrollado por los Reglamentos (CE) nº 852/2004 y 183/2005, y sobre higiene de los productos de origen animal (desarrollado por el reglamento (CE) nº 853/2004).</p> <p>Art. 18: Trazabilidad. Identificación de los operadores que han suministrado a una explotación piensos, alimentos, animales para producción de alimentos, o sustancias destinadas a ser incorporadas a un pienso o a un alimento e identificación de los operadores a los que la explotación ha suministrado sus productos.</p> <p>Art. 19 y 20: Responsabilidades de los explotadores de empresas de piensos/alimentos.</p>	<p>Real Decreto 821/2008, de 16 de mayo, por el que se regulan las condiciones de aplicación de la normativa comunitaria en materia de higiene de piensos y se establece el registro general de establecimientos en el sector de alimentación animal: en lo referente a las obligaciones que se deriven de la normativa comunitaria específica.</p> <p>Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre, por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios.</p> <p>Orden APA/326/2007, de 9 de febrero, por la que se establecen las obligaciones de los titulares de explotaciones agrícolas y forestales en materia de registro de la información sobre el uso de productos fitosanitarios.</p>

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos		Normas nacionales de referencia
		<p>RLG 5 Directiva 96/22/CE, del Consejo, de 29 de abril de 1996, por la que se prohíbe utilizar determinadas sustancias de efecto hormonal y tireostático y sustancias β-agonistas en la cría de ganado (DO L 125 de 23.5.1996, p.3)</p>	<p>Artículo 3, letras a), b), d) y e) y artículos 4, 5 y 7: Comprobar que no hay en la explotación, salvo que exista una información, sustancias no autorizadas, no administrar dichas sustancias a los animales (salvo las excepciones para los tratamientos zootécnicos o terapéuticos) y no comercializar animales a los que se les hayan suministrado sustancias o productos no autorizados y en caso de administración de productos autorizados que se ha respetado el plazo de espera prescrito para dichos productos.</p>	<p>Real Decreto 2178/2004, de 12 de noviembre, por el que prohíbe utilizar determinadas sustancias de efecto hormonal y tireostático y sustancias beta-agonistas de uso en la cría de ganado.</p>
	<p>Identificación y registro de animales</p>	<p>RLG 6 Directiva 2008/71/CE, del Consejo, de 15 de julio de 2008, relativa a la identificación y al registro de cerdos (DO L 213 de 8.8.2005, p. 31)</p>	<p>Artículos 3, 4 y 5</p> <p>Art. 3: Registro de explotaciones porcinas por parte de los Estados miembros.</p> <p>Art. 4: Condiciones de los registros de las explotaciones de animales de la especie porcina.</p> <p>Art. 5: Requisitos de identificación y del movimiento de animales de la especie porcina.</p>	<p>Real Decreto 205/1996, de 9 de febrero, por el que se establece un sistema de identificación y registro de los animales de las especies bovina, porcina, ovina y caprina.</p> <p>Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, por el que se establece y regula el Registro general de explotaciones ganaderas.</p> <p>Real Decreto 728/2007, de 13 de junio, por el que se establece y regula el registro general de movimientos de ganado y el Registro general de identificación individual de animales, modificado por:</p>

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos	Normas nacionales de referencia
		<p>RLG 7 Reglamento (CE) nº 1760/2000, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de julio de 2000, que establece un sistema de identificación y registro de los animales de la especie bovina y relativo al etiquetado de la carne de vacuno y de los productos a base de carne de vacuno (DO L 204 de 11.8.2000, p. 1)</p>	<p>Artículos 4 y 7</p> <p>Art. 4: Requisitos y condiciones del marcado auricular de la especie bovina. Art. 7: Requisitos y condiciones del pasaporte y del registro de animales de la especie bovina.</p> <p>Real Decreto 1980/1998, de 18 de septiembre, por el que se establece un sistema de identificación y registro de los animales de la especie bovina.</p> <p>Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, por el que se establece y regula el Registro general de explotaciones ganaderas.</p> <p>Real Decreto 728/2007, de 13 de junio, por el que se establece y regula el registro general de movimientos de ganado y el Registro general de identificación individual de animales, modificado por:</p> <p>Orden ARM/687/2009, de 11 de marzo, por la que se modifica el Anexo XI del Real Decreto 728/2007.</p>
		<p>RLG 8 Reglamento (CE) nº 21/2004, del Consejo, de 17 de diciembre de 2003, por el que se establece un sistema de identificación y registro de los animales de las especies ovina y caprina y se modifica el Reglamento (CE) nº 1782/2003 y las Directivas 92/102/CEE y 64/432/CEE. (DO L 5 de 9.1.2004, p. 8)</p>	<p>Artículos 3, 4 y 5: Comprobar la correcta identificación y registro del ganado ovino-caprino.</p> <p>Real Decreto 479/2004, de 26 de marzo, por el que se establece y regula el Registro general de explotaciones ganaderas.</p> <p>Real Decreto 685/2013, de 16 de septiembre, por el que se establece un sistema de identificación y registro de los animales de las especies ovina y caprina.</p> <p>Real Decreto 728/2007, de 13 de junio, por el que se establece y regula el registro general de movimientos de ganado y el Registro general de identificación individual de animales.</p>

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos	Normas nacionales de referencia	
	Enfermedades animales	<p>RLG 9 Reglamento (CE) nº 999/2001, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 22 de mayo de 2001, por el que se establecen disposiciones para la prevención, el control y la erradicación de determinadas encefalopatías espongiformes transmisibles (DO L 147 de 31.5.2001, p. 1)</p>	<p>Artículos 7, 11, 12, 13 y 15</p> <p>Art. 7: Respetar las prohibiciones en materia de alimentación de los animales. Art. 11: Cumplimiento en la notificación de encefalopatías espongiformes transmisibles. Art. 12: Adopción de las medidas relativas a los animales sospechosos. Art. 13: Adopción de las medidas consiguientes a la confirmación de la presencia de encefalopatías espongiformes transmisibles. Art. 15: Puesta en el mercado de animales vivos, esperma, sus óvulos y embriones.</p>	<p>Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal: en lo referente a las obligaciones que se deriven de las disposiciones de la normativa comunitaria específica.</p>
	Productos fitosanitarios	<p>RLG 10 Reglamento (CE) nº 1107/2009, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 21 de octubre de 2009, relativo a la comercialización de productos fitosanitarios y por el que se derogan las Directivas 79/117/CEE y 91/414/CEE del Consejo (DO L 309 de 24.11.2009, p. 1)</p>	<p>Los productos fitosanitarios se utilizarán adecuadamente.</p> <p>La utilización adecuada incluirá la aplicación de los principios de buenas prácticas fitosanitarias y el cumplimiento de las condiciones establecidas en la autorización de comercialización del producto fitosanitario y especificadas en la etiqueta.</p>	<p>Ley 43/2002, de 20 de noviembre, de sanidad vegetal, en lo referente a las obligaciones que se deriven de las disposiciones de la normativa comunitaria específica.</p>
Bienestar animal	Bienestar animal	<p>RLG 11 Directiva 2008/119/CE, del Consejo, de 18 de diciembre de 2008, relativa a las normas mínimas para la protección de terneros (DO L 10 de 15.1.2009, p. 7)</p>	<p>Artículos 3 y 4: Condiciones de las explotaciones de terneros y relativas a la cría.</p>	<p>Ley 32/2007, de 7 de noviembre, para el cuidado de los animales, en su explotación, transporte, experimentación y sacrificio: en lo referente a las obligaciones que se deriven de las disposiciones de la normativa comunitaria específica.</p> <p>Real Decreto 1047/1994, de 20 de mayo, relativo a las normas mínimas para la protección de terneros.</p>

Ámbito	Aspecto principal	Requisitos	Normas nacionales de referencia
		<p>RLG 12 Directiva 2008/120/CE, del Consejo, de 18 de diciembre de 2008 , relativa a las normas mínimas para la protección de cerdos (DO L 47 de 18.2.2009, p. 5)</p>	<p>Artículos 3 y 4: Condiciones de las explotaciones de cerdos y relativas a la cría.</p> <p>Ley 32/2007, de 7 de noviembre, para el cuidado de los animales, en su explotación, transporte, experimentación y sacrificio: en lo referente a las obligaciones que se deriven de las disposiciones de la normativa comunitaria específica.</p> <p>Real Decreto 1135/2002, de 31 de octubre, relativa a las normas mínimas para la protección de cerdos.</p>
		<p>RLG 13 Directiva 98/58/CE, del Consejo, de 20 de julio de 1998, relativa a la protección de los animales en las explotaciones ganaderas (DO L 221 de 8.8.1998, p. 23)</p>	<p>Artículo 4: Condiciones de cría y mantenimiento de animales.</p> <p>Ley 32/2007, de 7 de noviembre, para el cuidado de los animales, en su explotación, transporte, experimentación y sacrificio: en lo referente a las obligaciones que se deriven de las disposiciones de la normativa comunitaria específica.</p> <p>Real Decreto 348/2000, de 10 de marzo, por el que se incorpora al ordenamiento jurídico la Directiva 98/58/CE, relativa a la protección de los animales en las explotaciones ganaderas.</p>

* En su aplicación, en particular, en virtud de:

- Artículo 14 del R. 470/2009 y Anexo del R. 37/2010.
- Reglamento (CE) nº 852/2004: artículo 4, apartado 1, y anexo I, parte A [II.4 letras g), h), j); 5, letras f) y h); 6; III.8, letras a), b), d) y e); 9, letras a) y c)]
- Reglamento (CE) nº 853/2004: artículo 3, apartado 1, y anexo III, sección IX, capítulo 1 [I.1, letras b), c), d) y e); I.2, letra a), incisos i), ii), iii), letra b), incisos i) y ii), y letra c); I.3; I.4; I.5; II.A, números 1, 2, 3, 4; II.B, 1, letras a) y d); 2, 4, letras a) y b)], anexo III, sección X, capítulo 1.1.
- Reglamento (CE) nº 183/2005: artículo 5, apartado 1, y anexo I, parte A [I.4, letras e) y g); II.2, letras a), b) y e)]; artículo 5, apartado 5, y anexo III, números 1 y 2; artículo 5, apartado 6.
- Reglamento (CE) nº 396/2005: artículo 18.

1. NIBE hau ez betetzeko aukera eman ahal izango dute autonomia-erkidegoek, betiere ezaugarri bereziak dituzten labore jakin batzuen kasuan, edo kokapen berezietan kokatuta daudenen kasuan; dena den, erabakia arrazoitu egin beharko dute.

2. NIBE. Ureztatzeko ura erabiltzeko baimena emateko prozesuak betetzea, baimena behar denean.

Azalera ureztatuei dagokienez, nekazariak egiaztatu beharko du ureztatzeko ura erabiltzeko Administrazio hidrauliko eskudunak emandako eskubidea duela.

3. NIBE Lurpeko urak kutsaduratik babestea: lurpeko uretan zuzeneko isurketak egitea debekatzea eta lurlean substantzia arriskutsuak isuriz eta lurzoruan barrena substantzia arriskutsuak iragaziz lurpeko urak zeharka kutsa daitezkeen prebenitzeko neurriak, 80/68/EEE Zuzentarauaren eranskinean –indarraldiko azken egunean indarrean egon den bertsioan– azaltzen denaren arabera, nekazaritza-jarduerarekin harremana duen neurrian.

Nekazariak ez dituzte zuzenean edo zeharka bota beharko 80/68/EEE Zuzentarauaren I. zerrendako substantziak (Konposatu organiko halogenatuak eta uretan antzeko konposatuak sor ditzaketen substantziak; fosforodun konposatu organikoak, eztainuzko konposatu organikoak; uretan edo uraren bitartez minbizia edo mutazioak sor ditzaketen substantziak nahiz substantzia teratogenoak, merkurioa eta merkurio-konposatuak, kadmioa eta kadmio-konposatuak, olio mineralak, eta hidrokarburoak eta zianuroak).

Nekazariak ez dituzte zuzenean edo zeharka bota beharko, baimena lortzen badute izan ezik, 80/68/EEE Zuzentarauaren II. zerrendan azaltzen diren substantziak (Metaloideak, hainbat metal eta beren konposatuak, biozidak, eta biozidetatik eratorritako substantzietatik I. zerrendan jaso ez direnak, lurrazpiko uren zapoaren edota usainaren gain eragin kaltegarria duten substantziak, baita substantzia horiek uretan sor ditzaketen konposatuetatik ura edateko txarra bihurtzeko ditzaketen horiek ere, siliziozko konposatu organiko toxikoak edo iraunkorrak, eta uretan konposatu horiek sor ditzaketen substantziak –multzo horretatik kanpo izango dira biologikoki kaltegarriak ez diren konposatuak edo uretan azkar-azkar substantzia ez-kaltegarri bihurtzen ez direnak–, oinarritzko fosforozko konposatu ez-organikoak, fluoruroak, amoniakoa eta nitritoak).

2. ALDERDI NAGUSIA: LURZORUA ETA KARBONO ERRESERBA

4. NIBE. Lurzoruaren gutxieneko estaldura

Belarki-laboreak. Neguko belarki-laboreekin ereiten diren nekazaritza-lurzuetan, lurra lantzean ez da irauli beharko, aurreko uzta biltzen denetik irailaren 1era bitarte; irailaren 1a hartzen baita aurre-ereinaldiaren hasierako erreferentziatzat.

Hala ere, landare-estalkia belarki-laborez osatuta egon dadin errazteko, eta nekazaritzarekin, klimarekin eta lurzorua tipologiarekin erlazionatutako beste zenbait arrazoi direla medio, eremu batzuetan bertako baldintzetara egokituago dauden epeak jarri ahal izango dira aurrez ereiten hasteko, baita lurra lantzeko teknika egokiak –ur geldia iragaztea, gai organikoa botatzea ongarrizko– eta suteen aurkakoak aplikatzeko ere.

Zurezko laboreak. %15eko edo hortik gorako maldetako zurezko laboreen kasuan, esparruaren benetako malda terrazen edo taulenen bitartez konpentsatuta badago izan ezik, ezinbestekoa izango da 1 metroko

gutxieneko zabalerako landare-estaldura bat edukitzea malda handieneko lerroarekiko zeharkako kaleetan edo lerro horrekiko paralelo dauden kaleetan, lurzatiaren diseinuak edo ureztapen-sistemak eragozten badu beste norabidean ezartzea.

Nolanahi ere, laborearekin lehia jardun badezake edo hura biltzea eragozten badu, estaldura hori kendu ahal izango da metodo kimiko edo mekanikoak erabiliz, eta azaleko lan bidez gehitu ahal izango da; nolanahi ere, 5. NIBEaren zurezko laboreei buruzko atalean ezartzen dena errespetatuz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatu beharko hektarea bateko edo gehiagoko azalerako laborantza-lurzatiaren kasuan, laborantza-lurzati irregularren edo luzangen kasuan, baldin eta lurzati horien gutxieneko dimentsioa maldarekiko zeharkako zentzuan 100 metrotik beherakoa bada lurzatiaren edozein puntutan, eta ohiko produkzio-jarduera mantentzeko arrazoiak direla medio, administrazio eskudunak egokitzat hartzen diren kontserbatzeko nekazaritza-teknikak ezarri eta baimentzen baditu.

Baso-eragina duten eremuetan dauden nekazaritza-lurzatietan, agintaritza eskudunak ezarri ahal izango du suebaki gisa jarduteko beharrezkoa den zabalerako zerrenda perimetrala lantzeko betebeharra.

Ehuneko 15eko edo gehiagoko malda duten esparruetako zurezko laboreen oin bakar bat ere ezin izango da ipurditik atera, horrelakorik ezartzen den guneetan izan ezik eta agintaritza eskudunak berriz jartzeko baimena eman badu izan ezik.

Kasu horietan, kultura- eta barietate-birmoldaketara ez ezik, laborantza- edo aprobetxamendu-aldaketetara ere bideratutako arauak errespetatu behar dira.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa ez da aplikatuko esparruaren benetako malda terrazen edo taulenen bitartez konpentsatuta badago.

Lugorriak eta landu gabeko lurrak. Landatzeko ohiko lanak eta gutxieneko lantze-lanak egingo dira edo landare-estaldura egokia mantenduko da, bai naturalki, bai hobetzen lagunduko duten espezieak ereinez.

Nekazaritzako jarduerarik ez duten lurzatiaren kasuan, egoera hori arautzen duten tokiko arauen arabera izan behar dira

5. NIBE. Lurren gutxieneko kudeaketa, higadura mugatzeko tokiko baldintza espezifikoak islatuko dituen

Belarki-laboreak. Belarki-laboreetara bideratzen diren azaleretan, lurra ez da irauli beharko gehieneko maldaren norabidean, landatutako esparruetan malda % 15 edo handiagoa denean, esparruaren benetako malda terrazen edo taulenen bitartez konpentsatuta badago izan ezik. Autonomia-erkidegoek muga txikiagoak ezarri ahal izango dituzte berezitasun topografikoen arabera.

Zurezko laboreak. Zurezko laboreen kasuan, lurra ez da maldaren aldera irauli beharko % 15 edo gehiagoko maldetan, salbu eta esparruaren benetako malda terrazen edo taulenen bitartez konpentsatuta badago, landatzeko modu bereziak hartzen badira (zerrenda bidezko laborantza, adibidez), gutxieneko lantzea edo kontserbatzeko lantzea egiten bada, edo lurzorua guztizko landare-estaldurari eusten bazaio. Taulenak badaude, ezinbestekoa izango da lehendik zeuden taulenen egiturari eragiten dion edozein lan saihestea. Autonomia-erkidegoek muga txikiagoak ezarri ahal izango dituzte berezitasun topografikoen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatu beharko hektarea bateko edo gutxiagoko azalerako laborantza-lurzatiaren kasuan, laborantza-lurzati irregularren edo luzangen kasuan, baldin eta lurzati

horien gutxieneko dimentsioa maldarekiko zeharkako zentzuan 100 metrotik beherakoa bada lurzatiaren edozein puntutan, eta ohiko produkzio-jarduera mantentzeko arrazoiak direla medio, administrazio eskudunak egokitzat hartzen diren kontserbatzeko nekazaritza-teknikak ezarri eta baimentzen baditu. Kasu guztietan, laborea ahalik eta azkarren ezarri behar da, higadurak lurzoruan eraginik izan ez dezan.

6. NIBE. Materia organikoaren mailari eustea lurzoruan lan egokiak eginez, uztondoak erretzeko debekua barne, arrazoi fitosanitarioak direla medio erretzea izan ezik

Ezin izango dira uztondoak erre, salbu eta arrazoi fitosanitarioak direla medio, agintaritza eskudunak haiek erretzeko baimena ematen badu; kasu horretan, suteen prebentzioari buruzko arauak bete beharko dira, eta bereziki, zerrenda perimetralaren gutxieneko zabalera buruzkoak lurra baso-lurren mugakide direnean.

Belarki-laboreen uzta-hondarrak eta zurezko laboreen inausketa-hondarrak deuseztatzen direnean, ezarritako araudia bete beharko da, hala dagokionean.


3. ALDERDI NAGUSIA: PAISAI A MANTENTZEKO GUTXIEN EKO MAILA

7. NIBE. Berezitasun topografikoak mantentzea eta heskaiak eta zuhaitzak hegaztien hazkuntza- eta ugalketa-sasoian mozteko debekua.

Errege Dekretu honen 2. artikuluan definitutako paisaiaren berezitasun topografikoak edo elementuak ezin izango dira aldatu, agintaritza eskudunaren esanbidezko baimena badago izan ezik.

Dena dela, paisaiaren babestutako elementuak elementuok biltzen dituen nekazaritzako lurzatiaren azalera onargarriaren barruan sartuko direla kontuan izanik, arau honen aplikazio- eta kontrol-esparrua zehaztu behar da zenbait elementuren kasuan; hain zuzen ere, gehieneko mugak ezarriko ditugu baina autonomia-erkidegoek aldatu ahal izango dituzte justifikatuz gero, eskualdeko edo tokiko paisaiaren berezitasunak eta kasu bereziak aintzat hartuta.

- Gehienez 10 metroko zabalera duten heskaiak.
- Zuhaitz multzoak, gehienez 0,3 ha-ko azalera okupatzen dutenak.
- Gehienez 10 metroko zabalera duten mugak.
- Putzu, aintzira, urmael eta aska naturalak, gehienez ere 0,1 ha dutenak. Zementuzko edo plastikozko deposituak ez dira aintzat hartuko.
- Landaredia naturaleko edo harkaitzezko irlak edo enklabeak: gehienez ere 0,1 ha dutenak.
- Proiekzio horizontalean gehienez 10 metroko zabalera duten terrazak.



Aurrekoa gorabehera, debekatuta dago heskaiak nahiz zuhaitzak moztea hegaztien hazkuntza- eta ugalketa-sasoian, ingurumeneko agintaritzaren esanbidezko baimena badago izan ezik. Martotik uztaile bitarteko aldia hartuko da erreferentziatza, baina autonomia-erkidegoek aldi hori aldatu ahal izango dute, justifikatuz gero.

Lehen paragrafoan ezarritako betebeharrak betetzeaz salbuetsita geratuko dira honako hauek: geralekuak eraikitze lanak, euri-bideak, erreka eta taulenak zuzentze lanak; eta lurra finkatzeko lanak, arroza eta ureztatu beharreko beste labore batzuk landatzeko prestatu behar diren lurzatiak.

BEHIN-BEHINEKOA

IX. ERANSKINA: ORDAINKETA ZUZENAK: AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBATEKOAK.

PPDD = Pagos Directos
 IAT = Ingresos Agrarios Totales
 PI = Periodo Impositivo = año fiscal = año natural
 n = campaña = año de la Solicitud Única = aSU

ÁMBITO	CONDICIÓN	PERIODO DE VERIFICACIÓN / ACREDITACIÓN	IMPORTE A CONSIDERAR
AGRICULTOR ACTIVO	Regla 80 / 20: PPDD < 80% de Ingresos Agrarios Totales Ingresos Agrarios distintos de PPDD >= 20% de IAT	Periodo Impositivo más reciente = (n-1) → (n-2) → (n-3) • NUEVOS (se incorporan por primera vez): a más tardar en el segundo periodo siguiente al de solicitud (PI año n) computa para SUn+1; (PI n+1) para SUn+2; (PI n+2) para SUn+3	<ul style="list-style-type: none"> • PPDD: sin sanciones admisibilidad/Condi • Ingresos Agrarios Totales
	Actividades excluidas - "lista negativa" - 5% Porcentaje de PPDD sobre Ingresos Totales NO Agrarios >= 5%	n-1 = Periodo Impositivo más reciente para el que se disponga de dicha prueba → Si no tiene SU-PPDD en n-1, PPDD = ha elegibles SUn*valor medio nacional de los PPDD/ha en el año en que se dispone de la información	<ul style="list-style-type: none"> • PPDD: sin sanciones admisibilidad/Condi • Ingresos NO Agrarios
	Excepción a los requisitos de AA: "lista negativa" y 80/20 PPDD < 1.250 €	n-1 = año anterior = <i>parece que se refiere a AÑO NATURAL</i> → Si no tiene SU-PPDD en n-1, PPDD = ha elegibles SUn*valor medio nacional de los PPDD/ha para el año anterior al de solicitud	<ul style="list-style-type: none"> • PPDD: sin sanciones admisibilidad/Condi
REGIMEN SIMPLIFICADO PEQUEÑOS AGRICULTORES	Montante total de PPDD recibidos en 2015 < 1.250 €	Campaña 2015	PPDD = RPB + Greening + Jóvenes + Ayudas Asociadas <i>¿antes de sanciones por admisibilidad y condi? Previsiblemente SÍ</i>
UMBRAL MÍNIMO PARA PODER RECIBIR PPDD	No se concederán cuando PPDD < 300 € Campaña 2015: < 100 € Campaña 2016: < 200 €	n = aSU = campaña	Importe total de los PPDD solicitados o pendientes de concesión, antes de las penalizaciones administrativas por incumplimiento de los criterios de admisibilidad.

X. ERANSKINA

ESKAERA BAKARREAN EMAN BEHARREKO GUTXIENEO INFORMAZIOA

I. Informazio orokorra

1. Nekazariaren identifikazioa: Nekazariaren eta, hala badagokio, ezkontidearen IFZ, izen-abizenak eta ezkontza-erregimena, edo izen soziala, jaiotze-data –hala badagokio–, helbidea (bide mota eta zenbakia, posta-kodea, udalerrria eta probintzia) eta, hala badagokio, legezko ordezkariaren telefono-zenbakia, izen-abizenak eta IFZ. Pertsona fisikoa baldin bada, ustiategiaren titulartasuna partekatua ote den adierazi behar da, dagokion erregistroan alde aurretik erregistratuta dagoela. Hala badagokio, nortasunari buruzko datuak organo instrukzio-egileak egiaztatuko ditu ofizioz, eskatzaileak hartarako baimena ematen badu. Baimen hori ematen ez badu, eskatzaileak dagokion agiria aurkeztu beharko du.
2. Bankuko datuak: ordainketa jaso nahi den finantza-erakundea; IBAN kodeari, bankuko kodeari eta sukurtsalari dagozkien zifrak; kontu korrontearen, libretaren... kontroleko bi digituak eta zenbakia aipatu behar dira.
3. Ustiatetik titularrak Europar Batasunak eta Espainiako estatuak eskatutako laguntza-erregimenen inguruan ezarritako baldintzak ezagutzen dituela jasotzen duen deklarazioa.
4. 2016. urtetik aurrera, laguntzaren eskubideen identifikazioa, 2014ko martxoaren 11ko Batzordearen 640/2014 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 7. artikuluan xedatutako identifikazioko eta erregistroko sistemari jarraiki; Erregelamendu Delegatu horren bitartez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 Erregelamendua (EB) osatzen da, kudeaketako eta kontroleko sistema integratuari dagokionez, ordainketak ukatzeko edo atzera botatzeko baldintzei dagokionez, eta ordainketa zuzenei aplikatu beharreko administrazio-zehazpenei dagokionez. Identifikazio horren ordez produktorearen deklarazio bat aurkez daiteke, oinarriko ordainketarako eskubideen datu-basean agertzen diren eskubide guztien berri emateko eskatuz.
5. Baimena, aurreko urtean benetan ordaindutako lan-kostuen aitortpena agintaritza eskudunak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaltik eskuratzeko, zergak eta kotizazio sozialak ere barnean hartuta, baldin eta nekazariak oinarriko ordainketako erregimenarengatik jaso behar duen laguntzaren zenbatekoa 150.000 euro baino handiagoa baldin bada. Baimen hori ematen ez badu, eskatzaileak dagokion agiri hori aurkeztu beharko du. Dena den, 2015eko eskaerari dagokionez, eskubideak esleitu ostean, eta baimenik ez badago, Administrazioak datu horiek eskatuko dizkie eraginpeko eskatzaileei, laguntza ordaindu baino lehen.
6. Agintaritza eskudun orok laguntzak emateko erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke egiten dituen kontrolak egiten laguntzeko konpromisoa.
7. Agintaritza eskudunak eskatuta, bidegabe jasotako laguntza edo aurrerakinak itzultzeko esanbidezko konpromisoa, hala badagokio, interesak gehituta.
8. Laguntza-erregimen horiengatik beste autonomia-erkidego batean beste eskaerarik aurkeztu ez izanaren deklarazioa.
9. Emandako datu guztiak egiazkoak direla dioen deklarazio formala.
10. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta indarreko gainerako araudian bildutako oharra.
11. Ustiategiaren nekazaritza-lurzati guztien deklarazioa; laguntza-erregimenik eskatzen ez duten lurzatiak ere adierazi behar dira eta, kasu guztietan, lurzati bakoitzerako, eranskin honen III. epigrafearen 1. puntutik 4. puntura bitarte jasotakoa ere bai. Esparru bakoitzari dagokionez, edukitze-erregimena adierazi behar da, hau da, esparrua eskatzailearena ote den; alokairu- edo apartzeria-erregimenean ustiatzen ote den, eta kasu horietan, errentatzaile edo lagatzaile apartzeroaren IFZ adierazi behar da; gozamina edo esparrua kudeatzen duen agintaritza publiko

batek esleitutako herri-azalera bat ote den, eta kasu horretan, esleipen horri dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da. Landa-garapenerako programetako azaleraren arabera laguntzen kasuan, laguntzaren xede diren eta nekazaritzakoak ez diren azalera ere sartu behar dira.

12. SIGPACen (ikustailea) datu-basean deklaraturako nekazaritza-lurzatiarako agertzen diren erabilera eta mugak ezagutzen dituela eta horiek bere ustiatzean egiten dituen erabilera eta aprobetxamenduekin bat datozeala esanbidez adierazten duen deklarazioa; bestela, SIGPAC erabilera-aldaketaren edo dagokion mugatzearen alegazioa aurkeztu beharko da.
13. Agintaritza eskudunak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaz zerga-informazioa eskuratzeko baimena, nekazari aktibo izateko irizpideak betetzen dituela egiaztatu ahal izateko. Baimen hori ematen ez bada, eskatzaileak dagokion agiri hori aurkeztu beharko du.
14. Sozietateen kasuan, hala badagokio, bazkideen izena, IFZ eta jaiotze-data adierazi beharko dira, baita kapital sozialean duten partaidetzaren ehuneko ere.
15. 8. artikuluan 4. idatz-zatiko b) letran aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoen taldeen eta pertsona juridikoen kasuan, azken zergaldian nekazaritzatik jasotako diru-sarrera guztiak aitortu behar dira. Agintaritza eskudunak aurreko bi zergaldietako aitortpena ere egin behar ote den erabaki ahal izango du.
16. Abeltzaintzarako Ustiatzearen Erregistro Orokorra ezarri eta araupezen duen martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuaren arabera, produkzio-unitate bakoitzari esleitutako kodea esanbidez aipatu behar da. Era berean, eskaera egiteko unean, Elikagaigintzako produktuen higienerari buruzko 2004ko apirilaren 29ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 852/2004 Erregelamenduaren (EB) 6. artikuluan oinarrituta, agintari eskudunek ezarritako dituzten erregistroetan ustiatzeari esleitu zaion identifikazio-kodea zein den ere aipatu behar da. Aurrekoa alde batera utzi gabe, agintaritza eskudunak puntu honetan eskatutako informazioa eskuratzeko duenean eskatzaileak jada ez du aurkeztu beharko.

II. Zer eskatzen den esanbidez jasotzen duen deklarazioa

1. Ordainketa-eskaeraren xede diren landa-garapenerako neurrien edo ordainketa zuzenen erregimen bakoitzaren azalera esanbidez adierazi beharko da. Oinarriko ordainketaren erregimena eskatzen bada, adierazitako oinarriko ordainketarako eskubideei dagokien ordainketa eskatzen dela adierazi behar da, erregimen horretarako ustiatze onargarriaren azalera guztia aintzat hartuta, eta salbuespen izango da II. tituluko I. kapituluan xedatutako irizpideak betetzen ez diren kasua.
2. Oinarriko ordainketa eskatzen bada, dagokion kanpainan dituen eskubide guztiena eskatzen dela adierazi behar da, edo, eskubide guztien oinarriko ordainketa ez bada eskatzen, eskubideak esleitu dituen eskualde bakoitzean zer eskubide eskatzen dituen identifikatzeko zerrenda bat aurkeztu beharko da.

III. Laboreei Laguntzeko Erregimenak, azaleraren arabera laguntza-neurriak eta nekazaritza-jarduera azaleretan gauzatzen duten nekazarietarako bestelako laguntzak

Ustiatzearen nekazaritza-lurzati guztiak adierazi behar dira, eta kasu guztietan, eta lurzati bakoitzerako, hurrengo 1. puntutik 4. puntura bitarte jasotakoa ere adierazi behar da; halaber, eskatzen den laguntza-erregimenaren arabera, gainerako puntuetatik dagokiona adieraziko da:

1. Identifikazioa SIGPACen erreferentzia alfanumerikoen bitartez edo mugatze grafiko bidez egingo da. Hala ere, lurralde-aldaketak gertatzen diren udalerrietan, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoren batengatik, Autonomia Erkidegoak beste erreferentzia ofizial batzuk erabilteza baimen dezakete, aldi baterako.
2. Azalera hektareatan adierazi behar dira, bi dezimalekin.

3. Laguntzaren xede diren erregimenak.
4. Lurzatiak zertarako erabiltzen diren; edonola ere, zer produktu lantzen den, larre iraunkorrak, bestelako bazka-azalerak, lugorria eta lugorri mota, labore iraunkorrak, ziklo laburreko baso-zuhaitzekin landatutako azalerak eta abar adierazi behar dira. Larre-esparruen kasuan, lurzatiaren mantentze-lanak artzaintza bidez edo bestelako tekniken bidez egingo diren adierazi behar da. Eskatzaileak esanbidez adierazi behar du deklaratu dituen larre eta aprobetxamenduak, baita mantentze-lanetako jarduerak ere, egiazkoak direla eta bere nekazaritza-jarduera zintzoki islatzen dutela.
5. Ingurumen-lugorria bereiz deklaratu behar da, 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 Erregelamenduari (EB) jarraiki, eta baso-sartzea, aldiz, Erregelamendu berari edo Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsaren landa-garapenerako laguntzari buruzko 1999ko maiatzaren 17ko 1257/1999 Erregelamenduari jarraiki, Erregelamendu jakin batzuk aldatzen eta indargabetzen dituena.
6. Ustiapen-sistema: lehorrekoa edo ureztatua, dagokionaren arabera.
7. Lurzatiaren zerealak edo olio-landareak landatzen badira, estatistikak egitearren, honako datu hauek adierazi behar dira: erabili den hazia ziurtatuta ote den edo berrerabilertatik ateratakoa ote den, baita zer barietate landatu den ere, gari gogorra, arroza, kalamua, kotoia, tabakoa eta azukre-erremolatxa baldin bada. Artoa landatuz gero, landatutako barietatea genetikoki eraldatu ote den adierazi behar da.
8. Interes ekologikoko azalerak:
 - Lugorriaren dauden lurzatiaren, baso-sartzeak egindako azalaren, eta nekazaritzarako eta basogintzarako azalaren zerrenda, Errege Dekretu honen 24. artikuluan deskribatzen diren moduan.
 - Nitrogenoa finkatzen duten laboreen lurzatiaren zerrenda, honako labore hauetakoren bat landatzen bada:
 - Gizakiek eta animaliek kontsumitzeko lekadunak, eta hala badagokio, honako espezie hauek bereziki behar dira: babarruna, txixirioak, dilistak, ilarrak, babak, lupinua, algarrobo-leka, titarroak, aixkola, txirta, eruak, ailorbea, zalkea, aixkola, astorkia eta zulla.
 - Alpapa.
9. Lurzati batean 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabeko produkzio ekologikoko metodo bat aplikatzen duela justifikatzen badu produktoreak, deklarazio hori egiaztatzeko aukera emango duen ziurtagiri bat aurkeztu beharko du. Agintaritza eskudunak puntu honetan eskatutako informazioa eskuratzen duenean eskatzaileak jada ez du eskaerarekin batera aurkeztu beharko.
10. IV. tituluko I. kapituluaren 3. sekzioan aipatzen diren labore proteinadunekin lotutako laguntzaren kasuan, ordainketaren xede den azalera espeziearen arabera banakatu beharko da eta, hala badagokio, landatutako barietatearen arabera.
11. IV. tituluko I. kapituluaren 4. sekzioan aipatzen diren oskoldun fruituekin lotutako laguntzaren kasuan, berriz, espezieak eta laguntza horren onuradun diren espezie bakoitzetik lehendik zeuden zuhaitzen kopurua.
12. IV. tituluko I. kapituluaren 8. sekzioan aipatzen den kotoi-laborearen ordainketa espezifikoaren kasuan, hala badagokio, baimendutako lanbide arteko zein erakundetako kide zaren adierazi behar duzu.

IV. Abeltzainekin lotutako laguntza, animaliekin lotutako laguntza-neurriak eta abeltzaintzako jardueran aritzen diren nekazarientzako laguntzak

1. Ustiatokia osatzen duten produkzio-unitate guztien deskribapen osoa, laguntza-eskaeraren xede diren animaliak egoten direnak edo laguntza horiek jasotzeko aintzat hartu behar direnak ere barnean hartuta. Abeltzaintzarako Ustiatokiek Erregistro Orokorra ezarri eta araupetzen duen

martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuaren arabera, produkzio-unitate bakoitzari esleitutako kodea esanbidez aipatu behar da.

2. Abeltzaintza-jardueran aritzen diren abeltzainei zuzendutako laguntza guztien kasuan, laguntza baldintzak betetzen dituzten animalien ahalik eta kopuru handienarengatik emateko eskatu behar du produktoreak.

2014ko uztailaren 17ko Batzordearen 809/2014 Erregelamendu Betearazlearen (EB) 21. artikulua 4. idatz-zatiari jarraiki, eskaerari produktorearen deklarazioa atxiki behar zaio; deklarazio horren bidez, produktoreak adierazi behar du jakin badakiela animaliak identifikatzeko eta erregistratzeko sisteman behar bezala identifikatuta edo erregistratuta ez daudela egiaztatu den animalien kasuan, animalia horiek irregulartasunak dituzten kasutzat hartu ahal izango direla, 2014ko martxoaren 11ko Batzordearen 640/2014 Erregelamendu Delegatuaren (EB) 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Bere ustiategiaren datuak datu-base informatizatuan dauden datuekin bat datozela dioen deklarazioa, edo bestela, organo eskudunari zuzenketa jakinarazteko konpromisoa, martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuan finkatutakoari jarraiki.
4. Behi ume-hazleagatiko lotutako laguntzaren kasuan, hala badagokio, eskatzailearen ustiategitik ateratako esnari edo esnekiei buruzko deklarazioa.
5. Behi, ardi eta ahuntzen sektoreko animaliei buruzko datuak datu-base informatizatuan dauden datuekin bat datozela dioen deklarazioa, edo bestela, organo eskudunari zuzenketa jakinarazteko konpromisoa, Behi-espezieko animalientzako identifikazio eta erregistro sistema ezartzen duen irailaren 18ko 1980/1998 Errege Dekretuan eta Ardi- eta ahuntz-espezieetako animaliak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema ezartzen duen irailaren 16ko 685/2013 Errege Dekretuan finkatutakoari jarraiki.

V. Informazio eta dokumentazio gehigarria

1. Nekazaritzako lurzatiaren krokisa, produktoreak SIGPAC esparru oso-oso bat deklaratu ez badu, honako kasu hauetan izan ezik: erabilera arrunteko larre iraunkorren kasuan eta lurzatiaren titularraren apartzeria-erregimenekoa den kasuan.
2. 11. artikuluan xedatutako nekazaritza-jarduera justifikatzeko, produktoreak larre-azaleren laguntzak jaso behar baditu eta ez bada Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Orokorrean erregistratutako abeltzaintza-ustiategi baten titular, 11. artikulua 5. idatz-zatiaren a) eta b) letretan jasotakoari jarraiki, agintaritzaren eskudunak agintzen duenean, deklaratuako larre-azaleran IV. eranskinean deskribatzen diren mantentze-lanak egiten dituela egiaztatzen duten frogak aurkeztu beharko ditu.
3. IV. tituluko I. kapituluaren 6. sekzioan aipatzen den azukre-erremolatzarekin lotutako laguntzaren kasuan, azukre-industriarekin egindako hornidura-kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.
4. IV. tituluko I. kapituluaren 7. sekzioan aipatzen den industriarako tomatearekin lotutako laguntzaren kasuan, eraldaketa-prozesua burutuko duen industriarekin sinatutako kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.
5. IV. tituluko II. kapituluaren 2. sekzioan aipatzen diren behi ume-hazleak dituzten ustiategietarako lotutako laguntzaren kasuan, esne-errendimenduari buruzko ziurtagiri ofiziala, beharrezkoa denean.
6. IV. tituluko II. kapituluaren 4. sekzioan aipatzen diren esne-behien ustiategietarako lotutako laguntzaren kasuan, eskaeraren aurreko urtean zuzeneko salmentak egin izana justifikatzen duten agiriak, betiere ustiategiak ez baditu egiten erosleentzako entregak.
7. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, agintaritzaren eskudunak V. atal honetan eskatzen den dokumentazioa eskuratzen duenean, eskatzaileak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, eta horren ordez, hala badagokio, informazio hori eskuratzeko baimena esanbidez eman beharko dio agintaritzaren eskudunari.

8. Autonomia-erkidegoak Sistema Integratuaren eremuan landa-garapenerako neurrietarako ezarritako beste edozein informazioa, «bestelako deklaraziorik» kontzeptupean

BEHIN-BEHINEKOA

XI. ERANSKINA

ERABILERA ARRUNTEKO LARRE IRAUNKORREN DEKLARAZIOA SIGPACaz **BESTELAKO ERREFERENTZIEKIN**

1. Deklaratzen diren esparruak arruntak izan daitezke, edo beste erreferentzia ofizial batzuk izan ditzakete. Esparru arrunt izango dira SIGPACen erreferentziatutako identifikazioa dutenak. Esparru arrunten kasuan, azalera hektareatan adieraziko da, bi dezimalekin. Erabilera arrunteko larre iraunkorren kasuan, ez da krokisa aurkeztu beharrik.
2. Beste erreferentzia ofizial batzuk dituzten esparruak baldin badira, komunean deklaraturako larrea kudeatzen duen agintaritzak, eskaera bakarra zabaldu aurretik edo horren aldi berean, autonomia-erkidegoak finkatzen duen prozeduraren arabera, deklarazio bat aurkeztu beharko du honako informazio hau, gutxienez, bilduta:
 - Agintaritza Kudeatzailearen datu orokorrak: izena edo izen soziala eta, baldin badu, NAN/IFZ. Agintaritza kudeatzaile horrek nekazariei jakinarazi behar dizkie datuok.
 - Hala badagokio, komunean deklaraturako larrearen izena eta, baldin badu, onura publikoko mendien kasuan, OPM zenbakia.
 - Esparrua beste erreferentzia ofizial batzuekin identifikatzeko kodea: autonomia-erkidegoak zehaztuko du eta nekazariei jakinaraziko die, eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu aurretik nahitaez, azalaren deklarazioan erabil dezaten. Oro har, komunean deklaraturako larre baten kasuan, identifikazio-kode bakarra zehaztuko da, baldin eta larre horren gune zehatzen arabera esleitzen ez bada; kasu horretan, gune bakoitzeko kode bat zehaztuko da.
 1. Probintziaren eta Udalerriaren kodeak.
 2. Agregatuaren eta Gunearen kodeak.
 3. Poligonoa (3 posizio): 900eko heineko zenbakiekin kodetuko da.
 4. Lurzatia (5 posizio): 99000ko heineko zenbakiekin kodetuko da.
 5. Esparrua (5 posizio): 99000ko heineko zenbakiekin kodetuko da.
 - Lotutako benetako esparruak, komunean deklaraturako larreetan sartzen direnak (azalera gordina). Kanpainaren cacheari dagokionez, esparruen onargarritasunean aldaketak gertatzen badira, autonomia-erkidegoak Agintaritza Kudeatzaileari jakinarazi behar dio.
 - Onargarritasun-koefizientea (CAP), komunean deklaraturako larreei dagokienez. CAP hori komunean deklaraturako larrea osatzen duten esparru bakoitzerako zehaztuko da.
 - Lotutako nekazariak, dagokien IFZrekin.
 - Komunean deklaraturako larrean nekazari bakoitzak zenbateko partaidetza duen; nekazari bakoitzari esleitutako hektarea kopurua izan daiteke, edo partaidetzaren ehunekoa.
3. Bestalde, komunean deklaraturako larreen eskatzaileak honako datu hauek adierazi beharko ditu:
 - Eskaeraren xede den eta komunean deklaraturako larretik Agintaritza Kudeatzaileak zenbat hektarea esleitu dizkion.
 - Komunean deklaraturako larrearen Agintaritza Kudeatzailearen datu orokorrak; datu horiek bat etorri beharko dute agintaritza kudeatzailearen deklarazioaren aurreko puntuan aipatzen den identifikazioarekin.
 - Komunean deklaraturako larreari dagozkion beste erreferentzia ofizial batzuk ere baditu(zt)en esparru(ar)en identifikazio-kodea, deklaratu nahi dena eta Agintaritza Kudeatzaileak alde

aurretik zehaztu duena. Agintaritzak kudeatzailearen deklarazioaren aurreko puntuan aipatzen den kodearekin bat etorri beharko du.

BEHIN-BEHINEKOA

BEHIN-BEHINEKOA

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrila